


Hemen nauzu



ATALEZ ATAL - *Ikus*

1. ABENDUA, zain egon, itxaropena, eguberria
2. ADI EGON, erne, konsziente sentibera izan - *Askapena*
3. AHULDADEA, estualdia, tentsioa, etsipena
4. AITA, Jesusen Aita, Gure Aita - *Gure Aita*
5. ALAITASUNA, poza - *Zoriontasunak*
6. APALTASUNA, biluztasuna, onarpena - *Konfiantza*
7. ASKAPENA, pobreak, justizia - *Konpromisoa*
8. BIZITZA, etapak, heriotza
9. BIZITZA OSATUA, oreka, leialtasuna, zintzotasuna-
Zoriontasunak
10. DEIA, bokazioa - *Jarraipena*
11. EGUNERO, goizean, arratsaldean, gauean
12. EMAKUMEA, emakumearen alde
13. ESKER ONA, aintza, bedeinkapena
14. ESPIRITUA, Jesusen Espiritua
15. FEDEA, sinesmena, kredoan - *Misterioa*
16. GIZAKIA BILA, Jainko egarria - *Misterioa*
17. GIZAKIA ZUTIK, gizakiaren alde - *Ahuldadea*
18. GURUTZEA, nekaldia, Aste Santua - *Pazkoa*
19. HEZIKETA, eskola - *Misioa*
20. IZADIA, kreaioa, natura
21. JARRAIPENA, eskaintza, iraupena - *Deia, misioa*
22. JESUSEN MEZUA, ebanjelioko pasarteak - *Zoriontasunak*
23. KONFIANTZA, Jainkoa oinarri-euskarri - *Apaltasuna*
24. KONPROMISOA, zerbitzua, solidaritatea - *Askapena*
25. KRISTAU ELKARTEA, Eliza - *Salletar elkarte*
26. MAITASUNA, bakea, barkamena, berradiskidetzea
27. MARIA, Jesusen Ama
28. MISIOA, bidaliak, testigutza, eginkizuna - *Deia, heziketa*
29. MISTERIOA, otoitza, Presentzia, Traszendentzia-*Gizakia bila*
30. PAZKOA, piztuera, Kristo - *Fedea*
31. SALLETAR ELKARTEA, Araudia, asoziazioa - *Kristau elkarte*
32. ZORIONTASUNAK ebanjelioko eskemari jarraituz-*Jesusen mezua*

OTOITZAK ATELEZ ATAL

1. ABENDUA, zain egon, itxaropena, eguberria

[Abenduko Andre Mariari](#)

[Badator](#)

[Esperoan](#)

[Ikasi eramanpeneko izaten](#)

[Mikeasen kantika](#)

[Norbait datorke arratsean](#)

[Zatoz, Jesus Jauna](#)

2. ADI EGON, erne, konsziente–sentibera izan - *Askapena*

[Adi gaurko egunari](#)

[Esna nazazu, Jauna](#)

[Eta Jainkoa balitz?](#)

[Garrantzizkoena ez da...](#)

[Hurbiltzen banaiz...](#)

[Iratzar gaitzazu, Jauna](#)

[Nire bihotza ez dadila ohitu](#)

3. AHULDADEA, estualdia, tentsioa, etsipena

[Ez daitezela neka hezitzaileak](#)

[Gera zaitez](#)

[Hartu, Jauna, eta bihurtu](#)

[Nire burua biluz](#)

[Tentsioan](#)

4. AITA, Jesusen Aita, Gure Aita - *Gure Aita*

[Arduraren Gure Aita](#)

[Gure Aita zaitugu](#)

[Gure Aita, nire ikasgelan zarena](#)

[Jainkoa gure lurrean bizi da](#)

[Jauna dugu lagun](#)

[Jauna dut artzain](#)

5. ALAITASUNA, poza - *Zoriontasunak*

[Dantzatzea atsegin](#)

[Egizu elkarte alaia](#)

[Emaguzu zure alaitasuna](#)

[Gehienontzat lurra eta bizipoza](#)

[Ospa ezazu zeure bizitza](#)

6. APALTASUNA, biluztasuna, onarpena - *Konfiantza*

[Etorkizunaren profetak](#)
[Etxea Jaunak eraikitzen ez badu](#)
[Ezin zaitut estutu](#)
[Hondar alea](#)
[Zure harrigarriak kontatzen ditugu](#)

7. ASKAPENA, pobreak, justizia - *Konpromisoa*

[Arduraren Gure Aita](#)
[Bihotz errukitsua izango banu...](#)
[Gure aita, erbestean zarena](#)
[Jainkoa gure lurrean bizi da](#)
[Kristo behartsua](#)
[Lagunduko dizut](#)
[Nahi nuke nahi, Jauna](#)
[Nire bihotza ez dadila ohitu](#)
[Profeten aldeko otoitza](#)
[Zorionekoa behartsua zaintzen duena](#)
[Zure bidea hartzea](#)

8. BIZITZA, etapak, heriotza

[Ataka irekiko didanean](#)
[Begira horien maitasunari](#)
[Behin betiko bat egina](#)
[Ereintza](#)
[Harantz](#)
[Jaso nazazu, maite, azken egunean](#)
[Noizbait](#)
[Norbait datorke arratsean](#)
[Osa itzazu planoak](#)
[Urtea bukatzeko otoitza](#)
[Zuganantz](#)

9. BIZITZA OSATUA, oreka, leialtasuna, zintzotasuna - *Zoriontasunak*

[Adi gaurko egunari](#)
[Barne bilkura](#)
[Bizitza berrirako ordua da](#)
[Gizon berriaren salmoa](#)
[Gure Aita, nire ikasgelan zarena](#)
[Hurbiltzen banaiz...](#)
[Isiltasunaren egoitza](#)
[Lagundu iezadazu egia esaten](#)
[Munduari bihotza ireki](#)
[Ospa ezazu zeure bizitza](#)
[Sinesten dut Jainkoa](#)

[Zeinen ederra den](#)
[Zintzotasuna](#)
[Zuen jardueran ahalegindu zaitezte](#)

10. DEIA, bokazioa - *Jarraipena*

[Eliza izateko deia](#)
[Guri ere deitzen diguzu Itxaropen](#)
[zantzuak](#)
[Jarrai niri](#)
[Tentsioan](#)
[Zuei, adiskide deitzen dizuet](#)
[Zuk aukeratu nauzu](#)

11. EGUNERO, goizean, arratsaldean, gauean

[Eguna hasteko salmoa](#)
[Goizeko otoitza](#)

12. EMAKUMEA, emakumearen alde

[Andre eta gizon, bat hartuta](#)
[Emakumeak Elizan eta etxean](#)
[Emakumearen zorionak](#)
[Esperoan](#)
[Sinesten dut emakumearen berriona](#)

13. ESKER ONA, aintza, bedeinkapena

[Bedeinka nazazu](#)
[Bedeinkapen irlandarra](#)
[Eskerrak eta gorespen zuri](#)
[Eskerrik asko zure samurtasunagatik](#)
[Eskerronez kantari ari gara](#)
[Heldu da eguna](#)
[Horregatik gara eskerroneko](#)
[Zeinen gozagarria](#)
[Zure maitasunaz gaindi](#)

14. ESPIRITUA, Jesusen Espiritua

[Espiritu Santuari dei](#)
[Ez bedi itzal zure Espiritua](#)

15. FEDEA, sinesmena, kredoak - *Misterioa*

[Bizitzaren kredoak](#)
[Fede espirituaren salmoa](#)
[Fedearen izarraren argitan](#)
[Garrantzizkoena ez da...](#)
[Gizakiaren etorkizunean daukadan fedea](#)
[Izan zaitez, Jauna](#)

[Jainko indargabea sinesten dut](#)
[Jesusengan sinetsi](#)
[Sinesten dut emakumearen berriona](#)
[Sinesten dut Jainkoa](#)
[Zalantzaren itsasoan](#)

16. IZAKIA BILA, Jainko egarria - *Misterioa*

[Argiaren Bila](#)
[Arrastoak bil](#)
[Atsedetik gabe zure bila](#)
[Barne bilkura](#)
[Behin betiko bat egina](#)
[Eta zer, Jainko](#)
[Ez ibili Jainkoaren bil](#)
[Ezagutzeko irrika](#)
[Gordeketan](#)
[Jainkoaren bila](#)
[Mintza zakizkit Jainkoaz](#)
[Mundu osoa](#)
[Nire aurkikuntza](#)
[Nire begiak egon bitez zabalik](#)
[Oi, ene bihotz](#)
[Txangorik luzeena Zatoz gure ondotik](#)
[Zoko ilunean pilaturiko altxorrak](#)
[Zoritxarrekoa, lurrontzi hutsa](#)
Zure aurrean, Jauna
Zure bila nabil

17. IZAKIA ZUTIK, gizakiaren alde - *Ahuldadea*

[Gehienontzat lurra eta bizipoza](#)
[Gizonaren alde](#)
[Gure benetako aberria](#)
[Jainkoaren zauri guztiak](#)
[Maitasun kantua](#)

18. GURUTZEA, nekaldia, Aste Santua - *Pazkoa*

[Badago minik Jainkoagan](#)
[Jainkoaren zauri guztiak](#)
[Maitasun kantua](#)

19. HEZIKETA, eskola - *Misioa*

Egiazko Maisu bakarra
Egiazko maitasunari ereserkia
Eskola Jaunak eraikitzen ez badu
Espero-gabeko bideetatik
Ez daitezela neka hezitzaileak
“Gerta bekit” hartatik
Guztiok hezitzaile
Heztea
Irakasleen zoriontasunak
Kalitateaz blai
Maisuak horrela asmatu zintuen
Zorioneko zu, irakasle

20. IZADIA, kreazioa, natura

Eder da dena
Horregatik gara eskerroneko

21. JARRAIPENA, eskaintza, iraupena - *Deia, misioa*

Argia, bidea, bizia
Emandako hitzari eusten diot
Ez daukat zureak beste begirik
Ezer ez dago behin-betiko egina
Hasi behin eta berriro
Ikasi eramanpeneko izaten
Irakats iezadazu
Irten zen Abraham
Nire burua biluz
Oraindik zure bidean dihardugu
Osa itzazu planoak
Oso-osorik ematen natzaizu
Segimenduaren salmoa
Zer nahi duzu nik egitea?
Zoriontsu izan nahi dut
Zuganantz

22. JESUSEN MEZUA, ebanjelioko pasarteak - *Zoriontasunak*

[Gari artean, olo gaiztoa](#)

[Maisuaren altxorra](#)

[Marta, Marta](#)

[Ni ez nauzu zintzoentzat etorria](#)

[Udaberria Galilean](#)

23. KONFIANTZA, Jainkoa oinarri euskarri - *Apaltasuna*

[Adoretsu nago, ene Jainko](#)

[Egin bedi zure nahia](#)

[Ez izan beldur, askatu baitzaitut](#)

[Ez izan beldur, ene aukeratu hori](#)

[Geza natorkizu](#)

[Goi-goikoaren aterpean](#)

[Gurtu eta izan uste on](#)

[Hartu, Jauna, eta bihurtu](#)

[Ireki, Jauna, nire ezpainok](#)

[Konfiantza](#)

[Mirari bakoitzeko](#)

[Neu naiz Jauna](#)

[Oi, gure Jainko](#)

[Zalantzaren itsasoan](#)

[Zatoz gurekin, Bidaide](#)

[Zu bakarrik](#)

24. KONPROMISOA, zerbitzua, solidaritatea - *Askapena*

[Bihotz errukitsua izango banu...](#)

[Bizitzaren kredoa](#)

[Elkartasuna](#)

[Emaguzu zure alaitasuna](#)

[Ene anaia, ene arreba](#)

[Esku batuak](#)

[Gordeketan](#)

[Harresi zulatuen konpontzaile](#)

[Irakatsi guri, Jauna](#)

[Lagunduko dizut](#)

[Profeten aldeko otoitza](#)

[Zerbitzu atsegina](#)

25. KRISTAU ELKARTEA, Eliza – *Salletar elkartea*

[Anai–arrebak soil-soilik](#)
[Anaiak eman dizkidazu](#)
[Anaitasun-otoitza](#)
[Dagigun gure etxeaz sutondo](#)
[Egizu elkarte alaia](#)
[Eliza izateko deia](#)
[Elkartea zainduko dut](#)
[Gure elkartea izan bedi berri](#)
[on Senitarteko maitasunean](#)

26. MAITASUNA, bakea, arkamena, berradiskidetzea

[Bake zuzena](#)
[Bakea eskatzen dizugu](#)
[Bakearen aldeko otoitza](#)
[Bakearen jaia](#)
[Barkamenaren Jainkoa](#)
[Begira horien maitasunari](#)
[Maitasun kontuak](#)
[Senide izatea](#)
[Senitarteko maitasunean](#)
[Zuk badakizu maite zaitudala](#)
[Zure mahaikidegoa ospatzen](#)

27. MARIA, Jesusen Ama

Abenduko Andre Mariari
[Egin bedi nigan zure Hitza](#)

28. MISIOA, bidaliak, testigutza, eginkizuna – *Deia, heziketa*

[Belarriak ireki zenizkidan](#)
[Berak aukeratu gintuen](#)
[Deia](#)
[Eskerrak hautatu gaituzulako](#)
[Etorkizunaren profetak](#)
[Etxea Jaunak eraikitzen ez badu](#)
[Kristo behartsua](#)
[Misio egitasmoarekin konprometituak](#)
[Nazioarteko argitzat ezarriko zaitut](#)
[Zatoz gure ondotik](#)

29. MISTERIOA, otoitza, Presentzia, Traszendentzia-Gizakia bila

[Bertan zaude](#)
[Bizi dugun eguratsean](#)
[Eta Jainkoa balitz?](#)
[Ez zaitez ezkuta Gorputzaren](#)
[baitan](#)
[Hitz haragitua](#)
[Isildu, Jauna, nire otoitza](#)
[Isiltzearekin bakarrik... Laga](#)
[gauzen irudiak](#)
[Ni zurekin nago](#)
[Nigandik gertu zaude](#)
[Oi, argi ikustezin](#)
[Otoitz egitea zer den](#)
[Presentzia bizia](#)
[Zuri dagokizu otoitzaldi hau](#)

30. PAZKOA, piztuera, Kristo - Fedea

[Bizitza berrirako ordua da](#)
[Izan zaitez, Jauna](#)
[Kristo, gure biziaren oinarri](#)
[Pazkoa iragartzeko otoitza](#)

31. SALLETAR ELKARTEA, Araudia, asoziazioa – Kristau elkarte

[Elkarte espirituaren salmoa](#)
[Elkartea zainduko dut](#)
[Espero-gabeko bideetatik](#)
[Fede espirituaren salmoa](#)
[Fedearen izarraren argitan](#)
[Jesukristoren enbaxadore](#)
[Prest dagoen Anaidia](#)

32. ZORIONTASUNAK ebanjelioko eskemari jarraituz-Jesusen mezua

[Emakumearen zorionak](#)
[Gaur ere, zorionak](#)
[Irakasleen zoriontasunak](#)
[Omenaldi](#)
[Zorioneko zu, irakasle](#)
[Zorionekoa behartsua zaintzen duena](#)
[Zoriontsu izan nahi dut](#)

OTOITZAK ALFABETIKOKI

OTOITZA	IDAZLEA	ITZULTZALEA	ORRIA	ATALA
Abenduko Andre Mariari	Patxi Ezkiaga		16	1, 27
Adi gaurko egunari	Sanskritotik hartua		17	2,9
Adoretsu nago, ene Jainko			18	23
Anaiak eman dizkidazu			19	25
Anaitasun otoitza	Ignacio Larrañaga		20	25
Anai-arrebak soil-soilik	Erl.Bizitzaren Institutoa		21	25
Andre eta gizon, bat hartuta			22	12
Arduraren Gure Aita	Miguel Ángel Mesa		23	4,7
Argia, bidea, bizia	Patxi Ezkiaga		25	21
Argiaren bila	Carlos Bousoño		26	16
Arrastoak bil	Madeleine Delbrêl		27	16
Ataka irekiko didanean		lokin Otaegi	28	8
Atsedetik gabe zure bila	José Real Navarro		29	16
Badago minik Jainkoagan	Maurice Zundel		30	18
Badator	Saint-Cir-eko Jean		31	1
Bake zuzena	M. Gravina - A. Fitipelli		32	26
Bakea eskatzen dizugu	Víctor M. Arbeloa		33	26
Bakearen aldeko otoitza	Patxi Ezkiaga		34	26
Bakearen jaia	Bitoriano Gandiaga		35	26
Barkamenaren Jainkoa	José Serna		36	26
Barne bilkura	Tauler		37	9, 16
Bedeinka nazazu	Anselm Grün		38	13
Bedeinkapen irlandarra			39	13
Begira horien maitasunari	France Quéré		40	8,26
Behin betiko bat egina		lokin Otaegi	42	8,16
Belarriak ireki zenizkidan			43	28
Berak aukeratu gintuen	Leo Rock		44	28
Bertan zaude	Rabindranah Tagore		45	29
Bihotz errukitsua izango banu...	Florentino Ulibarri		46	7,24
Bizi dugun eguratsean	Tersteegen		47	29
Bizitza berrirako ordua da	Florentino Ulibarri		48	9,30
Bizitzaren kredo	Florentino Ulibarri		49	15, 24
Dagigun gure etxeaz sutondo	José M ^a Cabodevilla		51	25
Dantzatzea atsegin	Madeleine Delbrêl		54	5
Deia	Ignacio Iglesias		55	28
Eder da dena	Nabajoen kanta		56	20
Egiatzko Maisu bakarra			57	19
Egiatzko maitasunari ereserkia	José M ^a Escudero		58	19
Egin bedi nigan zure Hitza	Patxi Ezkiaga		60	27
Egin bedi zure nahia	Florentino Ulibarri		61	23
Egizu elkarte alaia			62	5, 25
Eguna hasteko salmoa (5. salmoa)	Emilio Mazariegos	lokin Otaegi	63	11
Eliza izateko deia			65	10, 25
Elkartasuna	Leónidas Proaño		66	24
Elkarte espirituaren salmoa			67	31

Elkartea zainduko dut	Florentino Ulibarri		69	<i>25, 31</i>
Emaguzu zure alaitasuna	José Serna		71	<i>5, 24</i>
Emakumeak Elizan eta etxean			72	<i>12</i>
Emakumearen zorionak			73	<i>12, 32</i>
Emandako hitzari eusten diot	Pedro Casaldáliga		74	<i>21</i>
Ene anaia, ene arreba	R. Borda de la Parra		75	<i>24</i>
Ereintza	Miguel Otero Silva		77	<i>8</i>
Eskerrak eta gorespen zuri	José Real Navarro		78	<i>13</i>
Eskerrak hautatu gaituzulako			79	<i>28</i>
Eskerrik asko zure samurtasunagatik			80	<i>13</i>
Eskerronez kantari ari gara	González Cordero		82	<i>13</i>
Eskola Jaunak eraikitzen ez badu (127. sal.)			83	<i>19</i>
Esku batuak	Pedro Casaldáliga		84	<i>24</i>
Esna nazazu, Jauna	Mari Patxi Ayerra		85	<i>2</i>
Esperoan	Ermes Rochi		86	<i>1, 12</i>
Espero-gabeko bideetatik			88	<i>19, 31</i>
Espiritu Santuari dei	Jose Antonio Pagola	lokin Otaegi	89	<i>14</i>
Eta Jainkoa balitz?	Florentino Ulibarri		91	<i>2, 29</i>
Eta zer, Jainko	Xabier Lete		93	<i>16</i>
Etorkizunaren profetak	Óscar A. Romero		94	<i>6, 28</i>
Etxea Jaunak eraikitzen...(127. salm.)	J. Mauleón		96	<i>6, 28</i>
Ez bedi itzal zure Espiritua			97	<i>14</i>
Ez daitezela neka hezitzaileak			98	<i>3, 19</i>
Ez daukat zureak beste begirik			99	<i>21</i>
Ez ibili Jainkoaren bila	Eckhart		100	<i>16</i>
Ez izan beldur, askatu ... (Is 43, 1)	Patxi Ezkiaga		101	<i>23</i>
Ez izan beldur ene aukeratu (Is 44, 2-3)	Patxi Ezkiaga		102	<i>23</i>
Ez zaitetz ezkuta	José Serna		103	<i>29</i>
Ezagutzeko irrika	José Real Navarro		105	<i>16</i>
Ezer ez dago behin-betiko egina			106	<i>21</i>
Ezin zaitut estutu	Benjamín Glez Buelta		108	<i>6</i>
Fede espirituaren salmoa			109	<i>15, 31</i>
Fedearen izarraren argitan	Michel Hubaut		111	<i>15, 31</i>
Gari artean, olo gaiztoa (Mt 13, 24-30)	lokin Otaegi		112	<i>22</i>
Garrantzizkoena ez da...	Benjamín Glez Buelta		114	<i>2, 15</i>
Gaur ere, zorionak	Jean Charles Thomas		116	<i>32</i>
Gehienontzat lurra eta bizipoza	Bitoriano Gandiaga		117	<i>5, 17</i>
Gera zaitetz	Florentino Ulibarri		118	<i>3</i>
“Gerta bekit” hartatik			119	<i>19</i>
Geza natorkizu	Bitoriano Gandiaga		120	<i>23</i>
Gizakiaren etorkizunean ...	Martin Luther King		121	<i>15</i>
Gizon berriaren salmoa			122	<i>9</i>
Gizonaren alde	A. Malo Uceta	lokin Otaegi	123	<i>17</i>
Goi-goikoaren aterpean	Florentino Ulibarri		124	<i>23</i>
Goizeko otoitza	André Sève		126	<i>11</i>
Gordeketan	lokin Otaegi		127	<i>15, 24</i>
Gorputzaren baitan	Kabir		128	<i>29</i>
Gure Aita zaitugu			129	<i>4</i>

Gure aita, erbestean zarena	Xabier Lete		130	7
Gure Aita, nire ikasgelan zarena			131	4, 19
Gure benetako aberria	Florentino Ulibarri		132	17
Gure elkartea izan bedi berri on	Florentino Ulibarri		133	25
Guri ere deitzen diguzu			135	10
Gurtu eta izan uste on	Teilhard de Chardin		136	23
Guztiok hezitzaile	Marco S. López		137	19
Harantz	Iokin Otaegi		138	8
Harresi zulatuen konpontzaile... (Is 58, 12)	Elena Andrés		139	24
Hartu, Jauna, eta bihurtu			141	3, 23
Hasi behin eta berriro	Joseph Cardjin		142	21
Heldu da eguna	José Serna		143	13
Heztea	Anai Fermin Gainza		144	19
Hitz haragitua	José Real Navarro		145	29
Hondar alea			146	6
Horregatik gara eskerroneko	Kahniakehaka herria		147	13, 20
Hurbiltzen banaiz...			149	2, 9
Ikasi eramanpeneko izaten			150	1, 21
Irakasleen zoriontasunak			151	19, 32
Irakatsiezadazu	José Real Navarro		152	21
Irakatsi guri, Jauna	Raoul Follereau		153	24
Iratzar gaitzazu, Jauna	Florentino Ulibarri		154	2
Ireki, Jauna, nire ezpainok	Bahâ'i fedea		155	23
Irten zen Abraham			156	21
Isildu, Jauna, nire otoitza			157	29
Isiltasunaren egoitza	Metta Sutta		158	9
Isiltzearekin bakarrik...	José Real Navarro		160	29
Itxaropen zantzuak	Germán Pravia		161	10
Izan zaitetz, Jauna	Michel Hubaut		162	15, 30
Jainko indargabea sinesten dut	Eduardo de la Serna		163	15
Jainkoa gure lurrean bizi da	Antonio López Baeza		164	4, 7
Jainkoaren bila	Teilhard de Chardin		165	16
Jainkoaren zauri guztiak	Maurice Zundel		166	17, 18
Jarrai niri	Cristina de Arteaga		167	10
Jaso nazazu, maite, azken egunean	Xabier Lete		168	8
Jauna dugu lagun	José Serna		169	4
Jauna dut artzain	Florentino Ulibarri		171	4
Jesukristoren enbaxadore			173	31
Jesusengan sinetsi	Hans Küng		174	15
Kalitateaz blai	Dianne Loomans		175	19
Konfiantza	José Serna		176	23
Kristo behartsua	Florentino Ulibarri		177	7, 28
Kristo, gure biziaren oinarri	San Paulo		178	30
Laga gauzen irudiak	Tauler		179	29
Lagundu iezadazu egia esaten	Mahatma Gandhi		180	9
Lagunduko dizut	Etty Hillesum		181	7, 24
Maisuak horrela asmatu zintuen	Patxi Ezkiaga		182	19
Maisuaren altxorra (Mt 13, 52)	Iokin Otaegi		183	22

Maitasun kantua	Maurice Zundel		185	<i>17, 18</i>
Maitasun kontuak	Florentino Ulibarri		186	<i>26</i>
Marta, Marta (Lk 10, 41)	Iokin Otaegi		188	<i>22</i>
Mikeasen kantika	Patxi Ezkiaga		190	<i>1</i>
Mintza zakizkit Jainkoaz		Iokin Otaegi	191	<i>16</i>
Mirari bakoitzeko	Patxi Ezkiaga		192	<i>23</i>
Misio egitasmoarekin konprometituak	Amós López		193	<i>28</i>
Mundu osoa	Rumi		195	<i>16</i>
Munduari bihotza ireki	Patxi Ezkiaga		196	<i>9</i>
Nahi nuke nahi, Jauna	Raoul Follereau	Iokin Otaegi	197	<i>7</i>
Nazioarteko argitzat ... (Is 49, 6)	Patxi Ezkiaga		198	<i>28</i>
Neu naiz Jauna (Is 44,25)	Patxi Ezkiaga		199	<i>23</i>
Ni ez nauzu zintzoentzat etorria	Soeur Emmanuelle		200	<i>22</i>
Ni zurekin nago	Jose Real Navarro		201	<i>29</i>
Nigandik gertu zaude	Juanjo Elezkano		203	<i>29</i>
Nire aurkikuntza	Selah		204	<i>16</i>
Nire begiak egon bitez zabalik			206	<i>16</i>
Nire bihotza ez dadila ohitu	Mari Patxi Ayerra		208	<i>2,7</i>
Nire burua biluz	Iokin Otaegi		210	<i>3, 21</i>
Noizbait	Patxi Ezkiaga		211	<i>8</i>
Norbait datorke arratsean	Pierre Gamarra		212	<i>1,8</i>
Oi, argi ikustezin	Thomas Stearns Elliot		213	<i>29</i>
Oi, ene bihotz	Kabir		214	<i>16</i>
Oi, gure Jainko	José Serna		215	<i>23</i>
Omenaldi	José Serna		217	<i>32</i>
Oraindik zure bidean dihardugu	Germán Pravia		218	<i>21</i>
Osa itzazu planoak	Iokin Otaegi		220	<i>8, 21</i>
Oso-osorik ematen natzaizu	Lancelot Andrews		221	<i>21</i>
Ospa ezazu zeure bizitza	Florentino Ulibarri		222	<i>5, 9</i>
Otoitz egitea zer den	Arkabas		224	<i>29</i>
Pazkoa iragartzeko otoitza	Florentino Ulibarri-Taizé		225	<i>30</i>
Presentzia bizia			226	<i>29</i>
Prest dagoen Anaidia			228	<i>31</i>
Profeten aldeko otoitza			229	<i>7, 24</i>
Segimenduaren salmoa			230	<i>21</i>
Senide izatea	Raoul Follereau		231	<i>26</i>
Senitarteko maitasunean			232	<i>25, 26</i>
Sinesten dut emakumearen berriona			233	<i>12, 15</i>
Sinesten dut Jainkoa	Cardenal Bevilacqua		235	<i>9,15</i>
Tentsioan	Iokin Otaegi		236	<i>3, 10</i>
Txangorik luzeena	Dag Hammarskjöld		237	<i>16</i>
Udaberria Galilean			239	<i>22</i>
Urtea bukatzeko otoitza			240	<i>8</i>
Zalantzaren itsasoan	Bitoriano Gandiaga		242	<i>15, 23</i>
Zatoz gure ondotik	Juanjo Elezkano		243	<i>16, 28</i>
Zatoz gurekin, Bidaide	Ángel Esteban		244	<i>23</i>
Zatoz, Jesus Jauna			245	<i>1</i>
Zeinen ederra den	Beatriz Rivera		246	<i>9</i>

Zeinen gozagarria (83. salmoa)			248	13
Zer nahi duzu nik egitea?	José Real Navarro		249	21
Zerbitzu atsegina	Gabriela Mistral		250	24
Zintzotasuna	José Serna		251	9
Zoko ilunean pilaturiko... (Is 45, 3.7)	Patxi Ezkiaga		252	16
Zorioneko zu, irakasle			253	19, 32
Zorionekoa behartsua zaintzen duena			254	7, 32
Zoriontsu izan nahi dut		Iokin Otaegi	256	21, 32
Zoritxarrekoa, lurrontzi hutsa (Is 45, 9)	Patxi Ezkiaga		258	16
Zu bakarrik	Javi Montes		259	23
Zuei, adiskide deitzen dizuet	Joaquín Suárez B.		260	10
Zuen jardueran ahalegindu zaitezte	Tersteegen		262	9
Zuganantz	Iokin Otaegi		263	8, 21
Zuk aukeratu nauzu	T. Tendu		264	10
Zuk badakizu maite zaitudala	Florentino Ulibarri		266	26
Zure aurrean, Jauna	Juanjo Elezkano		267	16
Zure bidea hartzea	Juanjo Elezkano		268	7
Zure bila nabil	Didier Rimaud		269	16
Zure harrigarriak kontatzen ditugu	José Serna		270	6
Zure mahaikidegoa...(Lk 19,1-10)	José Olaizola	Iokin Otaegi	272	26
Zure maitasunaz gaindi			274	13
Zuri dagokizu otoitzaldi hau	Joana de Arco		275	29

BIBLIOGRAFIA

ABENDUKO ANDRE MARIARI

Nik ez dakit noraino ulertu zenuen
ezkutuko Jainkoak
samurtasunaren sakramentu izatera deitzen zizula,
geroko belaunaldiek
gure beldurrak biguntzeko magal bat
izan genezan.

Nik ez dakit noraino zenekien
bederatzi hilabeteren buruan
Theotokos izango zinela,
Jainkoaren urruntasunaren eta amatasunaren
Ama,
Belengo estalpeko iluntasun goriaren
itzalean.

Nik ez dakit noraino zenekien
Seme jaioberria
salbamenaren zelatari izango genuela
sortu beharreko mundu baten
mugetan,
Haren begiak kandela izango zirela guretzat
geroak ilusiozko begirada eskatzen digun orduan.

Nik ez dakit noraino zenekien,
Jainkoaren su ilunaren garretan murgilduta,
Haren bizipozaren soinekoz jantzita,
inoiz itxaropenaren tximeleta izateko aukera
eman zenigula
bederatzi hilabete lehenago
Jainkoari zure sabel gaztea eskaini zenion egunean.

Patxi Ezkiaga

ADI GAURKO EGUNARI

Adi gero gaurko egunari,
egon erne, bizia baitoakizu bertan:
bizi guztien bizia.

Egunaren iraupen xumean
datza errealitate osoa,
baita existentziaren egia ere:
haztearen poza,
egitearen bikaintasuna,
indarraren distira.

Atzokoa ez baita amets huts baino,
eta biharkoa ikuskizun soil.

Gaurkoak ordea, ondo biziak,
atzo osoa gozotasunez bete-bete amets bihurtzen du,
eta bihar osoa itxaropenez bete-bete ikuskari.

Horregatik, egon erne gaurko egunari.

Sanskritotik hartua

ADORETSU NAGO, ENE JAINKO

Adoretsu nago, ene Jainko.
Kantatu eta soinua joko dizut. Ea, ene bihotza!
Esnatu, harpa eta kitara; esna dezadan egunsentia.
Herrien artean goretsiko zaitut, Jauna,
nazioen artean kantatuko.

Bai, zure maitasuna zero zabala baino handiagoa,
zure leialtasuna hodeietarainokoa.
Zerua baino handiago zara, ene Jainko!
Zure ospea mundu osoaren gain.

Buztinezko ontzia izan nahi dut,
zuk bete dezazun zure graziaz,
sandalia izan nahi dut zure oin hutsentzat.
Kantimplora, basamortuan abiatzen zarenerako,
zure atsedena argituko duen gauerako kandela.

Jauna, eraman nazazu segurtasunen gotorlekura,
eraman nazazu oztoporik gabeko bidetik,
eraman nazazu zure isiltasunen mendian zehar,
eraman nazazu, Jauna,
eta ez nazazu utz zure eskutik,
gauak argia bainoago,
basamortuak ur iturriak bainoago
behar baitzaitut.

Zatoz nirekin, Jauna;
nire gorputzak arnasa bainoago behar zaitut,
atsedenak loa bainoago.
Zatoz nirekin, Jauna,
bideak eta aldapak egin ditzadan errazago.

Jauna, zurekin krisialdiak izango du irtenbiderik,
eta galderak erantzunik.
Zurekin, nire bihotzak
gainezka egingo du zure asetasunez.
Jauna, zuk eutsiko didazu egun beltzean
zure indarrez.

ANAIK EMAN DIZKIDAZU

Aita,
elkarteko nire Anaien alde
eskatu nahi dizut gaur.

Zuk ongi asko ezagutzen duzu bakoitza,
bere izen eta abizenaz,
bertute eta hutsegiteez,
pozaldi eta nahigabeez,
kemen eta ahuldadeez;
ezaguna zaizu bakoitzaren historia osoa.
Eta diren bezala onartzen dituzu
eta zure espirituaz biziberritzen

Zuk, Jauna,
ez dituzu onak direlako maite,
zure seme izateagatik baizik.

Erakus iezadazu
Jesukristoren antzera, benetan, maitatzen;
ez esan edota egin dutena dela eta,
direnak direlako baizik;
bakoitzarengan eta, bereziki ahulengan
zure maitasun mugagabearen misterioarekin
topo egin dezadan.

Eskerrak Zuri, Aita on hori,
Anaiak eman dizkidazulako.
Guztiak zure opari dira niretzat,
benetako "sakramentu",
zure Semearen presentziaren zeinu eraginkor.

Emadazu Jesusen begirada, horrela ikus ditzadan,
eta emadazu haren bihotza
azkenera arte maita ditzadan,
ni ere hauetako bakoitzarentzat,
Jesusen presentziaren "sakramentu" bizi izan nadin.

ANAITASUN-OTOITZA

Jesus Jauna,
bidal iezaguzu egunero
zure Espiritua.
Suntsi berekoikeriak eta harrokeriak,
eraikitako horma banatzaileak.
Urrun gure etxetik tirabirak
sortzen dituen bekaizkeria.

Inhibizioetatik atera.
Bihozkadak lasaitu
eta lasaitasunez bete.
Sortu gure barnean
elkarri ulertzeko eta barkatzeko
korronte sentikorrek eta beroak.

Blokeoak apurtu,
bata bestearekin irekiak eta leialak,
egiazkoak eta egizaleak izan gaitezen.
Haz bedi konfiantza
zuhaitz hostotsua bezala.

Horrela, munduaren aurrean,
zu, Jauna, gure artean bizirik zaudenaren
argudio sentikorra
eta profetikoa izango gara.

Ignacio Larrañaga

ANAI ARREBAK SOIL SOILIK
(Elkartearen alde)

Jauna,
nire elkartearen alde eskatzen dizut,
zure asmoak hobeto ezagutu
eta gure mugak hobeto uler ditzagun.

Guk guztiok hurkoaren beharrak sentitu
eta gureak balira bezala bizi ditzagun.

Hurkoaren nekezia, nahigabea eta etsipena
inoiz arrotz gerta ez dakizkigun.

Gure auziek, zatitu ordeztu,
egiaren eta ongiaren bilaketan
batera gaitzaten.

Geure bizitza eraikitzean
bestearen ahaleginaren oztopo
izan ez gaitezen.

Gure arteko desadostasunak,
elkartetik inor baztertu ordeztu,
batasunaren aberastasuna bilatzera
eraman gaitzan.

Jauna, guztiak zure begiz ikusiz,
zure bihotzak maite duen bezala
elkar maita dezagun.

Gure elkartea,
bestearen baitako itxituren sartu ordeztu,
eskuzabal eta sentikor,
haren nahi bizietara irekia egon dadin.

Eztabaida guztien ondoren,
bilaketa guztiak baino haratago,
bide guztien helmugan,
ez garailerik ez garaiturik gera ez dadin, anai-
arrebak soil-soilik.

*Euskal Herriko
Erljioso Bizitzaren Teologi Institutua*

ANDRE ETA GIZON, BAT HARTUTA

Garai hartan Zuk Zeuk, Jesus,
emakumearen alde egin zenuena hausnartu ondoren,
orduko Legearen eta ohituren aurrean
hartu zenuen jarrera ikusita;
eta zure Ama Maria bitarteko
eragin zenuen mugimendua begiratuta...

Emakumeak Elizan eta gure elkarteetan
parte-hartze esanguratsuagoa izan dezala nahi dugu.

Emakumea gutxietsia dagoen elkarteetan,
esna ezazu Zeuri eta Aitari egiten diogun irainaren
kontzientzia.

“Ama” deitzen diogu Elizari,
baina ama denez dagozkion betebeharrak ahaztuta.

Emakumearengan jarri dituzun balio ugariak
Elizaren onerako erabil ditzagula, Jauna.

Gizonaren eta emakumearen artean
dagoen oinarritzko berdintasuna,
argi distiratsu dadila gure batzarretan.

Libra gaitzazu, Jauna, Lege Zaharreko apaizgoa berritzetik.
Elkartean bere burua besteen gainetik daukanak
bete dezala zerbitzariaren lana.

Zuk Zeuk, Zure Amarekin,
Magdalako Mariarekin, andre samariarrarekin eta
zure miresle ziren beste zenbait emakumerekin
egin zenuen bezala,
lagun gaitzazu,
emakumearen emetasunaz eta amatasunaz aberasten.

Gizakiok, andre eta gizon, elkar hartuta hazi egiten gara.
Berdintasunerantz doan bide hau ere
egin dezagula bat hartuta

Orduan eraikiko dugu Zure Erregetza:
Egiaren eta Biziaren Erregetza,
Justiziaren, Maitasunaren eta Bakearen Erregetza.

ARDURAREN GURE AITA

Gure Aita, gure artean zaudena.
Gure senideen bitartez zaintzen gaituzunean
sentitzen dugu zure presentzia.

Aita errukiorra, gehien sufritzen dutenekin
arduratsu izatera gonbidatzen gaituzu.
Horrela gara sorkari guztiei diezun
maitasun neurrigabearen lekuko.

Arren, egin zaitez presente gure munduan
gizakiarekiko, kreaio guztiarekiko senidetasun,
duintasun eta justizia mezua bizi nahi dutenen bitartez.
Lagun egiguzu lehen urratsa ematen.

Zure izaki guztiekiko nahia betetzea da
gure zeregina bizitzan.
Besteei emanak izatea.
Doan hartu genuena doan ematea.

Zuk zaintzen gaituzun bezala zaintzea:
tristeak laztanduz, eroriak altxatuz, zapalduak sendatuz,
ahulenen aldeko lehian, egiazko ereile,
apaltasunezko bizimodu arduratsuan.

Ogi eta samurtasun gose gara,
justizia eta edertasun, ezaguera eta isiltasun,
kontenplazio eta borroka gose.
Zoriontasun eta ardura, partekatze eta adiskidetasun,
lasaitasun eta itxaropen, malko eta poztasun gose.

Ez gara erabat zoriontsu izango
gizadi osoa zoriontsu den arte,
gizaki guztiek duintasuna lortu arte,
gure ama lurra maitasunez zaindu arte.
Gure bizitza senidetasun testigantza amaigabea izango denean
jasoko dugu barkamena.

Ez iezaguzu utz erosotasunean, hoztasunean,
ahantzuraren errazean logaletzen.
Egizu ez dezagula inoiz itzal gure barruko sua,
zure sutondotik jaiotako txinparta,
zure maitasunezko ardura beste izaki guztiekin
partekatu beharraren premia gorria.

Amen. Hala bedi gure bizitzan.
Zuri eskatzen dizugu,
maitasun samurrez zaintzen gaituzun Jainko on horri.

Miguel Ángel Mesa

ARGIA, BIDEA, BIZIA

“Ni naiz argia” esan ziguna
dugu izar dizdizari,
ekaitz osteko zeruertz isil,
gaueko zero oskarbi.
guztion ekaitz eta barean
huraxe dugu gidari,
haren eskutik bihur dezagun
munduko iluna argi.

“Ni naiz bidea” esan ziguna
dugu urrats eta ildo,
aldatzerako ur freskagarri,
atsedenerako ardo.
guztion laiotz nahiz eguteraan
Jainkoa dugu abaro,
gurekin izan dezagun beti
geroaren aroz aro.

“Ni naiz bizia” esan ziguna
dugu bihotzaren arnas,
asmo berrien bulkada sendo,
asmo zaharrentzat ardatz,
guztion bidegurutze honetan
Jauna dugu gar eta hats,
kristauon izarra indartu
dezagun denon taupadaz.

Patxi Ezkiaga

ARGIAREN BILA

Lipar bakar batez argi nahi nuke izan, lipar bakar batez!

Putz egin eta pitz nazazu, Jauna, gau ilunean
distiratzen duen zuhaitza bainintza.

Ikus itzazu nire berdeak | luze hedatzen dira |, ikusi
nire intzirizko adarrak: luzatu egiten dira gauean,
zure argi freskoaren bila.

Jaits zaitez, Jauna, eta putz egizu nire hostoen artean.
Nire esku txiki honekin ukitu nahi zintuzket,
nire itzal txiki tristeaz. Atsedetik gabeko
haurra bainaiz.

Nire bihotzak zure bihotzarekin talka egiten du.
Ihi ahul batek, ilusioz, eguzki handi bat jo dezake,
lur-itsaso bat.
Hemen nauzu kolpeka!

Eta ez al diozu erantzungo haur bati? Ikusi
nola jasotzen ditudan nire bi besoak Zugana,
zure magaleko argizko belar gainean
atseden hartu nahian.

Jaits zaitez, Jauna, eta utz ezazu zure laztana
nire ilean | lurrezkoa da, mingotsa |
eta utz ezazu argizko lorratza bertan,
zeru gozo eta luzezko uhara.

Carlos Bousoño

ARRASTOAK BIL

*Batzuetan, isiltasuna, isilik egotea da,
baina beti ere, isiltasuna, entzutea da.*

Zarataren absentzia soilean,
Jainkoaren hitzari adi ez banago,
ez dago isiltasunik.
Beharrezkoa du gure bizitzak isiltasuna.

Gugan norberekoikeria eta harrokeria
erakusten duen oro behartu behar da isilik egotera.
Hutsala den oro,
Jainkoaren pisurik gabeko iritzia baino ez den oro.
Zarata baino ez dagian oro.
Jainkoaren hitzari eragozpen baitzaio.

Isilik egotea, Jainkoari entzutea da.
Jainkoa entzutea, hari bai esatea eragotziko digun oro
ezabatzea da isilik egotea.

Jainkoari entzun bere nahia azalduko duen guztietan,
bai otoitzean bai arauko otoitzetik kanpo.

Jainkoaren nahia betetzeko beharrezkoa zaigu isiltasuna.
Eta isiltasunaren luzapen bezala,
oso gutxi ezaguna den beste hau:
barnera biltzea, baitaratzea.
Norberak landu behar du barneratze hori.

Beharrezkoa zaigu Jainkoak nahi duenaren arrastoak,
aztarnak eta deiak biltzea.
Nekazariak bere uzta aletegian biltzen duen bezala.
Jakintsuak esperientzia baten fruitua biltzen duen bezala.

Geutaz mintzatzen garenean, edo geugatik,
isiltasunetik kanpora barreiatzen ari gara.

Jainkoaren hitzak gure barnean sortzen dituen barru-
barruko oihartzunak
geure ahoz errepikatzen ari garenean,
ez da isiltasuna hausten.

Madeleine Delbrêl

ATAKA IREKIKO DIDANEAN

Eta mugazainak,
zugandik bereizten nauen ataka
irekiko didanean, Sorkunde,
Eguzkiz jantziriko neu
bilakatuko naiz;
neu eginiko Eguzki,
eguzkituriko neu.

Ez baituzu ezer berririk sortuko.
Mugazainak ataka irekiko didan bezala,
nire soroan ereinak dauden hazi on guztiek
lur elkor hau zulatuko dute.
Haziko dira eta berdetuko.

Ez baituzu ezer berririk sortuko:
historiak bere eginahal hutsaletan
lardaskatu dituen soroak,
hemen sastraka baino ez diren zuhaixkak,
hegatziz beteriko zuhaitz handi
bilakatuko zaizkit.

Iokin Otaegi

ATSEDENIK GABE ZURE BILA

Jesus Jauna,
gosez ogiaren bila dabilena bezala,
bere itsasoaren bila dabilen ibaia bezala
nabil ni ere zure bila.
Non aurkituko zaitut?
Bihotzera hitz egin zenidan
eta bihotzean entzun nahi dizut ostera.
Zure pausoen atzetik nabil
baina ez naiteke zugana irits.

Misterio hondorik gabea.
Aitaren seme.
Egunsentiko brisara.
Gizakion betetasun.
Presentzia bizi.
Ezkituko aurpegi.
Nolakoa zara?
Zelan egin dezaket zugana?
Ez dago ez argirik ez eguerdirik zu gabe.
Iheskor, xalo.

Bihotz irekian bakarrik
ikus eta uki zaitzaket.
Zugana noa: hori bakarrik dakit;
hori dut aski.
Zu zara gida,
ni, berriz, gidatua.
Zure atzetik ari naizela dakit
eta hori dut aski.

José Real Navarro

BADAGO MINIK JAINKOAGAN

*Badago minik Jainkoagan,
maitasunik ere badagoen bezala.
Ama semearen egoera guztiek ukitzen duten bezala,
semearekin erabat bat egina baitago.*

Haserre bizian jartzen naiz entzuten dudanean:
“Ez dago eskubiderik!
Nola uzten du Jainkoak horrelako txarkeriarik!”
Ez, ene Jainko, zuk ez duzu inoiz ere, inolaz ere,
gaiztakeriarik eta txarkeriarik uzten.

Min duzu, gizonarekin min.
Hil egiten zara, gizonarekin, hil.
Lehen zauritua zeu zara.
Munduan gaiztakeria eta txarkeria baldin badago,
lehen biktima zeu zarelako da.

Gugatik sufritzen duzu, gugan sufritzen duzu.
Guk baino lehen sufritzen duzu.
Guk baino gehiago sufritzen duzu.
Nire barnerik barnenean zaitut, ama maitekor eta laztan.

Hain zaude nirekin bat,
ezen guztizko enpatian bizi zara nirekin.
Zeu zara niretzat,
pertsona liluragarri baten erakargarritasuna.
Grina, zirrara, maitasuna, entzuteko iaiotasuna...
Zu zara, apalekin xaloa, jakitunekin jakintsua,
bila dabilzanekin bilatzailea.
Eta martiriaren irrika.

Zu, Jesus, gizon.
Jainkoaz dakigun oro gizonagandik dakigu.
Pertsona baitzaitugu, intimitatea, bihotza.
Pertsonarentzat pertsona, bihotzarentzat bihotz.
Ama zaitugu, Maria bainoago ama.
Bazoaz, ahul eta irmo Jerusalema.
Begiak han, gurutzean.
Oi Jainko ahaltsua! Oi Jainko ezereza!
Porrotaren atzetik jakinduria ororen zoramena zara zu.
Nire bihotza damaizut. Torizu! Zure pareko egin gaituzu.
Zuretzat, gu, Jainko gaituzu.

Maurice Zundel

BADATOR

Gure Jainko haragi egina etengabe dator.
Egunez dator; gauez ere bai, badator.

Atean geunden haren zain, leihotik sartu zaigu.
Pozetan geunden haren zain, gurutzearekin heldu zaigu.

Badator oparotasunean;
Gabezian berriz, areago.

Haren irrikan gaudenean, badator.
Baina espero ez genuenean, hara hor.

Badator Hitzaren bidez; Eukaristian ere bai, badator.
Misterio guztien sinfonian ere bai, badator.

Eliasen haize goxo hartan...
Isiltasunean, Hura da murmurio. Badator.

Kaleko jendetzaren zalapartan...
Musika kontzertu erraldoian, badator.

Nire begiak ezagutzeko elbarri badaude ere...
Egunaren luzeran topo egin dudan aurpegi horietan, badator.

Mariarekin dator.
Eta aingeru eta santuekin ere bai, badator.

Ebanjelioak aldarrikatzen duen erreinua eraikitzeke, badator.

Saint Cireko Jean

BAKE ZUZENA

Jauna,
ildoak ireki dizkiguzu Zuk, lurra banatzeko
eta nazioak deitzeko.
Zeure lurra eman diguzu
eta horren zaindari jarri gaituzu.

Jauna,
mugak ezarri ditugu guk,
eta horiek defenditzeko
lubakiak, arantzazko hesiak, kainoiak, bonba atomikoak
ditugu ipini.

Jauna,
gerra□kultura landu dugu,
biolentzia zuritzeko hitzak ditugu asmatu, eta
“gerra zuzena”, “gerra zibila”,
“gerra prebentiboa” deitu dugu,
baina zerbait ez bada zibilizazio□adierazle, hauxe
da: gerra!

Jauna,
lagun iezaguzu eraikitzen,
ez, hain zuzen, bakeren bat,
bake zuzena baino.

M. Gravina A. Fitipelli

BAKEA ESKATZEN DIZUGU

Bakea eskatzen dizugu, ura, sua, lurra eta eguratsa bezain beharrezkoa baitugu.

Amorru eta hiratik, bekaizkeria eta odoletik askatzen gaituen barkamen-bakea.

Etxe duinagoa, egonkorragoa nahi duten preso eta erbesteratuen amnistia-bakea.

Etxean eta lantegian, plazan eta kalean zabalik dagoen bizitzaren askatasun-bakea.

Egunero oratutako ogiaren bakea, mahaian pozik eta gosez zatitzen dena.

Zure erreinu desiratuaren lore-bakea, arrastiriro ederragoa eta hurbilagoa egiten duguna.

Bakea eskatzen dizugu,
bakea eskatzen diogu geure buruari,
gu senideak baikara, eta Zu, gure Aita.

Víctor Manuel Arbeloa

BAKEAREN ALDEKO OTOITZA

Gure Aita, zeruetan zarena,
isil bitez armak, egizu indar
gera dezagun gerraren eromena.

Gure Aita, gure bidaikide egina,
suntsi itzazu bonbak eta misilak,
jantz gaitzazu irribarre eta laztanez,
Jesusek egin zuen bezala aintzina.

Gure Aita, etorkizunaren Artzain,
eraman gaitzazu bakearen larre gurietara,
gerrako garaipenak belar mikatzak baitira.

Gure Aita, sufritzen dutenen ukendu,
egizu zabaltasunez luza ditzagula
gure eskuak, edonorentzat, edonon,
izan daitezen zubi eder baten zimendu.

Patxi Ezkiaga

BAKEAREN JAIA

Bakearen jaira
bere gogoz behar luke
etorri usoak.

Ez ekarri preso harturik
bakearen jaira usorik.
Usoak ezin dezake
konprenitu bere
bizkarretik sortutako
inondiko bakea
alegoriarik.

Betoz usoak jaira
inork behartu gabe,
usoak betoz berez
bakearen kaira.
Betor jendea jaira
akordio□zelaira,
anai□arreba arteko
bakearen mahaira.
(...)

Bakearen jaira
bere gogoz behar luke
etorri jendeak.

Ez ekarri preso harturik
bakearen jaira jenderik.
Jendeak ezin dezake
toleratu bere
buruari egindako
inondiko bake□
inposaketarik.

Betoz uso ta jende
akordio□zelaira;
anai□arreba arteko
bakearen blaira.
Betoz usoak kaira,
betor jendea mahaira,
adiskidezko jaira,
bakearen baira.

Bitoriano Gandiaga

BARKAMENAREN JAINKOA

Jauna, barkamenaren Jainkoa,
bekatu egin dugu.
Ororen gainetik
gure harrokeria lehenetsi dugu.

Noiz arte izango zara eramanpeneko?
Noiz arte luzatuko diguzu eskua
eta sartuko zara gure etxe
erabat zaharkituan?

Salbazioa maitasunean badago,
nork aurkituko zaitu
Burtsaren parketean
ala espekulatzailen artean?

Ezkutuan negar egiten dugu
ezkutatzeke gure bekatua.
Diruak, errentabilizatzen dakienak,
bere aginduetara gauzka.

Kanpaina politiko eta komertzialei
emanak bizi gara,
eta are gehiago urruntzen zaigu bihotzetik
justiziarako irrika.

Jauna, zatoz gure ondora,
eta kontzientziaren putzuak
gainezka egingo du barkamenaz
eta tolerantziaz.

José Serna

BARNE BILKURA

Norbait barne bilkurako ariketan ari denean,
giza niak ez dauka ezer beretzat.

Niari atsegin litzaioke zerbait edukitzea,
zerbait jakitea,
zerbait nahi izatea.
Atsegin litzaioke.

“Zerbait” hirukoitz hau hilko ez den arte,
gogorra gertatuko zaio pertsonari
barneranzko bidea.
Ez da egun bateko lana,
ez eta ere laster batekoa.
Alderantziz,
eginahal luze batez barneratu beharra dago.
Eta, ardura handia erabiliz,
ohikoa bihurtzera ailegatu.

Iraupena behar da.
Orduan bai, helduko da
erraza eta gozagarria gertatuko zaizun eguna.

Tauler

BEDEINKA NAZAZU

Oi Jainko onbera,
bedeinka nazazu
eta bedeinka ezazu
gaur nire eskuek ukitu duten guztia.

Bedeinka ezazu nire lana,
besteentzat ere
bedeinkapen izan dadin
eta zuzentasun-eredu.

Bedeinka itzazu nire gogoetak
besteen ona ikus dezadan.

Bedeinka itzazu nire hitzak
besteentzat bizigarri izan daitezen.

Bedeinka ezazu nire bizitza,
etengabe niretzat amestu zenuen
irudi bizia izan dadin.

Bedeinka nazazu,
naizena naizenaren heinean,
nirekin topo egiten duten guztientzat
bedeinkapen iturri egin nadin.

Guztiak zuk bedeinkatuak direla
sinetsi nahi dut.
Orduan begi ezberdinez ikusiko ditut,
eta zure bedeinkapena antzemango dut
nigana datorren pertsona bakoitzarengan.

Bedeinka itzazu nire bihotz barruan
gordetzen ditudan pertsona guztiak,
oi zu, Jainko errukior eta onbera,
Aita, Semea eta Espiritu Santua. Amen.

Anselm Grün

BEDEINKAPEN IRLANDARRA

Bideak ireki daitezela, zurekin bat egiteko;
eguzkiak epel egin dezala distira zure aurpegietan;
zirimiri gozoak egin dezala zure soroen gainera;
haizeak beti jo dezala zure bizkarrean.

Zure bihotzean gorde dezazula esker onez
bizitzaren gauza onen oroitzapena.

Jainkoaren dohain guztiak haz daitezela zugar
eta maitatzen dituzunen bihotzetara
poza eramaten lagundu diezazutela.

Zure begiek isla dezatela adiskidetasunaren distira,
hodei artean irtetzen den eta
itsas barea berotzen den eguzkiaren antzera.

Jainkoaren indarrak tinko euts zaitzala,
Jainkoaren begiek ikus zaitzatela,
Jainkoaren belarriek entzun diezazutela,
Jainkoaren hitzak hitz egin diezazula,
Jainkoaren eskuak babestu zaitzala.

Eta Jainkoak beti bere esku ahurrean izan gaitzala,
berriro topo egingo dugun egunera arte.

BEGIRA HORIEN MAITASUNARI

Begira, Jauna,
erabakien inozentzia eta xalotasunean
zure graziazko aurpegiaren aurrean
dauden bi gazte horiei.
Elkar maite dute
eta zuri eskaintzen dizute beren maitasuna.

Lagun iezaiezu, Jauna,
gero eta gehiago elkar maitatzen.
Indarberritu itxaropena,
hazi beraiengan eskuzabaltasuna.
Sendo itzazu, Jauna, gazte horien zin-hitzak
eta eman arnasa beren askatasunari.

Elkar aukeratu dute;
ondo dakite, ordea, ez direla munduko kementsuenak.
Zeu beste inor ez da horien gogoari eusteko gai.
Zabalagotu ezazu beren baietza.

Utz itzazu, Jauna;
doazela beren ametsaren atzetik lehia bizian;
hasiera guztiek erakutsi ohi duten kemena dario-eta
horien bizitzari.
Egin dezala gora eta gora, gainezka,
beraiengan beti gozamenak, atseginak, pozak.
Beren grina bizia eskaintzen dizute,
erakuts iezaiezu iraupena.

Ez dadila inoiz ihartu beraiengan samurtasuna.
Alderantziz,
bihur ezazu goizetik betetasunerantz doan eguna bezala,
egiazko eta sendo, bikain eta eder;
eta arratsaren etorrera bezala, bakezko eta ezti.

Doazela etengabe handiagoa egiten
beren intimitatea eta adiskidetasuna;
eta ehotzen eta josten
buruz-buruko isilpekoz eta misterioz.
Lur osoari eskaintzeko adinakoa dadila
elkarren arteko maitasunari dioten maitasuna.

Emaiezu, edonorekin eta edonon,
elkarbanatzeko adorea,
anaitasun keinu zabal batez
beti prest dagoen mahaia bezala daitezen.

France Quéré

BEHIN BETIKO BAT EGINA

Sinesten dut,
itxaropendun naiz,
ispilu hautsi honetako apurrak
bilduko dizkidazula,
oso bakarra eginen didazula,
non,
osorik osatuta
osorik ikusiko naizen.

Mosaikoak Pantokrator amodiozkoa lez,
non,
Osoarekin bakeak lortuko ditudan,
behin betiko bat eginda.

Egiaren osoak
norako apur zati bakoitzaren mugak ezabatuta.

Iokin Otaegi

BELARRIAK IREKI ZENIZKIDAN

Hemen naukazu, Jauna,
Zure izenean joan nahi dut zuk bidaltzen nauzunera.
Zure eskuetan nago,
buztingilearen eskuetan buztina bezala.

Egin nazazu fedearen lekuko,
ilunbetan dabilzanei argi egiteko;
egin nazazu itxaropenaren lekuko,
esperantza galdu dutenei ilusioa itzultzeko;
egin nazazu maitasunaren lekuko,
mundua solidaritatez betetzeko.

Hemen naukazu, Jauna, bidal nazazu!
Jar ezazu zure Hitza nire ezpainetan,
jar ezazu zure prestutasuna nire oinetan,
zure eginbeharra nire eskuetan.

Jar ezazu zure Espiritua nire espirituan,
jar ezazu zure maitasuna nire bihotzean,
jar ezazu zure indarra nire ahuldadean,
zure borondatea nire zalantzan.

Hemen naukazu, Jauna, bidal nazazu
gizartean begirunea ezar dezadan,
justizia gizon-emakumeen artean,
bakea herrien artean,
alaitasuna bizitzan,
ilusioa elkartean,
poza eta itxaropena misioan.

BERAK AUKERATU GINTUEN

Jainkoak aukeratu gintuen
elkarri Jainkoaren maitasunaren aurpegia
erakuts diezaiozun.

Jainkoaren hiztegia gara,
hitz biziak
Jainkoaren ontasunari gure ontasunaz
ahotsa emateko,
Jainkoaren errukiari, samurtasunari,
arretari eta leialtasunari
ahotsa emateko
gure erruki, samurtasun, arreta eta leialtasunaz.

Leo Rock

BERTAN ZAUDE

Lagako nituzke kantu eta salmo eta arrosario.
Nori ematen diot aintza
ate guztiak itxita, tenpluko bazter ilun honetan?
Irekitzen ditut begiak eta ohartzen naiz,
Zu, ene Jainko, ez zaudela nire aurrean.

Nekazaria lur elkorra lantzen ari den hartantxe zaude Zu.
Bideko peoia harriak txikitzen ari den hartantxe zaude Zu.
Dela eguzkipean dela euripean, horiekin zaude Zu.
Hautsez estalita dago zure jantzia.
Ken dezadan neuk ere soingaineko sakratua
eta jaits nadin Zu bezala hautsez estalitako lurrera.

Askapena? Non ote dago askapena?
Pozarren zeureganatu dituzu sorkuntzarekiko lokarriak.
Betirako zaude gurekin lotuta.

Lore eta intsentsu lagata, banoa meditazio eta gogartetik.
Zer axola ote zaio
nire jantzia zikindu eta zirtzildu egiten bada?

Lan neketsu eta latzean aurkitzen zaitut nik.
Eta nire kopetako izerdian.
Orduan bai, zure ondoan nagoke.

Rabindranah Tagore

BIHOTZ ERRUKITSUA IZANGO BANU...

Jauna, bihotz errukitsua izango banu...
nire etxetik irtengo nintzateke
behartsuekin topo egiteko;
nire apatiatik aterako nintzateke
sufritzen dutenei laguntzeko;
nire ezjakinetik aterako nintzateke
baztertuak ezagutzeko;
nire kapritxoetatik aterako nintzateke
gose direnei laguntzeko;
nire jarrera kritikotik aterako nintzateke
huts egiten dutenei ulertzeko;
nire harrokeriatik aterako nintzateke
euren buruaren jabe ez direnekin egoteko;
nire presatik aterako nintzateke
abandonatuei nire denbora emateko;
nire segurtasunen mundutik aterako nintzateke
erasotuei laguntzeko;
nire nagikeriatik aterako nintzateke
oihu egiteaz aspertuta daudenei laguntzeko;
nire burgesiatik aterako nintzateke
behartsuekin partekatzen.

Jauna, bihotz errukitsua izango banu...
nire esperientziaz baliatuko nintzateke
oker daudenei laguntzeko;
nire samurtasunaz, etorkinak eta haurrak onartzeko;
nire osasunaz, gaixoei eta zaharrei laguntzeko;
nire zientziaz, galduta dabiltzanak norabidetzeko;
nire zuzentasunaz, xahutzaileen bila jarduteko;
nire barne-bakeaz, etsaiak adiskidetzeko;
nire maitasunaz, desengainatuak onartzeko;
nire otoitzaz, senideago izateko;
nire bizitzaz, beharrian dagoenari emateko.

Jauna, emadazu bihotz errukitsua!

Florentino Ulibarri

BIZI DUGUN EGURATSEAN

Bizi dugun eguratsa barne barnekoa dugu.
Geugan dago eguratsa,
eta geu, eguratsean.

Jainkoa guztiz barnekoagoa zaigu,
Beragan bizi baikara, Beragan higi;
Beragan jan, beragan edan,
Beragan egiten dugu lan.
Beragan burua erabili.

Eta bekatu egiten duenak
| ez aztoratu horrela hitz egiten dizudalako | Jainkoagan
egiten du bekatu...

Jainkoa barnekoago zaigu
barne gunearen muina bera baino.
Han baitago gure zain.
Han nahi baitu gurekin harremanetan jarri.
Eta zoriona eman.

Tersteegen

BIZITZA BERRIRAKO ORDUA DA

Gauean beldurrik gabe sartzeko ordua da,
hiriak eta herriak zeharkatu,
zaharra erre eta ardo berria erosteko ordua,
munduaren bihotzean gelditu,
eta ilunpe eta ostotsaren erdian
sinesteko ordua.

Bizitza berrirako ordua da!

Loalditik jaikitzeke ordua da,
bizitzaren balkoira atera
eta bazterrak eta ostertzak miatzeko ordua,
eta bertigoa ematen badigu ere, infinitura begiratu
eta igartzeko, abesteko, deiadar egiteko ordua.

Betiko eskemak txikitzeke ordua da,
isiltasunaren hitzak entzun,
eta hobeto ikusteko, begiak itxita,
desertuetan zehar,
Haren presentzia isila ahogozatzeko ordua.

Egun-alban esnatzeko ordua da,
gure artean Haren presentzia aurkitu,
eta bide berriak hasteko ordua,
konfiantza osoz,
beste ertzera pasatzeko ordua.

Bizitza aitortzeko ordua da,
hitzetan urri, biziguran aberats,
Haren aldeko apustua eginik guztia arriskatzeko ordua,
mahaian eserita, bihotza berotu,
eta etsipen guztien gainetik itzaropena ikasteko ordua.

Pazkoa da,
Jainkoak gure mundura egin duen bidaia,
zauriak garbituz,
itzaropena ereinez, bizitza jasoz,
haziz betez gure zorro hutsak.

Florentino Ulibarri

BIZITZAREN KREDOA

Jainkoa sinesten dugu.
Bera da bizitzaren Aita, historian diharduena,
Berak sortu gaitu betetasunerako,
Berak garmatza bizitza defendatzera,
bidegabekeriak,
goseak,
armamentismoak,
zapalkuntzak,
kanpo zorrak
eta etengabeko eskubideen urratzeak
askatu dituzten heriotzaren indarren kontra.
Jesus sinesten dugu.
Bera da Jainkoaren Semea eta gure anaia.
Bizitzaren alde jokatu zuen beti,
bete-betean bizi izan zuen bere bizitza,
ahulenen bizitza defendatu zuen bere bizitzaz;
berri ona hots egin zien behartsuei,
gatibuak askatu zituen,
itsuen argia izan zen,
bakea eta justizia eskaini zien
etorkinei eta nekazariei,
langileei eta arrebaleko biztanleei.
Haren heriotza eta piztuera sinesten ditugu,
bizitzaren behin-betiko garaipenaren
ikur, iturri eta lehen fruitu baitira.

Espiritu Santua sinesten dugu,
betidanik eta betiko bizitzaren jaun eta emale dena.
Berak defendatzen ditu gure auzi galduak,
suspertzen ditu gure erraiak,
berritzen du historia guztia;
berak animatzen eta zuzentzen du askapen prozesua,
lurreko pobre eta galtzaileena,
fededunena, eta fededun ez direnena.

Eliza sinesten dugu,
senideen elkartea den Eliza,
apostoluekin hasi eta lurreko txiroen bitartez
erakusten duena bere bizitasuna.
Pribilegiorik gabeko Eliza zerbitzaria sinesten dugu,
ebanjelizatzaile unibertsala, berri onaren lekuko dena,
herri baztertu eta marjinauaren laguna.

Ebanjelioa sinesten dugu, eta haren berri ona;
santuen elkartasuna, hilen piztuera,
abian jarri den Erreinua,
eta Jainkoak bere altzoan ematen digun bizitza berria.
Amen.

Florentino Ulibarri

DAGIGUN GURE ETXEAZ SUTONDO

Aurki-gune da gure etxea eta heldu-leku,
eta erakartzen duen bihotz.
Ezerezean edo guztian
barreiatzea eragozten digu etxeak.
Munduaren aurrean aterpe
eta munduarekin biltzeko ararteko zaigu etxea;
gure erroen lur eta inora joateko abiapuntu.
Maitasun barruti
eta guziarekiko maitasun eskola da gure etxea.

Dagigun gure etxeaz sutondo!

Egin dezagun gure etxea giza neurriko,
bai, giza maitasunaren neurriko.
Maitasunak eusten baitio etxeari,
eta etxeak maitasunari.
Nortasun agiriz gauzatutako esparrua da gure etxea;
gure erara, gure antzera itxuratutakoa da gure etxea.
Gure ezaugarria darie etxeko gauza guztiei.
Guk geuk sortutakoa baita gure etxea.
Izan ere, gizakiak moldatzen baitu etxea,
eta etxeak gizakia.

Atzeko ataria ere badu etxe orok:
aro gaiztoan lehorpe
edo barrunbe itolarri gerta liteke,
maitasun emankorraren
edo berekoikeriaren esparru
gerta liteke atzeko ataria.
Abegi oneko itxitura
edo burdin hariz mugatutako barruti;
emakumearen barrunbe aske
edo bere uztarpetzaren ikur.
Espetxe bilakatzen baita sarri abaroa.

Abegi oneko nahi dut nik etxea;
atoskor, txeratsu eta elkargune.
Ez lau-lau irekia, ezta harri gotorrez itxia ere.
“Datorrena Jainkoak bekar,
badoanak Jainkoa beza lagun”.
Elizaren antzekoa nahi dut nik nire etxea;
barruan daudenekin batzar egiten duena,
kanpoan daudentzat dei.

Gudako harrapakinak gordetzeko oskol
gerta liteke etxea;
gizakia hurkoarentzat otso
bilakatzen den lapur-zulo gerta liteke. Oihartzun-
kutxa izan ordez marfilezko dorre,
bakartua edo harresiz inguratutako eremu gerta liteke.
Gizakoi den ezer arrotz ez zaion etxea nahi dut nik;
barrunbe soil gertatuko ez den etxea,
maitasun eskola den etxea.

Egin dezagun gure etxeaz sutondo.
Horretarako gure etxeak behar du:
zimentarri sakon, leialtasuna;
eguneroko kuttun ariketetarako, gela;
elkarri opariak eskaintzeko jantokia;
ongi etorriak emateko
eta agurrak egiteko ezkaratza:
bake egunetarako egutera;
ekaitz egunetarako hegalpea;
berbaldi amultsuetarako sarbide zabala;
elkarri lotsa eta begiramena erakusteko gunea.
Maitasun oroimenen ganbara;
barkatze eta adiskidetzearen igarobidea;
egonarriaren, eramapenaren
eta pazientziaren upeltegia.

Jauretze da gure etxea;
Jainkoaren eta gizakien arteko
bizikidetzaren ezaugarri bizi:
zerukoaz bat egiten baitu
eta etortzekoa dena aurreratzen.
Egunerokoaren itxura aldatu egiten du
eta ikusten ez dena erakutsi.
Espazioa eta denbora
zabaldtu eta luzatu egiten ditu etxeak.
Eta goiko dohainak azalduz
betikotasunaren istant bat agertu.

Xaboi punpuila gerta liteke etxea,
edo zapataren orkoia, edo leka.
Baina baita ere su-argia, ezta,
lihoa, ogia, egur ziratua.
Bizi-burbuila da etxea.
Hitz zaharrez osatutako musika klasikoa
dario sutondoari.

“Ni naiz atea” esan zuen Jesusek.
Atea eta etxea bera ere bada Jesus.
Kristo den atetik sartzan baikara Kristoren etxera.
“Kristogan atsedean duena” heldu da zerura.
Etxea baita zerua, Jainkoa gizakiarekin bizi den etxea.

Izadia ere badut nire etxe.
Inguratzen nauen Izaki da Izadia, magala dut Izadia.
Ez nau enbatak izutzen:
“beldurra” baino gehiago “lilura” zait Izadia.
Eztigarri zait euriaren murmurra, urruma zait ekaitza.
Buru argiz zaindu beharreko etxe zaigu guztioi mundua.
Ondasunak zuzen banatu beharreko etxe zaigu mundua,
Guztion sutondo eta jauretze zaigu mundua.

José María Cabodevilla

DANTZATZEA ATSEGIN

Dantzatzea atsegin ez duten santu gazteak
badaude ere, askoz gehiago dira
dantzatu beharra sentitu duten santuak,
bizitzeagatik pozik:
Santa Teresa bere kaskainetekin,
San Joan Gurutzekoa, Jesus Haurra besoetan harturik,
San Frantzisko, aita santuaren aurrean.

Zurekin pozik egongo bagina, Jauna,
ezingo genioke uko egin
mundua hartuta daukan dantzatu behar horri,
eta asmatuko genuke zer dantza atsegin duzun
zure probidentziaren urratsekin bat eginik.

Izan ere, honezkero nazka-nazka eginda egongo zara
zu kapitain aurpegiz zerbitzatu nahi zaituztenekin,
irakasle aurpegiz zu ezagutzeaz hitz egiten dutenekin,
zuregana jokoaren arauak jarraituz iritsi eta
zahartzaroan bezala maitatu behar zaitugula diotenekin.

Zerbait ezberdina egiteko irrikatan zeunden egun batez
San Frantzisko asmatu eta zure malabarista egin zenuen.
Eta guri ere asmatzaile izateko agindua eman diguzu
bizitza zurekin dantzatzea
atsegin duen jende alaia izan gaitezen.

Biziaraz iezaguzu bizitza,
ez xake jokoaren kalkuluen arabera,
ez partidu zail batean bezala,
ez buruhauste handia
ematen digun teorema batean bezala,
baizik zurekin berriro topo eginaraziko digun
jai batean bezala,
dantza batean bezala,
zure graziaren besoetan,
maitasunaren musika unibertsalaren erritmoan.

Jauna, zatoz gu gonbidatzera!

Madeleine Delbr el

DEIA

Ez iezadazu esan isilik egoteko!
Ezin dizut obeditu.
Zure barkamenak su baten antzera erre nau
eta zuk debekatzen badidazu ere,
sinesten ez badidate ere,
aldarrikatu beharra daukat,
edonori, edonoiz eta edonon.
Eta, horregatik, lur honetatik botatzen banaute,
Zutaz hitz eginez alde egingo dut.

Guztiona zarela esango dut,
berdina beti,
gure maitasunak ez duela baldintzatzen zurea,
berdin maite gaituzula
guk maitatzen ez badugu ere:
maitasunik ezaren pobrezia baita
Zure aurrean daukagun titulu bakarra.

Ate joka dabilen ahotsa zarela esango dut,
izen zehatza duzula, nahastezina;
ezer eskatu gabe
eman egiten duzula eta itxaron
behar bezain luze;
ez dituzula gizakion erritmoak behartzen,
ez zarela aspergarria,
eta ez zarela nekatzen,
zure maitasuna berria dela egunero,
zure bila ez gabiltzanean
min egiten dizugula.

Gauza askoz gehiago esango ditut:
aski dela zuri edonon begiratzea,
guztiak zureak baitira,
beste zerbait izateko:
pertsona izateko,
besterik gabe.
Jauna, txinpartaz txinparta,
ez nadila su hori pizten
aspertu.

Ignacio Iglesias

EDER DA DENA

*Eder da dena nire aurrean,
eder da dena nire atzean,
eder da dena nire oin azpian,
eder da dena nire gainean,
eder da dena nire inguruan.*

Eder da dena... Dena hartzen du ederrak:
Zeruak eta Ahalmen gorena,
ederrak baitira horren bideak.

Eder da dena... Dena hartzen du ederrak:
Mendiak eta Ahalmen gorena,
ederrak baitira horren bideak.

Eder da dena... Dena hartzen du ederrak:
Ura eta Ahalmen gorena,
ederrak baitira horren bideak.

Eder da dena... Dena hartzen du ederrak:
Ilunbea eta Ahalmen gorena,
ederrak baitira horren bideak.

Eder da dena... Dena hartzen du ederrak:
Egunsentia eta Ahalmen gorena,
ederrak baitira horren bideak.

*Eder da dena nire aurrean,
eder da dena nire atzean,
eder da dena nire oin azpian,
eder da dena nire gainean,
eder da dena nire inguruan.*

Nabajoen kanta

EGIAZKO MAISU BAKARRA

Jauna, zu zara egiazko Maisu bakarra.
Egizu, zure graziari esker,
maisua izan nadila nire ikasleentzat,
Zu bezala.

Eredugarri izan nahi dut
maitasunean, konfiantzan, ulerkuntzan.
Nire bizitzaren bitartez,
askatasunean hezi nahi ditut,
eta, nire jakinduriari esker,
besteei emanak izaten irakatsi nahi diet.

Zutaz hitz egin nahi diet,
Zurekin hitz egiten irakatsi.
Jauna, kontura daitezela maitatuak direla,
eta ez dudala haien ona besterik nahi.
Nire zurekiko adiskidetasuna izan bedi
nire haiekiko adiskidetasunaren euskarri.

Jesus, Maisu,
zure misiora deitu didazulako
eskerrak eman nahi dizkizut. Amen.

EGIAZKO MAITASUNARI ERESERKIA

Lau hizkuntzatan mintzatuko banintz,
zenbait lizentziatura izango banitu,
nire tronuan
ezin hobeto mintzatzeko dohainaren jabe banintz,
nire ogibidearen barrunbe guztiak ezagutuko banitu...
ez naiz ezer ikasleak maitatzen ez baditut.

Maitasun hau eroopen handikoa da,
ez dabil etengabe erlojuari begira,
eskuzabala da,
nomina bi egun beranduago iritsi delako
mundua ez baita bukatuko.

Setatia da,
benetan konprometituta dagoenean
erretiratzea ez du maite;
nekagarria da, maitasunaren bila jardutea
ukuiluan harri bitxi baten bila ibiltzea bezalakoa
baita sarri.

Ez da emaitza hutsaren zale
| sarritan uztak ez du ereintzarekin zerikusi handirik
eta urteak behar izaten ditu bere betera heltzeko | ; ez
da harroa
| ez zaio estatuarik egiten,
ez dute seme-kuttun izendatzen | .

Ez da erretorikoa,
hitzik ederrenak buru argi
eta bihotz apaletik sortuak baitira;
posesiboa ere ez,
zenbat eta handiagoa izan boterea
orduan eta arriskutsuago baita abusua.

Gauzek ilunera jotzen dutenean ez du etsitzen,
guri jaramonik egin ez eta ikasi orde
burla egin eta adarra jotzen digutelako kexu.

Ez du “gaiztoen” zerrendarik gordetzen.
Aldiz, ahaleginak eta bost egin ondoren
poztu egiten da azken horietako batek,
| txarrenak, amorrarazten gaituenak,
“gorriz” seinalatuta daukagunak|,
zentimetro bakarrekoa bada ere,
aurrera urrats txiki bat egin duenean.

Maitasun hau ez da inoiz igaroko.
Gure gazteekiko fede itsua.
Beraien “ametsekiko” itzaropena.
Maitasun desinteresatu eta altruista.

Maitasuna da bikainena.
Jainkoak gure esku jarri dituen horien izen eta abizenez
janzten den maitasuna, nola ez,
egunen batez guztien kontuak eskatuko baitizkigu.

José María Escudero

EGIN BEDI NIGAN ZURE HITZA

Minik egin gabe sartzen den Argia bezala,
ilunabarra kontenplatzera garamatzan kristala bezala,
isiltasunean, egin ninduen Amak
eta Jainko handi baten zeruertz zabal eta garden.

Egin bedi nigan zure Hitza,
jaio bedi nigan nire fedearen Jainkoa.
Eguzkiari emango diot nire haragia.
Egin bedi.

Argi baten modura,
Bere Mirabea naiz eta atzetik jarraitu nahi diot,
Beteko nauen Jainkoa hazarazten
bizi nahi dut.
Egin bedi.
Argi baten modura.
Sartzen den argi baten modura.
Argi baten modura.

Patxi Ezkiaga

EGIN BEDI ZURE NAHIA

Ulertzen ez dudanean,
bizitzak ihes egiten didanean,
historia errepikatzen denean,
dena gaizki ateratzen dela dirudienean,
mina nirekin doanean,
gurutzea astuna egiten zaidanean,
desertuak ustekabea harrapatzen nauenean...
egin bedi zure nahia.

Bidea monotonoa egiten bada,
horizontea iluntzen bada,
itxaropenak ihartzen badira,
erraiak husten badira,
nekezia handia bada,
loreak eta fruituak desagertzen badira,
indarrak ahultzen badira...
egin bedi zure nahia.

Zure asmoak onartzea kostatzen bazait ere,
gogorrak eta korrontez kontrakoak iruditzen bazaizkit ere,
nire erosotasunetik ateratzen banaute ere,
nire asmo eta ilusioen aurka badoaz ere,
protesta bizian argibide eske jarduten badut ere,
behin eta berriro nomada egiten banaute ere...
egin bedi zure nahia.

Argia nirekin dagoenean,
brisak itxaropenak ekartzen eta kulunkatzen dituenen,
oasiek itzala eta babes eskaintzen dutenean,
ahotsak poz eta jai oihuak direnean
bizitzaren taupadak beroak direnean,
maitasunak dohainik inguratzen nauenean,
guztia berritasun eta samurtasun denean...
egin bedi zure nahia.

Orain, Jauna,
aztoratzen eta urratzen banau ere...
egin bedi zure nahia.

Florentino Ulibarri

EGIZU ELKARTE ALAIA

Jesus, Jauna,
emaiguzu Espiritu Santuaren bizipozak bereganatutako
elkarte irekia, konfiantzaz eta bakez betea.

Gar eta berotasunez beteriko elkarte,
bizitzari kantatzen,
edertasunaren zirrara jasotzen dakiena,
misterioaren aurrean txundituta,
zure maitasunezko erreinua aldarrikatzen dakiena.

Eraman dezagula festa bihotzean,
minak hartu bagaitu ere bidean,
jakin bai baitakigu zuk, Kristo berpiztu horrek,
gainditu dituzula oinaze eta heriotza.

Tentsioak ez gaitzala kikildu,
gure arteko gatazkek ez gaitzabela ito,
gure ahuldadean ere, Espiritu Santuaren indar sortzaile
eta berritzailea gure esku baitago.

Emaiozu zure familia honi
umore on ugari,
egoera larriak desdramatizatu
eta bizitzari irribarrez begiratzeko gauza izan gaitezen
Egiguzu aditu korapiloak askatzen, kateak urratzen,
ildoak irekitzen, hazia ereiten,
zauriak sendatzen eta esperantza bizirik mantentzen.

Eta egizu gure elkarte tristeziak jota dagoenean
umil-umil izan gaitezela egiazko alaitasunaren
profeta eta lekuko.

EGUNA HASTEKO SALMOA (5. salmoa)

*Zure estalpera nator, Jauna, eguna hastean.
Babes nazazu.*

Nire begiek eguneko argia ukitzen dutenean, Jauna,
nire bihotza zuregana altxatzen da zure begiradaren bila.
Entzun itzazu bizitza berriro sentitzen duenaren hitzak,
eta adi egon, Jauna; zaude nire esku irekietatik hurbil.
Emaiozu erantzuna nire galderari;
lagun iezadazu nire larrialdian,
Zu nire Jaun eta Jainkoa, nire uste on.

Zuregana irekitzen dut nire bizinahia: goiz goizetik
zure eskuetan jartzen ditut nire beldurrak eta nire ilusioak;
zure begietan jartzen dut nire bilaketaren egia;
zure bidera zuzendu nahi ditut nire urratsak.

Entzun, Jaun on eta errukitsua, eta emadazu adore.
Begira iezaiozu, Jauna, nire bihotz xumeari,
zure babesaren bila dabilen kurloiaren antzera baitabil.
Har ezazu nire buztina eta eralda nazazu
zure gaurko asmoaren arabera.

Zure begien aurrean egon nahi dut
zure begirada sarkorraren pean;
Jauna, ahul eta hauskor sentitzen naiz.

Isur itzazu zure ontasuna eta goxotasuna
nire bihotza adoretzu eta tinko senti dadin.

Ken ezazu nire bidetik, Jauna, inguratzen nauen gaitza
eta ez utzi iruzurrari nitaz jabetzen.
Emazkidazu otzantasuna eta apaltasuna
nire bihotza ez dadin indarkeriaren zale izan,
inori ez diezaion joko zikina egin.

Egizu, Jauna, zure presentzian ibil nadila,
izan nadila zugandik alde egiteko beldur.
Jaun on eta santua, gida nazazu argira,
eta argiaren zure seme-alaben antzera joka dezadala.
Leun ezazu nire bidea zure legeari zintzo ekin diezaiodan.
Zure bidea, Jauna, nire bihotzaren irrika izan dadila,
eta zure Espiritu Santua bidaide izan dezadala urratsez urrats.

Jauna, emadazu bihotz garbia zuzen ikus dezadan,
bihotz pobrea gaur zure Erreinua bizi dezadan,
bihotz errukitsua errukia isur dezadan,
bakez beteriko bihotza zure seme-alaba izan nadin,
bihotz otzana lurraren jabe izan nadin.
Nire bihotza poztu eta alaitu dadila gaur,
dena zuregandik itxaron baitut, Jauna, nire Jainkoa.

Zure estalpera nator, Jauna, eguna hastean.
Zugan ipintzen dut nire uste ona.
Zuri azaltzen dizkizut nire egitasmoak.
Zuri eskaintzen dizut naizen eta daukadan oro.
Zuri, nire bizitzaren Jainko horri, indarra eskatzen dizut.
Nire bihotzak maite zaitu eta zugan bozkarioz jauzi egiten du.

Bedeinka nazazu, Jauna, eta bide zuzenetik gidatu.
Defenda nazazu eta izan zaitez nire geriza.
Zure hegoek, Jauna, babes nazatela eta gorde
gaur ematen didazun eguna bizi dudan bitartean.

Emilio Mazariegos

ELIZA IZATEKO DEIA

Jauna, Eliza izateko deia egin diguzu,
eta zure laguntzarik gabe
ezingo dugu izan maitagarri eta ulerkor,
ezingo dugu zuk nahi duzun bezala
lagun hurkoa maitatu.

Emaguzu, zailtasunak zailtasun,
Ebanjelioa zabaltzeko behar dugun indarra.
Gure esku jarri duzu, Jauna,
eta horregatik nahi dugu aldarrikatu.

Egizu gudan haragitutako Ebanjelioa
eskaintzeko gauza izan gaitezela,
gau eta egun lanari emanak,
zintzotasunaren eredu.

Begirunean oinarritutako maitasuna
emateko gauza izan gaitezela,
guztiei dohainik itxaropenezko adorea zabalduz.

Sendotu, Jauna, gure bihotza
zure babesleku izan dadin
eta egizu, gure hitzak entzuten dituztenek
ez ditzatela har gizakion hitz bezala,
zudan bizi den iturburutik
ateratako ur freskagarri gisa baizik.

ELKARTASUNA

Belarriak beti adi
hurkoaren nahigabe garrasiari
eta haren laguntza eskea entzun,
hori da elkartasuna.

Begirada beti erne
eta begiak luze itsas gainera
itsasoan galdutakoaren bila,
hori da elkartasuna.

Bertako eta urrutiko anaiaren oinazea
neurea bailitzan jaso, beharrea dauden
estualdia norberarena egin,
hori da elkartasuna.

Apalen ahotsa izatera ailegatu,
bidegabekeria eta okerra argira ekarri,
gaiztoa eta bidegabea salatu,
hori da elkartasuna.

Bakez, maitasunez eta itxaropenez
beteta datorren mezuak
anaiaren eskua estutzeraino erakartzen laga,
hori da elkartasuna.

Norbera, herri batzuek besteei
bidaltzen dieten besarkada
zintzo eta anaiakorraren mezulari bilakatu,
hori da elkartasuna.

Zuzentasun eta askatasun borrokan
maitasunean bizia bera arriskatuz,
arriskuak elkarrekin eraman,
hori da elkartasuna.

Bizia bera ere eskaintzean datza
adiskidetasunaren ezaugarri handiena.
Hori da Jesukristorekin bizitzea eta hiltzea,
hori da elkartasuna.

*Hau da zure mezuaren oihartzuna,
oihartzun bizia eta lotsarik gabekoa,
inoiz ere isileraziko ez duguna.
Egin gaitzazu, Jauna, elkarkide eta solidario.*

Leónidas Proaño

ELKARTE ESPIRITUAREN SALMOA

Ai zein ederra, zein ona
Anaia guztiak zeregin berean ikustea!
Anaiak gara; Anaiak izan nahi gintuen Aitak,
bere Elizan magaleratu gintuenak;
Anaiak gara, mahats sorta Haren eskuetan,
izan gaitezen ardo zaporetsua Eskolan.

Anaiak gara, alea uzta bihurtu zuen
gizon baten fedetik sortuak;
berak lau haizetara jaurtiki baitzituen
lurraren ildoak hartuko zituen bizitzaren haziak.

Ogi gozo gara, gure artean zatitua,
eguneroko mahaian jartzen den ogia;
edontzian eskainitako ardo zaharra gara,
Anaia bakoitzak edan dezan.

Zazpi koloreko ostadarra gara,
zerua zeharkatzen duena, ekaitza
haizearen hegaletan aldentzen denean,
guretzat milioika izar nare utzita.

Anaiak bakarrik gara, bat egindako Anaiak,
egiaz elkar maite nahi duten Anaiak,
Anaiaren gurutzea bizkarrean hartuta,
guztion zama.

Goizean kanpai hotsera
bihotza esnatzen denean
Anaiekin batera egiten du otoitza
elizan Jaunarengana.

Eta goizetik gauera
beste Anaiekin batera ereiten dute
haurren Jainkoaren Hitz bizia,
haien bihotzetan utzirik udaberri loreak.

Eta ilunarrean, elkarrekin bat eginda,
ekiten diote beren bihotzetan bizi den
Jesusen inguruan, zeruko Aitaren
izena haien ezpainenetan.
Ogi eta ardo, Eukaristian Anaiak sentitzen dira
amodioak elkarri lotuta,
etxe bereko harri bizi,
irmo, sendo, elkarrentzako perla bitxi.

Ai zein ederra, zein ona
Anaia guztiak zeregin berean ikustea;
bizitza asetzen duen perfume,
ildoan utzita urratsen lurrina.

ELKARTEA ZAINDUKO DUT

*Maitatu eta zainduko dut elkarte,
Zure elkarte, nirea, gurea.*

Nire anaiak zainduko ditut,
haiekin bizi bainaiz, haiekin bainoa bidean;
haiek alaitzen didate bizi-giroa,
haientzat naiz kristaua.

Ilusioz eta xeraz prestatuko ditut
abegirako magala,
laguntasunerako eskuak,
errukirako erraiak.

Erne ibiliko naiz nigandik atera ez dadin
hitz gordinik, keinu hutsalik;
ez ditut kritikatu nire anaien maniak,
ez ditut gutxietsiko haien arazoak,
ez ditut sailkatuko nire laukietan,
ez ditut bekaizkeriaz hartuko haien arrakastak,
ez nau poztuko haien porrotak.

Bere indar eta samurtasunaren betean
hartuko dut anaiaren hitza.
Zorionduko dut zoriontzeko orduan,
erabakiko dut erabakitzeke orduan,
zuzenduko dut zuzenketaren orduan,
salatuko dut salaketaren premia dagoenean.

Gau eta egun tenore onean edukiko dut bihotza,
ate-leihoak irekita beti,
inori bakea eta alaitasuna lapurtu gabe,
bizitzaren betetasuna eman
eta elkartearekin amesteko irrika eta gogo biziaz.

Jauna, ez naiz ausartuko zurekin bat egiten
senideengandik urrun nagoenean;
ez naiz harroa izango,
barkamena eskatuko dut,
eskua luzatuko dut,
eta anaien besarkadaren bila
ibiliko naiz.

Maitatu eta zainduko dut elkarte,
harekin batera saiatuko naiz,
zintzo izango natzaio,
defendatu egingo dut,
ilusioz biziko ditut elkartearen asmoak,
eta ez dizkiot ukatuko
zuk eman dizkidazun dohainak.

Florentino Ulibarri

EMAGUZU ZURE ALAITASUNA

Entzun, Jauna, gure otoitza.
Bihotz egiatia
zalantzaz beteta dago
eta aurrera egitearen beldur da.

Maitasuna berreskuratu nahi dugu bizitzarako,
zintzotasuna landatu nahi dugu
zure haranaren bihotzean,
eta itxaropenezko bideak erein nahi ditugu.

Zure urratsak segitu nahi ditugu
modernitatearen betean,
oihartzuna ozenagotu dadin
eta biderkatu zure mezua.
Laztanez zaintzen dituzu gure oinak
mehatxuaren eta iruzurraren minez daudenean.
Garaiz ereiten duzu zure hazia
eta babesten gaituzu estalperik ezatik.

Askok harrokeriaz aldarrikatzen dute
haien itsukeria,
eta konplizitate keinuz
zikintzeko historia.

Jauna, utz itzazu agerian haien lakioak.
Ez dezatela suntsitu munduko lorategia
Eta, telebistak ezkutatu nahi badu ere,
izan dezagula “justizia” oihukatzen adorea.

Justiziarekin konprometitzen direnek
zabalduta egiten dute alaitasuna
eta maitasuna ereiten dute
lur guztian.

José Serna

EMAKUMEAK ELIZAN ETA ETXEAN

Emakumeak, Elizan eta etxean, menpeko eta isilik
nahi dituen Tarsoko Pauloren tradiziotik..
aska gaitzazu, Jauna.

Emakumeei “infernuko atea” deitu zien,
eta lehen bekatuaren lotsa garbitzeko
beltzez, dolu eta luto jantzitan
ibili behar zutela esan zuen Tertulianoren tradiziotik..
aska gaitzazu, Jauna.

Emakumea Jainkoak ohorea ukatu ziola
eta giza endaren heriotzako iturri dela aitortu zuen
Alejandriako Ziriloren tradiziotik..
aska gaitzazu, Jauna.
“Ez da gizonezkoarentzat alferrik galdutakorik ezer,
ezagueraz horniturik baitago;
lotsa ematen du ordea emakumearen izaera
gogora ekartze hutsak” esan zuen
Alejandriako Klementeren tradiziotik..
aska gaitzazu, Jauna.

“Emaztekiak, gaizki jaiotako gizonezkoak baino ez dira,
eta ugaltze lanetarako baino ez dira on”
esan zuen Akinoko Tomasen tradiziotik..
aska gaitzazu, Jauna.

Emakumea, suge limurtzaile bezala deskribatzen duen
eta emakumearen bihotzean gaiztakeria baino
ikusten ez duen Klarabaleko Bernardoren tradiziotik..
aska gaitzazu, Jauna.

EMAKUMEAREN ZORIONAK

Zorionekoak berdintasunaren aldeko borrokalari,
biziera berria sortzen eta ernaltzen baituzue.

Zorionekoak askatasunaren eraikitzaile,
zuen bizitzarekin zuzentasuna oparitzen diguzuelako.

Zorionekoak gogoz ebanjeliora begira jartzen zaretenak,
Jainkoa gure artean bizi dela erakusten baitiguzue.

Zorionekoak zuek, emakume kementsu,
sortzaile eta ernatzaile,
diferentzian berdintasunaren lekuko zaituztegelako.

Zorionekoak zuek, andere txeratsu,
maitekor, saiatu eta eragile,
mundu gizakoiagoaren alde oihu egiten duzuelako.

Zorionekoak zuek, emazteki bihozbera,
samur, zalu eta erne,
zuen ahaleginekin amestutako aldaketak
egia bihurtzen direlako.

Zorionekoak zuen sentikortasuna adieraztean,
Jainkoaren Ama-aurpegia erakusten diguzuelako.

Zorionekoak erantzukizun politikoak onartzean,
maitasunaren neurri berria erakusten diguzuelako.

Zorionekoak
iraupen handi eta mendera ezineko egonarriz
gizartea eraldatu eta Jainkoa goratzen duzuelako.

Poz zaitezte, otoitzez eta kontenplazioz
historiaren esanahia agirian jartzen duzuenean,
guztiontzat irakurterraz eta ulergarri egiten baituzue.

Poz zaitezte, askatasun utopiari aurrea hartuz,
anaitasuna eta elkartasuna
ogi berria bezala lantzen eta banatzen duzuelako.

Poz zaitezte zuen amatasun karismagatik
biziarekiko erantzukizunaren jabe egitera
garamatzazuelako.

EMANDAKO HITZARI EUSTEN DIOT

Emandako hitzari eusten diot:

Justiziari,
lege eta ohiturak gorabehera,
diru eta limosnak
gorabehera.

Apaltasunari,
ni izateko, benetako ni.
Libertateari,
gizaki izateko.

Eta pobretasunari,
libre izateko.

Sinesmenari, kristau sinesmenari,
gauzez ibiltzeko,
eta, batez ere, egunez ibiltzeko.

Eta beti, senideok,
emandako hitzari eusten diot:
itxaropenari!

Pedro Casaldáliga

ENE ANAIA, ENE ARREBA

Alboan zauzkadan ene anaia,
asko ez bada ere, funtsezkoa dela jakinaren gainean
gure oinen azpiko lurra nirekin partekatzen duzun
ene arreba...
errespetatua izan bedi zure izena
munduko hizkuntza guztietan.

Egin dezagun elkarrekin
inor zapalduko ez duen lurra,
inor ertzetara bultzatuko ez duena.
Lur horretan jar dezagun oparia den oro
guztien eskuetan: ura, janaria, airea, orubea...
horrela etorriko baita
Aita deitzen dugun Haren erreinua
lurrera, itsasora, maitatuak sentitzen garen,
maitatzeko prest gauden guztiongana.

Anaia, arreba, gure ogia izan bedi
gure gaurko eguneroko ogia,
eta falta bazaigu
dei dezagula bestearen atera,
aseturik gelditzen ez bagara ere
gutxienez ihartu ez dadin gure bihotza,
nire mahaia zure mahaia baita
eta nire etxea ez baita nirea bakarrik
baizik guztiona.

Eta hau ahantzita,
inoiz gure Aita ez dela hain gurea, nirea baizik
uste badut
barka iezadazu, luza iezadazu eskua.

Orduan gogora iezadazu munduaren mina
nire mina ere badela
eta nire Aita "Aita Gurea" dela esaten ari banaiz
ezin ditudala beste norabait itzuli begiak,
ezin ditudala gelditu nire eskuak.
Eta ez zaitetz kezka: hitzarmen hau biona da.
Inoiz iraindu nauzula sentitzen badut,
jakinarazi egingo dizut.

Horrela hasiko gara berriz ere eraikitzen,
lurra ezin baita atera bere gaitzetik
ez bagara bere gaitza sentitzeko gauza.
Eta horrela, anai-arrebekin bizitza partekatuz,
izango gara eraikitzeko, ibiltzeko, maitatzeko gauza.

Hala bedi, anaia. Hala bedi, arreba.

Roberto Borda de la Parra

EREINTZA

Nire hezurak ama lurraren azpian barreiatuta,
izan naizen hartatik
zuhaitz hutsa baino geldituko ez denean...

mila haize-kirri ezberdinetan itsasoratu delako
gaur arnasten dudan laztanaren hatsa
izan zinenaren sapatik bizi den
arrosa zuri hutsa besterik izango ez zarenean...

gure izenak oihartzunik gabeko hots izango direnean,
hondorik gabeko ahanzturaren itzalean lo...

orduan ere bizirik jarraituko duzu arrosaren edertasunean,
ni zuhaitzaren abaroan biziko naizen bezala,
eta gure maitasuna haize-kirriaren murmurioan.

Entzun iezadazu!

Egunsentiaren ahots ozenetan
bizi nahi dut zurekin;
zurekin iraun nahi dut gizadiaren
sapa sakonean:
haurraren barrean,
gizakion bakean,
malkorik gabeko maitasunean.

Horregatik,
arrosari eta zuhaitzari,
lurrari eta haizeari emanak
bizi behar dugunez,
hau besterik ez dizut eskatzen:
bizi gaitezela munduaren etorkizunari
emanak.

Miguel Otero Silva

ESKERRAK ETA GORESPEN ZURI

Nire bizitzarekin,
nire jardunarekin,
nire ibilbidearekin,
nire izaerarekin...

Eskerrak eta gorespen zuri, Jauna!

Nigan dagoen guztiak
zutaz hitz egin nahi du,
zure erreinuaren zeinu izan,
zure su irenskorren lekuko...

Inguruan ditudan gauza onengatik,
hitz zintzoengatik,
jende xumeagatik,
bihotz irekiengatik,
esku luzatuengatik...

Egunero zure kreakuntzaren ederra
dastatu ahal izateagatik,
bizitzako bidean egunetik-egunera
nirekin diharduten
senide guztiengatik...

Bizitzeko eman didazun itxaropenagatik,
nigan esnatzen duzun konfiantzagatik,
ematen didazun bakeagatik,
oparitzen didazun adiskidetasunagatik,
sendotzen duzun fedeagatik...

José Real Navarro

ESKERRAK HAUTATU GAITUZULAKO

Eskerrak damaizkizugu, Jauna,
Zugana doazenen laguntzaile izateko
deitu eta hautatu gaituzulako.

Gazteen artean zure Ebanjelioaren
lekuko nahi gaituzu,
zure Erreinuaren eta Berri Onaren mezulari,
piztutako argi, barreiatutako gatz,
legami hartzigarri,
bidaide,
zure Espirituari leial izango zaizkion hezitzaile.

Gogotik hartzen dugu zure erronka,
gazteen artean, behartsuenen artean batez ere
zure presentziaren ikur eta ezaugarri izan gaitezen,
gure Misioak gero eta bizitasun handiagoa izan dezan.

Anaia sutsuekin egiten dugu amets,
Anaia izateko bokazio pastoraltza
gogo onez hartuko duten Anaiekin.

Jesusen "Zatozte eta ikusi" hura
gazteentzako gonbidapen egin nahi dugu,
guztion artean aurrera eraman dezagun
bokazio-diszernimendua.

Jauna, indartu itzazu gudan
gazteei heldutasunerako bidean
lagunduko dieten abegia eta maitasuna.

Jauna, lagun egiguzu tokian tokiko Elizarekin
bokazio-pastoraltzan jarduten.

Erein ezazu gudan zure Bizitzarako mezua,
bidal itzazu zure euria eta eguzkia
gure lugorrira,
bizitzaren lore eta fruituak eman ditzan.

ESKERRIK ASKO ZURE SAMURTASUNAGATIK

Egunak igaro ahala,
gero eta errazago egiten zait zure hitzak hautematea:
“Zu zara nire maitea, zugan hartzen dut atsegin”.

Aldien hasieratik nigan pentsatu zenuelako,
gurasoen maitasunaz eho ninduzulako,
zeukaten onena eman zidatelako,
zekiten onena, ahal zuten onena.

Eskerrik asko, Jauna,
haur nintzela hartu nituen besarkadengatik,
eratu ninduen gorputzagatik,
bildu ninduten laztanengatik,
hazarazi zidan elikaduragatik,
izaten lagundu zidaten irakaspengatik.

Eskerrik asko, adore eman zidaten gizakiengatik,
nire balioa onartzen jakin zuten guztiengatik,
nire autoestimua indartu zutenengatik,
segurtasuna eskaini zidatenengatik.

Eskerrik asko, beren hitzez neure buruarengan
sinesten lagundu zidatenengatik,
bizitzarekin maitemindu nindutenengatik,
maitatzen irakatsi zidatenengatik.

Eskerrik asko,
egun batez nire bidean azaldu zinela,
zure presentziaz inguratu ninduzulako,
zure besarkada sentiarazi zenidalako,
zure Maitasunez kutsatu ninduzulako.

Eskerrik asko egunero irri egin eta
alboan bizitza samurtzen didan jendea
jartzen didazulako,
egunsenti berri bat oparitu
eta berotasunez eta gizatasunez
beteriko detaileak ematen dizkidazulako.

Eskerrik asko maitatzeko gai egin nauzulako,
nigan entregarako keinuak jarri dituzulako,
atseginerako irribarrea,
zaintzeko besarkadak, sendatzeko samurtasuna.

Eskerrik asko zure erara egin nauzulako,
lurrari emaniko maitasun.
Eskerrik asko zure erreinua eraikitzeko
nirekin kontaktzen duzulako,
zure samurtasun neurrigabeak sentiaraz gaitzan
giza familia handi honen senidego.

ESKERRONEZ KANTARI ARI GARA

Kosmos zabaleko oparotasun eta mugagabetasunagatik,
Ama Lurraren aniztasun eta emankortasunagatik,
gizaki bakoitzean gordeta dagoen ondasunagatik...

Eskerronez kantari ari gara.

Barruan daramatena adierazi nahian dabiltzan begiengatik,
lagun hurkoaren bihotzari adi dauden belarriengatik,
elkar maite dutenen isiltasunagatik...

Sentipenak eta gogoetak ahozkatzen dituen hitzagatik,
harreman alternatiboak errazten dituen web-agatik,
urrutitik iristen zaizkigun gutunengatik...

Ateak zabalik dauzkan etxeagatik,
eseri eta elkarrekin hitzegitera deitzen gaituen mahaiagatik,
elkarren artean banatutako negar eta irribarreengatik...

Familia biltzen duten ardoa eta ogiagatik,
presentzia usaina darien loreengatik,
anaien besarkada suharragatik...

Jai giroko plaza elkartzaileagatik,
itxaropena abesten duen agiriagatik,
duintasuna aldarrikatzen duten grafitiengatik...

Aukera berriak argitzen dituen eztabaidagatik,
herriaren aurrerabideak eragiten dituzten sinadurengatik,
irizpide etikoekin zuzendutako diru-kontuagatik...

Liburuetan eta bizitzan presente dagoen Hitzagatik,
herrien tradizio izpiritualetan bildutako Jakituriagatik,
gizon emakume ororekin bat egin zuen Jesusengatik...

González Cordero

**ESKOLA JAUNAK ERAIKITZEN EZ BADU
(127. salmoa)**

*Eskola Jaunak eraikitzen ez badu,
alferrik ari dira hezitzaileak.
Jaunak gure bizitza zaintzen ez badu,
alferrik daude erne poliziak.*

Hartu nire indarra, Jauna, eta eman zure grazia.
Hartu nire ahalegina, Jauna, eta eman zure leialtasuna.
Eraiki nire etxea, eraiki nire eskola,
sendotu nire fedea, bultzatu nire itzaropena.
Eraiki nire bizitza, Jauna, eta bultzatu nire elkartasuna.

Jauna, badakit dohaina zarela.
Jauna, badakit nire aberastasuna zarela.
Izan zaitez arnasa nire nekean
eta lagundu eguneroko erromesaldian.

Zaindu nire bizitza:
haur baten antzera zuri eskaintzen dizut.
Zaindu nire etxea: nire bihotza zurea da.
Zaindu nire ikastetxea:
nire lanak zure lanari lagundu nahi dio.

Jauna, askotan galduta sentitzen naiz.
Goizean goiz jaikitzea alferrik dela diozu,
berandu oheratzea alferrik dela,
nekearen ogia jatea alferrik dela.
Halaxe diozu:
adiskideei lotan dauden bitartean ematen diet ogia.

Zure adiskide izan nahi dut, ez dizut ezer eskatuko.
Zure adiskide izan nahi dut eta zure eskuzabaltasuna bizi.
Zure adiskide izan nahi dut eta zure salbazioa onartu.
Zure adiskide izan nahi dut
eta mundu hobe bat egiten lagundu nahi dizut.

Ireki, Jauna, nire bihotza eskuzabaltasunari.
Ireki nire bizitza ontasunari.
Ireki nire begiak elkartasunari.
Jauna, nire ikastetxean ez dadila inoiz
gizalegearen sentimendua falta.

ESKU BATUAK

Izan gaitzela, Jauna, otoitzean eta doantasunean
bat egin duten eskuak.
Zure Eskuekin bat egin dezagula Aitaren eskuetan,
Espirituaren hego emankorrekin,
pobreen eskuekin bat eginda.

Ebanjelioaren eskuak,
Bizitzaren ereile,
Esperantzaren kriseilu,
Bakezko hegaldi.
Zure Esku solidarioekin bat eginda,
guztion Ogia zatitzen.
Munduko gurutzetan josiriko Eskuekin bat eginda,
Zure Pazkoaren Esku loriatsuekin bat eginda.
Mugarik gabeko Esku irekiak,
eskurik dagoen hartaraino.
Mundu osoa besarkatzeko Eskuak,
Hirugarren Munduarekiko,
Erreinuarekiko zintzo.

Justiziaren aldeko grinaz tenkatuta,
Maitasunean samur.
Hartutakoa doantasun biderkatuan
ematen duten eskuak,
esku gehiago beti,
are batuagoak.

Pedro Casaldáliga

ESNA NAZAZU, JAUNA

Esna nazazu, Jauna,
ez iezadazu utz lotan ematen bizitza.
Atera nazazu herrestan naraman logura honetatik:
errutinaz biziartzen dizkit egunak,
frenurik eta zentzurik gabe bultzatzen nau lasterketara,
ez dit albokoak ikusten uzten
eta asegabe uzten nau ilunabarrean,
eguna amaitzen denean.

Esna nazazu, Jauna, kaskarkeria lotarazletik,
horixe egin baitzaigu gure jantzi arrunt eta erosoena.
Ez iezadazu utz egunak topaketez bete gabe ezabatzen,
ez iezadazu utz jendearekin maitatu gabe “egoten”,
ez iezadazu utz maitasunez
eta zentzuz bete gabeko gauzak egiten,
ez iezadazu utz
erosotasun orojale baten anestesian erortzen.

Esna nazazu, Jauna, gorde nazazu beilan,
zure jendeak iratzarri egon behar baitu,
Zuk salbamena baitakarzu nire bizitzara,
salbamena aldarrikatzen baituzu nire familiarentzat,
irauli egin nahi baituzu nire lanaren mundua
eta bultzatu munduan egoteko modu zuzen
eta solidarioagoa.

Esna nazazu, Jauna,
besteak ohartzen ez badira ere lo nagoela.
Esna nazazu
hurbiltzen ari zaigun salbazioa aurkitzeko,
jar iezazkidazu begiak anaiari begira,
jar iezazkidazu belarriak haren premien sintonian,
jar iezazkidazu eskuak eta oinak haren zerbitzura,
errazago egin dezan bizitzako bidea,
elkarrekin egin dezagun aurrera
eta salba gaitezen elkarrekin.

Esna nazazu, Jauna, senda nazazu etsipenetik,
sendo ezazu nire bihotza,
intziri eta deslilurapen antzuen aurka;
presa, eragozpena, beldurra ez bekizkit lotarazle gerta;
behe-lainoak ez nazala bere lausoan ezkuta.
Aldiz, jar nazazu beti zure argiaren bila,
jar ezazu nire bizitza zure Bizitzarekin sintonian,
bai Zuk eta bai nik, elkarrekin, goza dezagun
oparotasunaren eta betetasunaren harmonia.
Eta, logaletzen banaiz...

Esna nazazu, Jauna!

Mari Patxi Ayerra

ESPEROAN

Eta esperantza,
mundu hobe batez haurdun den birjina da.

Ama batek daki zer den esperoan egotea,
fisikoki idatzia baitu hori gorputzean.
Ez du espero falta zaiolako, beteta dagoelako baizik,
bizia gainezka duelako, bizia estu bultzaka ari zaiolako.
Esperoan dago, mundura zerbait sortzeko esperoan.

Espirituaren haizeak dakar bizia.

Ermes Rochi

ESPERO-GABEKO BIDEETATIK

Jauna,
espero-gabeko bideetatik datorkigu zure deia.
Jendearen testigantza, haien bizitza, haien premiak
dira zure deiaren janzkera.
Baina baztertuen bitartez deitzen diguzu batik bat.
Zure ahotsa garbia da, hurbila, ozena,
eta gure erantzunaren zain dago.
Konfiantzazko erantzun eskuzabal,
librea izan nahi duena,
eragozpenik, beldurrik, baldintzarik gabea.

Jauna, ondo asko dakizu
zein den gazteei egin nahi diegun eskaintza:
kristau baloreak,
Berri Onarekin bat datozen proposamen solidarioak,
abia daitezen zurekin, eta zure bidetik.

Jauna, ondo asko dakizu
fedean, senidetasunean
eta zerbitzuan oinarritutako baloreak
landu nahi ditugula
kristau taldeen baitan.

Jauna, emazkiguzu
kristau baloreetan murgildutako familiak,
bokazioari lur egokia prestatu nahi diotenak.

Jauna,
bokazio-pastoraltzan ahaleginduko diren
Anaia eta Salletarrak behar ditugu,
Zure presentziaren jagole izango direnak,
La Salleren ametsa erraieran haragituko dutenak.

Jauna,
itxaropena eta konfiantza islatuko dituzten
elkarteak behar ditugu,
Zure egunsentia pasioz biziko dutenak.

Jauna, egizu Anaion bizitza
Zure presentziaren keinu adierazgarria
izan dadila,
elkarri zure ondasunen grazia eskainiz
bizitza sagaratuan eta misioan
leialtasun eredu izan gaitezen.

ESPIRITU SANTUARI DEI

Zatoz, Espiritu Santua.

Esnatu gure fede ahul, arin eta dardarati hau.
Egizu, konfiantza ipin dezagun
Jainko gure Aita maitasun hondorik gabean,
bere seme-alaba guztientzat,
Elizaren baitako nahiz kanpoko, duen maitasunean.

Zatoz, Espiritu Santua.

Egizu Jesus izan dadin zeure Elizaren muin.
Ez dezala ezerk, ez inork, Jesus ordezkatu, ez lausotu.
Ez zaitezela bizi gure artean
gu haren Ebanjeliora erakarri gabe,
guri haren ondoren bihotz-berritzera eragin gabe.
Ez dezagula jo haren Hitzari ihes egitera,
ez gaitzela desbideratu haren maitasun-agindutik.
Ez dadila gal munduan haren oroitzapena.

Zatoz, Espiritu Santua.

Ireki gure belarriak zure deia entzuteko,
egungo gizon-emakumeen galderetatik,
sufrimenduetatik, gatazketatik eta kontraesanetatik
iristen zaigun deia entzuteko.
Egizu, bizi gaitzela zure ahalari irekirik,
gizarte berri honek behar duen fede berria sorrarazteko.
Zure Elizan, bizi gaitzela jaiotzen denari adiago,
hiltzen denari baino;
izan dezagula esperantza bihotzaren sostengu,
eta ez haren hondatzaile den nostalgia.

Zatoz, Espiritu Santua.

Garbi egizu zeure Elizaren bihotza.
Ezarri egia gure artean.
Erakutsi guztioi geure bekatuak eta mugak aitortzen.
Gogorarazi guri beste guztiak bezalako garela:
hauskor, erdipurdiko, bekatari.
Libra gaitzazu harrokeriatik eta sasi-segurtasunetik.
Egizu, ibil gaitzela gizartean
egia eta apaltasun handiagoz.

Zatoz, Espiritu Santua.

Erakuts bizitza, mundua eta, nagusiki, jendea
beste modu batean ikusten.

Ikas dezagula begiratzen, Jesusek egiten zuen moduan,
sufritzen ari direnei, negar dagitenei, erortzen direnei,
bakarrik eta bazter utzirik bizi direnei.

Zatoz, Espiritu Santua.

Egin gaitzazu atea irekirik dituen Eliza,
bihotz errukitsua eta esperantza kutsakorra dituen Eliza.
Ez gaitzala ezerk, ez inork,
oharkabetu edo desbideratu Jesusen egitasmotik:
mundua zuzenago eta duinago, maitagarriago
eta zoriontsuago egiten saiatzetik,
Jainkoaren erreinurako bidea urratuz.

Jose Antonio Pagola

ETA JAINKOA BALITZ?

Eta Jainkoa, sudurretik eta poro guztietatik sartu
eta birikak eta espiritua oxigenatzen
dizkigun haizea balitz?

Eta Jainkoa, gauero, altxor bat bailitzan
gure amets urdin eroak gordetzen
dituen isiltasuna balitz?
Eta Jainkoa, mundu erromes honetan
gure bizi- eta samurtasun-egarria asetu
eta gure oin nekatuak freskatzen
dituen ibaia balitz?

Eta Jainkoa, trukean ezer eskatu gabe,
gure bizitza poztasunez eta atseginez betetzen
duen lurrina balitz?

Eta Jainkoa, gugan gorderik dauden urrezko pipitek dir-
dir egin dezaten
gure erraiak erre eta kiskaltzen
dituen sua balitz?

Eta Jainkoa, arau guztiak alaitasunez hautsi
eta plazetan kantatzera eta dantzatzera gonbidatzen
gaituen musika balitz?

Eta Jainkoa, erne eta zutik ibil gaitezen,
goizero historia eta bizitza freskatzen
dizkigun ihintza balitz?

Eta Jainkoa, bere izu eta goseak aitortzeko beldurrez
eskua luzatzen
digun eskalea balitz?

Eta Jainkoa, bere gorputzeko leihoetatik
plastilinazko laztanak egiten
dizkigun haurra balitz?

Eta Jainkoa, askatasun eskukada baten eskean
bizi eta hiltzen diren lurreko herri
zapalduen oihua balitz?

Eta Jainkoa, orain dela bi mila urte hil eta piztu ondoren
behartsuen, xumeen, errukitsuen eta pertsegituen
bizi eta itxaropenezko ikurra egin den
Nazareteko Jesus balitz?
Eta Jainkoa, batera
haize, isiltasun, lurrin,
su, musika, ibai,
eskale, haur, oihu...
eta Nazareteko Jesus balitz?

Eta zu eta ni ere Jainko
| miniaturazko jainkoak | bagina,
mundu babesgabe hau bake eta senidetasunezko
erreinu bihurtzeko arduradun?

Eta Jainkoa
ikusten,
sentitzen,
ez dakigun
eta irrikatzen dugun guztia balitz?

Florentino Ulibarri

ETA ZER, JAINKO

Eta zer, Jainko,
oroitzekin eraikia
gure biluztasunekin baizik ez bazina,
esku dardaratiak lotzen zaizkionean ikonoari,
eta argi batek piztarazten duenean gauez
Madonnaren irudi sotila?

Hor gauzkazu zure errukiari atxikiak,
azken hondamenetik babestuak
izan gaitezen eskatuz.

Zuk badakizu bilatzen zaitugula ilunabarrean,
mendi urdinsken artean,
monje leun kantatzaileek
beren espiritua zure eskuetara daramatenean.
Gu denok baikara dardaratsu bat,
eliz-sabaietarantz aireratzen den
kantu ozen hartan, otoitzean oihu,
zure erreinuko erresumarantz,
izarretatik haratago,
bakez daudenean oihan hesia eta ibarra,
eta gure arima graziaz blaituek
gauaren isiltasun murmuriotsua dutenean zelatatzen.

Xabier Lete

ETORKIZUNAREN PROFETAK

Noizbehinka atzera pauso batek
ikuspuntua egokitzen laguntzen digu.
Izan ere, Erreinua ez dago, besterik gabe,
gure ahaleginetik haratago:
gure ikuspegitik haraindi ere badago.

Gure bizitzan ez dugu burutzen
Jainkoaren lan zoragarri horren zati txiki bat baino.
Egiten duguna ez da inoiz bukatuta gelditzen
eta horregatik esan dezakegu:
“Erreinua beti gure aurrean dago”.

Ez dago esan zitekeen guztia esan dezakeen
aldarrikapenik,
ez dago gure fedearen betea adieraziko duen otoitzik,
ez dago perfekzioa eman dezakeen aitortzarik,
ez dago Elizaren misioa beteko duen bisita pastoralik,
ez dago guztia jakitera emango duen
helburu eta xedeen eskemarik
Guk hazia ereiten dihardugu,
inoiz haziko delakoan;
ereindako hazia ureztatzen dugu,
etorkizunaren promesa dela jakinaren gainean.

Garatu beharko diren oinarriak jartzen ditugu,
guk eskaintzen dugun legamiaren eragina
gure ahalbidetik haraindi baitago.

Ezin dugu den-dena egin eta,
ohartzen garenean,
askatuta sentitzen gara, nolabait,
egiten dugun hori ongi egin dezagun.

Osatu gabe geldituko da agian,
baina hasiera bat izango da, urrats bat bidean,
Jaunaren graziak, ildoan sartu,
eta falta dena burutu dezan.

Beharbada ezingo ditugu inoiz ikusi azken emaitzak.
Baina hortan datza
obra-buruaren eta igeltseroaren arteko aldea.
Igeltsero gara, ez obra-buru;
zerbitzari, ez Mesias.

Gurea ez den etorkizun baten profetak gara.

Óscar A. Romero

ETXEA JAUNAK ERAIKITZEN EZ BADU (127.salmoa)

Etxea Jaunak eraikitzen ez badu,
alferrik ari dira etxegileak.
Gure etxe-bizitza eraikitzen
ahalegindu bagara ere,
eta gurean babestu direnak
ahal izan dugun mailarik gorenera
jaso baditugu ere,
bakarrik bagabiltza,
erabateko porrotera eta hutsegitera
eramango gaitu gure ahaleginak.

Hiria Jaunak zaintzen ez badu,
alferrik daude erne hirizainak.
Alferrik izango da itsu-itsuan,
atsedenik hartu gabe ahaleginak eta bost,
lerdea jario, leher egin arte jardutea;
alfer alferrik izango da, gerruntzea hautsi arte,
eguneroko ogia eta beste zenbait gehigarri
irabazteko heba induta geratzea.
Lo dauden bitartean ematen die Jainkoak
bere kutunei jateko ogia!

Hiria Jaunak zaintzen ez badu,
alferrik daude erne hirizainak.
Etxea Jaunak eraikitzen ez badu,
alferrik ari dira etxegileak.
Hura baita etxegile, Hura zimentarri,
Hura gailurreko buru, Hura giltzarri,
Hura da sabai, Hura etzaleku.

Elkar hartuta jasoko dugu gure etxea;
elkar hartuta zainduko dugu hiria,
eta kaleak, eta etxe-bizitzak.
Bego ordea Jauna gure ondoan.
Ez diezagula Haren presentziak
eta maitasunak hutsik egin;
ez eta bere besoak ere.
Ez diezagula hutsegin;
ahaldun eta bakar,
bera baita etxegile eta etxeko zaindari.

Jesús Mauleón

EZ BEDI ITZAL ZURE ESPIRITUA

Ez, ez bedi itzal, Jauna, zure Espiritua, ez bedi hil,
guztion bizitza baitago jokoan;
ondotxo dakigu ez garela ezer zu falta zarenean.
Zure berritasunak, zure Graziak
ez bezate aurki lur eria gugan,
eta, bestela, ez daitezela kikilduta gera.
Egizu zure lana nigan, egizu zure lana nire bitartez,
zuk hala nahi izanez gero, gure artean.

Nire buru-gogorkeria, nire bekatua
ez bitez zuretzat balazta izan.
Zure presentziari, zure urratsari
adi egon nahi dut bizitzan,
protagonismorik gabe,
zugandik sortutako eroapen eraginkor eta apalean.

Erakutsiezadazu aukera berriak ikusten
hondakinen artean.
Ez dizut nekeziatik edo bizitzaren zaurien eztenetatik
libratzeko eskatzen;
ezta lausorik gabeko argitasunik ere.
Argi izpitxo bat eskatzen dizut,
bultzadatxo bat, gaurko bideari ekiteko,
zure eskuetan utzita geroa.

Irakatsiezadazu
Zu pertsonen bihotzaren, errealitatearen
eta konplexutasunaren sakonean aurkitzen,
han bizi baitzara.

Irakatsiezadazu den-
dena betetzen,
baitaratzen eta barrentzen duen
zure presentzia maitatian bizitzen.

Eraman nazazu “Jesus da nire Jauna” esatera,
miresmenez, intimitatez, esker onez,
zure esku jarri denaren modura.

Eraman nazazu Hark egiten zuena egitera,
Espiritu berak eraginda.

Egin dizkidazun mesedeengatik esker ona izan dadila
zure urratsetan aurrera egiteko bulkada sendoa.

EZ DAITEZELA NEKA HEZITZAILEAK

*Jauna, hau da gaur goizeko nire otoitza:
ez daitezela neka hezitzaileak.*

Urduritasunak ezindu egiten baitu arima,
eta ikaragarri anker eta mesfidati egiten baikaitu.
Jauna, hezitzaileek ez dezatela ahantz
zu zarela egi-egiaz
gizon-emakumeon espiritua eraikitzen duzuna.
Ez dezatela ahantz
errukiak eta maitasunak bakarrik
landu ditzaketela gizon-emakume jatorrak,
oinazearen aurrean zirrara sentitzeko gai direnak;
eta ez ongizate materialari bakarrik lotuak.

Izan daitezela ezjakinari
aurre egingo dion jakituria transmititzeko gauza,
eta, batik bat, jakin dezatela
nerabezaroko urte zailak eramanpenez hartzen,
eta kontraesanak senetik ez ateratzen.

EZ DAUKAT ZUREAK BESTE BEGIRIK

Ez daukat zureak beste begirik
inguruko edertasuna kontenplatzeke
eta sufritzen dutenei errukiz begiratzeko.

Ez daukat zureak beste eskurik
nire jende zaurituari luzatzeko,
maite ditudanak besarkatzeko.

Ez daukat zureak beste belarririk
bidegabekeriaren biktimei maitasunez entzuteko.

Ez daukat zurea beste ahorik
nire senide etsituei adore hitz bat esateko.

Ez daukat zureak beste oinik
zapalduen askatasunaren berri ona emateko
lagunen pozak laster batean partekatzeko.

Ez daukat zurea beste larruazalik
haizekirri bigunaren laztana sentitzeko
eta egiazko harremanetan maitasuna dardara batean jartzeko.

Ez daukat zurea beste bihotzik
zure lagun eta senide diren nire seme-alabekiko
maitasunean emateko.

EZ IBILI JAINKOAREN BILA

Ez hemen ez inon
ez daukazu Jainkoaren bila ibili beharrik,
bihotzaren ate aurrean baitago, justu hortxe.

Hor, zain eta itxaron,
ea barruan inor dagoen ireki eta sarrarazteko prest.
Ez daukazu urrutitik dei egin beharrik,
zu baino urduriago dago ireki diezaiozun.

Ireki eta sartu
istant bakarra dira.

Eguratsa aratz eta garbi-garbi dagoenean,
eguzkia bertan sartzen da
ezin duela gelditu...
Era berean Jainkoa,
non eta noiz aurkituko zaituen prest,
une berean ari eta zugan isuriko da.

Eta hain libre eta trabarik gabe aurkitzean,
zugan on handia isuriko du Jainkoak.
Ez izan dudarik.
Sekulako hutsa izango litzateke Jainkoarena,
zugan gauza handiak egingo ez balitu.

Gertu egon eta Bera sartu
istant bat bera dira.

Eckhart

EZ IZAN BELDUR, ASKATU EGIN BAITZAITUT

Ez izan beldur, askatu egin baitzaitut. (Is 43, 1)

Horregatik,
munduko txoko guztietatik
hondoratu ez ninduten urak maite ditut bereziki,
Itsasoarekin bat egin nintzen hartan.

Horregatik,
munduko txoko guztietatik
kiskali ez ninduten sugarrak maite ditut bereziki,
Sutearekin bat egin nintzen hartan.

Horregatik,
munduko txoko guztietatik
ito ez ninduten malkoak maite ditut bereziki,
Minarekin bat egin nintzen hartan.

Itsaso, Sute, Min...
Ez dira nik asmatutako hitzak, Jauna,
eta badakit inoiz ez naizela egongo
izenik gabeko toki batean,
beti biziko naizela hitzen baitan.
Baina hain nireak direnez
egin itzazu salbamen hondartza
niretzat.

Patxi Ezkiaga

EZ IZAN BELDUR, ENE AUKERATU HORI

*Ez izan beldur, Jexurun ene aukeratu hori,
ura isuriko baitut lur egarrituan,
urlasterrak sortuko landa lehorrean. (Is 44, 2-3)*

Egunaren azken dirdira urdinska da, Jauna,
eta paisajea | ia ezabatuta-|
itsatsi egiten da oraindik ere
leihoetan, argi bila dabilen pipi erraldoia bezala.

Eta lurra usaindu dezaket,
zuhaitzak, haizea...
udaberriak perfumez zipriztindua;
zure ukitua senti dezaket
nire barruan,
maitasun hitzak astroetaraino igo daitezen
intziri erdiragarrian.

Patxi Ezkiaga

EZ ZAITEZ EZKUTA

*Bedeinka ezazu Jauna
zure izatearen sakonenetik,
mugaezina baita.*

Jauna da gure etorkizuna,
zuhaitz buruen artean,
hiriko kutsaduraren lausoan
aurkitu nahi dugun argia.

Jaunaren mezuak leundu egiten ditu bideak
eta suaren modura sartzen da bihotz zaharkituetan,
haizea ekaitzean bezala,
ibaia itsasoan bezala.

Egonezinaz dardaraka jartzen da
bizitzan instalaturik dagoena:
kaltetu dezakeen zerbaiten
beldur da.
Nazioarteko akordioek ez dute
bizitzari zentzua ematen dion Hura aldatzen;
eutsi egiten baitio bere hitzari,
samurtasunez eta irmo eutsi, noiznahi.
Lehiarako arrazoiez janzten du
beti gertu eta prest dagoena.
Botereari kosta ahala kosta eutsi nahi diotenak
dardaraka jartzen dira Haren proposamenen aurrean.

Haren hitza ur bizia sortzen den hartan bizi da,
mendietatik ibarretara jaisten da
eta begirada garbiko pertsona xaloen
kontzientziara iristen da.

Gure aurpegi tristeak, gure aurpegi minduak,
zer irabaziko besterik pentsatzen ez duten
gure begitarteko amorratuak dira
gurera sartzen uzten ez diotenak.

Gainezkoa egiten du Lur guztian,
eta beti dago Bere izenean bildu eta
Bere baloreen arabera jokatzeko dutenen artean.

Eraman dezagun kultura alde guztietara,
justizia ekonomia harremanetara,
askatasuna sistema politikoetara,
maitasuna gizakion bihotzera.

Naturaren mirariak
Jaunak sortu duenaren ispilu dira
eta horregatik espermentatu nahi dugu
eta bizi lehia, atsedena,
misterioa.

Arrantzaleen txalupak, artelanak,
aurrerapen teknikoak,
zaharren begirada lasai eta zurruna
haien oihartzuna dira.

Zu ezkututzen bazara, Jauna,
iluntasunak markatuko du erritmoa,
eta beldurra gure erabakiez
jabetuko da.

Ez zaitez ezkuta, Jauna,
zatoz gure batzarrera.
Gure bizi-aldaketa izango da
gure hitzik egokiena.

José Serna

EZAGUTZEKO IRRIKA

Egun batez, haur zinenean
onartu zintuztenekin
egin nahi dut topo;
hain maite baitzuten zure egia
non zirenari egin zioten uko
zu haiengan bizi zintezan.

Zutaz hitz egingo didaten maisuen bila nabil,
zure hitzak harrapaturik dauzkanak,
zure Espirituak bizi duen jendea,
bihotza su duen jendea,
nireak ere su har dezan haiekin batera.

Jakin nahiz nago,
ikasi nahiz.
Zuk ezagutzen nauzun bezala
ezagutu nahi zaitut.
Ez nazazu eskutik utzi, Jauna,
etzazu utzi hasi duzun lana!

Hain da luze bidea,
hain bakartia, hain estua,
non argi-mutil izango dudan norbait behar dudan,
nire urratsak zaindu eta,
eskutik hartuko nauen norbait.
Hain sarri jotzen gaitu
gauaren hotz gorriak,
eta guk ez daukagu sutondorik!

Egizu, Jauna, aurkitu dezadala
nire bidean zure lagunak beroa.
Izan dezadala beraiengan
aurkitu nahi dudana.
Beraiek bezala, senti nadin
hitz sutsuz aldarrikatzen zaituen
zuzia.

José Real Navarro

EZER EZ DAGO BEHIN-BETIKO EGINA

Ezer ez dago behin-betiko egina.
Maitasuna ez da inoiz amaitzen:
aurkitu beharreko historia da.
Maitasun eralkiak, isuriak,
liluratu egiten gaitu, poztu, ohoratu,
gonbidatu eta bultzatu,
askatasunerako askatu.
Samurtasunak samurtasunera eramaten gaitu,
arretak ardurara, badakigu.
Eta ikusitakoa, entzundakoa, sentitutakoa
aldarrika, hots egin eta igor dezakegu.

Begiak Jesusengan josten ditugunean bakarrik
egiten zaizkigu ezagunak munduan barreiatutako
gure seme-alaben aurpegiak, bidez-bide.
Sarri ez dakigu “amak” garela esan daitekeen,
edo haien seme-alabak ote garen,
bizitza sortu baitute gugan barre-barre.

Begiak Jesusengan josten ditugunean bakarrik
izan daitezke gure bakardadeak
hurbiltasunerako bakardade,
isolatze antzuari uko eginez.
Begiak Jesusengan josten ditugunean bakarrik
egin dezakegu historia
Jainkoaren maitasunaren eremu kuttun,
agindutako Erreinuaren amaigabeko amets.

Begiak Jesusengan josten ditugunean bakarrik
egin ditzakegu gure harremanak senidetasun,
Hark egiten baikaitu seme, seme-maite.
Eta haren atzetik goazenean,
haren “ahurrean tatuatuak” sentitzen gara.

Begiak Jesusengan josten ditugunean bakarrik
esan dezakegu Haren bizitza bizia egin dela gugan.
Geure burua aldarrikatzeari uko eginda,
Haren Berri Onaren profetia erakargarri
eta iradokitzaile egiten gara.

Begiak Jesusengan josten ditugunean bakarrik
berrirakur dezakegu gure historia eta gizadiarena
salbamenerako aukera gisa.

Orduan bakarrik izango dugu historiaren Jainkoarekin
topo egiteko bide.

EZIN ZAITUT ESTUTU

Ezin zaitut estutu argudio setatiez
edo otoitz obsesiboez
osasuna eman diezadazun zuri zerbitzu egiteko,
bizi luzea, gauza gehiago egiteko,
ohorea, ateak zabalik aurkitzeko,
baliabide ugariak, eraginkorragoa izateko.

Eta, nire indarrez harro,
ezin dut sufrimendurik eskatu,
zu gure min-kuotaren beharrea egongo bazina bezala
premiazko duguna guri emateko.

Beti eskaintzen didazuna bakarrik
eskatu nahi dizut:
zure maitasun eta grazia biziemaileak,
heriotzara eraman gaitzaketenak
erasotuei laguntzen saiatu garelako;
zure maitasun eta grazia osasungarriak
gaixotasunera eraman gaitzaketenak
ahulenen zerbitzura jarri garelako;
zure maitasun eta grazia maitagarriak
gizartearen gaitzespena ekar diezaguketenak
legeetara moldatzen ez garelako;
zure maitasun eta grazia lur osoarentzat fruitu-emaileak
ezer gabe utz gaitzaketenak
munduak baztertu dituenekin senide egin garelako.

Zure maitasuna eta grazia besterik ez dizut eskatu nahi:
horiexek dira azken egia.
Egizu onar ditzadala, bihotzak “aski” esaten duen arte.

Benjamín González Buelta

FEDE ESPIRITUAREN SALMOA

*Jesus, gazteen anaia nauzu;
La Sallerekin Anaia.*

Hemen nauzu, Jauna, zure bideari jarraiki;
atzean utzi ditut ondasunak eta etxea;
zure bideari narraio, arina da nire fardela
eta begietan daramat zure behakoaren argia.

Liluratu egin duzu nire bihotz errukarria;
goitik behera urratu duzu nire arima;
haizeak teinkatutako zurda naiz,
dardaraka, aieneka, kantari eta negar zotinka.

Zure eskuetako buztina naiz;
zure eskuek desegina, moldeatua, landua.
Ihi malgua naiz zure hatzetan,
zure artiletik irun duzun hari hauskorra.

Egizu nirekin nahi duzuna, oi zu, gizakion Jauna!
Ulertzen ez badut ere, eskerrik asko. Hori da nire hitza.
Zure magalean utzi dut nire bizitza,
nola pausatzen den adarretan ihintza tanta.

Oi, Abrahamen eta La Salleren Jainkoa!
Gauean jaioak gara eta irrika dugu alba;
arragoak egin gaitu, su geldoan,
eta zutik daukagu, prest, gurutzea.

Emadazu edateko zure saihetseko zauria,
zure odolatik, zure uretik sorturiko ibaia;
sinets dezadan lantzak zurean jotakotik
jaio dela bizitza.

Emaizkidazu zure bideak ezagutzeko begi berriak,
zure zauria sinesten duten fedezko begiak,
barrutik ikusiko zaituzten begi gardenak,
zure nahian iltzaturiko arima garbia.

Eror bedi nire bihotz irekian
zure Hitzaren hazi emankorra;
jaso ezazu nire bihotza zure aurpegira,
zure Espiritu deiadarkariaren hegaletan.

Iratzar ezazu, Jesus, nire fede lotia,
bego zutik, izan bedi norabiderik gabe
doan gaztearen ostatu, bila,
bila beti, jakin gabe nolakoa den zure sutondoa.

Jesus, gazteen anaia nauzu;
La Sallerekin Anaia,
fedea txerta dadin haien bizitzan,
zu izan zaitezten haien bihotz ibiltarien hatsa.

FEDEAREN IZARRAREN ARGITAN

Kosta ahala kosta bizitzen eta itxaroten
laguntzen digun izar txikiari, zein izen eman?
Santutasun, justizia, bake,
maitasun, zorion, samurtasun, askatasun...?

Zuk ondo dakizu, Jauna, zein den
gerta dakigukeen zorigaitzik handiena:
bihotzean ez izarririk, ez ezinezkoaren irrikarik,
ez itxaropenik ez izatea.
Orduan, gau beltzaren hondoenean
nazkak edo etsipenak garamatza heriotzara.

Gaitzaren ilunpeak gainditu ondoren,
oraindik ere bizirik zaude, Jauna,
eta zuk bultzatzen gaituzu
gure gaua urratuko duen argi izpia zarela sinestera.
Jar itzazu gure bihotzeko begiak
fedearen izarrari begira!

Fedearen izarraren argitan,
lagun egiguzu etsipenari “ez” esaten,
goizero jar itzazu gure urratsak
atzerritarraren, pobrearen,
haur gosetuaren, zapalduen, mesprezatuen,
gure anai-arreben bihotz bidean.

Fedearen izarraren argitan,
eraman gaitzazu zure eskutik lurralde ezezagunetara;
argitu itzazu gure bihotza eta adimena,
zuhurtziaz bereiz dezagun
maitasunaren zibilizazioa eraikitzeko
egin behar duguna.

Fedearen izarraren argitan,
egin gaitzazu zure argiaren lekuko eta isla,
gaua argituko duen izar, itxaropen iturri,
zure samurtasunaren eta bakearen epifania.

Michel Hubaut

GARI ARTEAN, OLO GAIZTOA (Mt 13, 24-30)

Txarkeriarekin batera bizi naiz.
Esan nahi baitut, neu, onaren esparruan kokatzen naizela.
Egia da, onaren aldeko erabaki irmoak hartzen ditut.
Eta zintzotasunez jokatzen dudanean,
neure borondatez dela uste dut.

Baina jabetzen naiz lur zabalean ez naizela
errugabe bakarra, onaren eta txarraren jakituna.
Onaren aldeko erabakia hartua badut ere,
hara hemen ni, urre koloreko gari ederra,
baina olo gaiztoz josia. Hau da,
gogo onak grina txarrenekin nahastuak neuregan.

Pazientzi handiz hartu beharra daukat neure burua.
Erakutsiko al didazu, Jauna,
uneoro jarrera jatorraren alde jokatzen?
Besteak ez epaitzeko,
besteok egiten dutena, pentsatzen dutena,
txarkeria aldera aise ez botatzen?

Neure burua ere ez dut errazegi epaitu behar,
ez dut azkarregi gaitzetsi behar.
Onen alderdian jarri ere ez.
Naizena naiz eta neuk ere ez dakit ziur nor naizen.
Ekariezakidazu burura apaltasun hitz egokiak.
Hitzak ere badira eta maisu. Deprimituarenak, ez.
Bizitzan, buru argiz eta apal doanarenak.

Emadazu, neure ondasun altxorra alferrik galdu gabe,
gaizkia ezagutzeko oreka. Ken nigandik
gehiegi dakienaren harrokeria,
olo gaiztoa berehala erauzi nahi duenaren jarrera ustela.

Azken batez, gauza guztiak kritikatu behar honetan,
neure burua gorde nahia baitago.
Astakeriak burlaize bigunez begiratzen ikasi.
Gaiztoen iturri beretik jaso ur garbia,
upel beretik edan ardo bizia,
eskola berean ikasi jakiturgia,
denda berberetan erosi jaki ona,
auzo berean, eskailera berean eman bizitza...

Puritanoek bat-batean erauzi nahi dute hiritik olo gaiztoa,
tolerantzia zero aldarrikatuz.

Zure ebanjelioaren alaba□semea nahi dut izan.

Iokin Otaegi

GARRANTZIZKOENA EZ DA...

Garrantzizkoena ez da ni zure bila ibiltzea,
baizik eta zeu zabiltzala bide guztietan nire bila.
(Has 3,9)

Ez da zeure izen propioaz zuri dei egitea,
baizik eta zuk nirea
zure eskuko ahurrean zizelatuta daukazula.
(Is 49, 16)

Ez da hitzik ez dudanean zuregana garrasi egitea,
baizik eta zeu ari zarela zure intziriekin nigan aieneka.
(Erm 8,26)

Ez da nik baditudala zuri buruzko proiektuak,
baizik eta zuk dei egiten didazula
zurekin bat hartuta etorkizunerako bidea egitera.
(Mk 1, 17)

Ez da nik zu ulertzea,
baizik eta zuk ni azken sekreturaino ulertzen nauzula.
(1Ko 4,10)

Ez da nik zutaz jakinduriazko hitzak esatea,
baizik eta zu nigan bizi zarela
eta nahi duzun erara mintzatzen zatzaizkidala.
(2 Ko 4, 10)

Ez da nik zu nire segurtasun kutxan gordetzea,
baizik eta zuk zure begi niniak bezala zaintzen nauzula.

Ez da nik nire putzuak eskaintzea,
baizik eta zuk zure ozeanoaren sakonean gozatzen nauzula.

Ez da nik zu indar guztiaz eta bihotz osoz maitatzea,
baizik eta zuk ni bihotz osoz eta indar guztiz maite nauzula.
(Jn 13, 1)

Ez da nik neure buruari adore ematea,
baizik eta zure sua nire hezurren barnean su bizia dela.
(Jer 20, 9)

Zeren eta nola bila zaitzaket, zuri dei egin, zu maita,
zeu nire bila ez bazabiltza, zuk lehenengo maite ez banauzu?

Esker oneko isiltasuna da nire azken hitza
eta nik zu aurkitzeko erarik onena.

Benjamín González Buelta

GAUR ERE, ZORIONAK

Zorionekoa zu,
Elizatik urruti bizi direnen, sinesgabekoen,
zure fedearen aldean tradizio ezberdinak dituztenen
bidera ateratzen zarenean.

Zorionekoa zu
behartsu eta atzerritar jakinduria ezberdineko
gizon-emakumeekin bizitzeko
proiektua egiten baduzu.
Zorionekoa zu,
zu maitatzeari uko egiten diotenak ere
maitatzeko gai baldin bazara.

Zorionekoa zu,
aurrean daukazun norbaitek
ez dituela zure ideiak onartzen jakinda,
zuk uste duzuna xaloki azaltzen diozunean.

Zorionekoa zu,
gizartean, koadrilan, elizan,
ezagutua eta aitortua dadin,
edonori bere iritziak esateko
lekuak eta abaguneak eskaintzen dizkiozunean.

Zorionekoa zu,
erantzun txarren beldurrik gabe,
eroapen handiz lagun hurkoaren bila
pauso txikiak ematen jarraitzen duzunean.

Zorionekoa zu,
daramatzazun borroken artean
koherentzia egon dadin ganoraz jokatzeko duzunean.

Zorionekoa zu,
zeure burua egunero
Jainkoaren eskuetan ipintzen baduzu.

Zorionekoa zu,
etenik gabeko itzaropena erakusten duzunean:
hurkoaren eta Jainkoaren bihotzera daraman bidea
aurkituko baituzu.

Zorionekoa zu, hori guztia egingo duzunean.

Jean Charles Thomas

GEHIENONTZAT LURRA ETA BIZIPOZA

Lurra dut kantakizun:
landu dudan lurra, izerditan hazia erein diodana.

Lurra dut kantakizun:
hazia fruitutan bilakatu didan emazte emankorra.

Lurra dut kantakizun:
ukitu bakoitza oihartzun oparotan erantzun didana.

Pobre gara. Zenbat eta harroago, pobreago gara.
Pobre gara, pobre garela etsitzen ez dugun arte.
Gero, libre gara.

Maite dut bizitza, maite dut,
eta bizipoza opa diot bizitzari.

Bizipoza opa diot bizi naizela dasaidan kontzientziari.
Bizipoza bizirik dakusadan inguruari.

Bizitzaren grazia bizi duen
bizidun orori opa diot bizipoza.

(...)

Bazekien Hark piperrik balio ez zuten arlotan ari zena.
Gizaseme gehientsuenen
zori arrunteko esparru apala zuen maite.
Existentzia soilaren barrutian nahi zuen
gehientsuenen zoria biziki bizitu.

Gehiengoaren zortea zen sakonkienik hunkitzen zuena:
inor askok jakin gabe jaio,
inor askoren berritara heldu gabe bizi, eta,
inor askok jakin gabe hil.

Gehiengoaren pozaldi txikiz poztu,
gehiengoaren neke luzeetan parte hartu,
gehiengoaren etengabeko esperantzari begiratzuz
aurrerantz jo.

*Hala egin zuen Jesusek.
Hala egin nahi dugu guk ere.*

Bitoriano Gandiaga

GERA ZAITEZ

*Gera zaitetz, Jauna, iluntzen ari du,
bidea luzea da eta nekezia, berriz, handia.*

Gera zaitetz zure hitz biziak esatera,
burua lasaitu eta arima pizten duten hitzak.

Gorde ezazu artega gure bihotz motela,
uxa itzazu gure zalantza eta beldurrak.

Begira iezaguzu zure argi eta bizitzazko begiez,
itzul iezaguzu adore galdua.

Senda itzazu gure oin nekatuon zauriak;
esna gaitzazu, keinu gizakoiez, bizitzara.

Gera zaitetz eta garbi itzazu gure aurpegia eta erraiak;
erre ezazu tristezia hau, emaguzu itzaropena.

Gera zaitetz, Jauna, parteka ezazu gure janaria
eta, eramanpenez, erakuts iezazkiguzu zure irakaspenak.

Zatitu iezaguzu zure laguntasunaren ogia;
ireki iezazkiguzu gure fede lotiaren begiak.

Izan ere, zure hitzetatik sortu baita guk nahi duguna,
bidean ikusi baitugu, zure ondoan.

Gera zaitetz eta berbizi itzazu baloreak eta ametsak;
emaizkiguzu zure bizipoza eta bakea berriro.

Eraman gaitzazu beti mundura, bizitzara,
besteen aurpegian ikus zaitzagun egunero.

Florentino Ulibarri

“GERTA BEKIT” HARTATIK

*Egunsentiarekin batera, Jauna,
indarra ematen diguzu eta itxaropen lasaia,
“fiat” esan dezagun Mariak bezala.*

Gero, betikoa datorkigu:
egunerokoaren monotonia,
esperientzien errepikapena.

Jauna, ordu asko eman ditugu klaseak prestatzen,
bileretan, programazioak egiten,
ariketak antolatzen,
gure ordua noiz helduko den itxaroten.

Ordu grisak eman ditugu
haur eta nerabeen oihu eta barrearen
oihartzunaren baitan,
egunero jolastokiak eta gelak
bizitasunez betetzen dituzten orduan.

Zuri esker bizi dugu, Jauna,
hezitzaile-bokazio hau alaitasunez;
haur eta gazteei entzutea
zure onberatasunaren eta errukiaren ikurra baita.

Jesusen Ebanjelioa Berri Ona da oraindik ere.
Beraz, has gaitzen beste zerbait bizitzen, guzti-
guztia berria baita.

Jainkoak bere ardorik onena eskaintzen du.
Bihotz-berri zaitzete eta sinetsi Berri Ona!
Onar ezazue Espiritua ereiten ari den berritasuna.

Beste “aldi” bat bizi dugu:
alaitasunaren eta bizitzaren Jainkoaren errebelazioa,
eta guri dagokigu Jainkoaren asmoekin bat egitea.

Espirituak bila dabilenaren jarrera eskatzen digu,
sor ditzagula diszernimendurako gune eta prozesuak,
hausnar dezagula Jainkoaren Hitza astiro.

Maria gurekin dago, gurekin egon da
heziketa lana gure begien horizonte estutik haratago
eraman eta eramaten dugunean.

Goazen, bada, haur eta gazteekin bizitza ospatzera.
Utz ditzagun betiko bideak.
Gauden udaberriaren albari begira,
Mariaren ahotik entzun ahal dezagun:
“Egin Jesusek esango dizuena!”

*Horrela bukatuko da “magnificat” eder batekin
hasierako “fiat” beldurti hura.*

GEZA NATORKIZU

Geza natorkizu, Jauna,
erpil lehor bat bezala,
bihotza iro dudala.
Baina hemen natorkizu,
baibaitakit hala ere
zuk onartuko nauzula.

Zure gogoa ta zure
gozoa nabaritzea
zein den gauza atsegina!
Agorte honetan badut
ezagun ditudan dohain
horien urruti-mina.

Bitoriano Gandiaga

GIZAKIAREN ETORKIZUNEAN DAUKADAN FEDEA

Munduaren gau honetan eta beni onaren zain gaudela,
ausardiaz bai esaten diot
gizakiaren etorkizunean daukadan fedeari.

Giza izakia bizitzaren uholdeak
astinka daraman lasto izpi bat hamo ez dela,
gertaeren uholdearen aurrean
ez dezakeela apur ñimiño baten eraginik ere izan,
ezin dut sinetsi.

Bakearen eta anaitasunaren egunsenti distiratsua
ez direla inoiz ere etorriko,
hainbestearino baitago gizakia izanik gabeko gauean preso,
ezin dut sinetsi.

Egia eta baldintzarik gabeko maitasunak
dutela azken hitza, sinsten dut;
biziak, une batez azpiratua badago ere,
heriotzak baino indartsuago baitirau.

Zirt eta zart ari diren bonben artean ere,
eta kanoien trumoikadaren erdian,
goizalba hobe baten itxaropenak irauten duela,
itsu itsuan sinesten dut.

Egunen batean, lurreko biztanle orok
gorputzaren biziraupenerako
egunero hiru janaldi egin ahalko dituela,
espirituaren osasunerako
heziketa eta kultura jasoko dituela,
eta bihotzaren bizigarri,
berdintasuna eta askatasuna eskainiko zaizkiola,
sinestera ausartzen naiz.

Sinesten dut baita ere,
egunen batean, gizaki orok, Jainkoagan,
maitasun iturria ezagutuko duela.
Egunen batean onginahi salbagarria izanen dela lege,
sinesten dut.

Otsoa eta arkumea elkarrekin lotaratuko direla,
gizaki orok bere pikondoaren itzalpean
edo bere mahastian lasai eseri ahalko duela,
inork ez baitu beldur izateko arrazoirik izanen.
Itsu itsuan sinesten dut irabaziko dugula.

Martin Luther King

GIZON BERRIAREN SALMOA

*Eskerrak damazkizugu, Jauna,
egiazko zorionaren bidea erakutsi diguzulako;
zure bidetik abiatzen bagara bakarrik izango gara zoriontsu,
zu baitzara gure bizitzako altxorra.*

Jauna, erakutsiezaguzu
bihotz garbitasunaren edertasuna,
ez dezagun faltsutu maitasuna,
Ebanjelioari leial izan gakizkion.

Jauna, profetak zioen bezala
amaren sabeletik hautatu gintuzun,
eta zeure graziaz egin zenigun deia.
Egin gaitzazu gure dohainak ezagutu
eta ongi erabiltzeko gauza.

Jauna, irakasleari irakatsiezaiozu irakasten,
animatzaileari emaiozu adorezko hitza,
zure berba nire urratsen argia baita,
eta negua datorkigunerako beroa.
Jauna, oinutsik ekingo diot bideari,
zure bihotzaren maitasuna beste ondasunik gabe,
zu baitzara nire ondare bakarra.

Jauna, erakutsiezaguzu bakezaleen indarra,
egin gaitzazu bakearen langile,
egin gaitzazu justiziaren, egiaren
eta maitasunaren maitale.

Jauna, erakutsiezaguzu zugana ez doazen bideak
alferrikakoak direla,
zurekin bakarrik gaindituko ditugula
askatasunerako bidean eragozpenak.

*Eskerrak damazkizugu, Jauna,
gizon-emakume berriak izatera deitu diguzulako,
maitasunean oinarrituriko Eliza berri baten sakramentu.*

GIZONAREN ALDE

*Kantatzera noa gizona,
gizona soilik.*

Koldarrok, estali argizariz belarriak.
Axolakabeok, eman bizkarra.
Ez naiz isilduko horregatik.
Ez naiteke isildu, ez eta begietara
eskukada bat arrosa botako bazenidate ere.

Ez mendigain ez egunsenti
ez dago kiskali gabe utziko nukeenik
babesgabe bakar bat bera
lokatzatik jasotzearen truke. Ezinezkoa!
Itsu bati begirada, atsekabetu bati itxaropena
itzultzearen; edo, lurreko zapalduenari
minutu bateko poza eramatearren, besterik gabe,
zeruko izar guztiak itzaltzeko prest nengoke.
Gizona soilik zait axola, gizona ez besterik.
Haren mugarik ez duen hutsa,
haren txirikorda bakarrean bildutako
ausardia eta izua.
Ezin erantzuneko galdera kateari korapilatua,
betidanik zalantzak jotako haren arima galdekaria;
Jainkoaren eta Ezerezaren erdibideko haren egoera,
eta tristurari aurre egiteko duen haren ezina.

Gizonagatik soilik, gugatik, anaiok, gu, burudunok,
gu, logalduok eta zapalduok,
jarraituko dut ate itxi iltzatuan jo eta jo.
Jarraituko dut baztertutako ahots guztietatik,
ezagunak diren izen guztietatik,
izan diren eta etorriko diren guztietatik,
jarraituko dut erreguka eskean.

Eta keinuak oraindik kemena duen bitartean,
zain daukadan lur elkor honetan,
eta ezagutzen ez nauten izar hauen pean
agerian jartzen dut zauria,
neurea eta zeuona,
mundua bezain zahar eta mingarri,
ea Jainkoak badakusan,
ea sendatuko duen grazia tanta bat baden.

A. Malo Uceta

GOI-GOIKOAREN ATERPEAN

Goi-goikoaren aterpean bizi zaren horrek,
gaua Ahaltzuaren itzalpean ematen duzun horrek, esazu:

*“Oi Jauna, zu ene babesleku eta gaztelu;
ene Jainko, zuregan dut uste on!”*

Begiak zure Jainkoarengana jaso
eta, laguntza eske,
zeruari begiratzen diozun horrek, esaiozu Jaunari:

*“Ene besarkada, ene etxe,
gauerako zorioneko sabai,
su eta supazter,
afari luze eta gozo,
ene Jainko, zugan geldituko naiz”.*

Bidean bakarrik zoazelako
begiak iluntasunez beteta dituzun horrek,
izua bakardadean
eta heriotza arnasten duzun isiltasunean
xurgatzen dituzun horrek, esaiozu Jaunari:

*“Ene argi, ene musika,
ene bizi, ene bake dizdizari, ene presentzia ozen,
ene Jainko, zugan dut uste on”.*

(...)

Berak libratuko zaitu ehiztariaren saretik
eta izurri galgarritik.
Zeure buruaren loturetatik askatuko zaitu,
zeure sareen korapilotik.

Zeure buruaren hesietatik aterako zaitu,
espazio zabalak erakutsiko dizkizu
goizero aurkitu dezazun,
herriko plaza zaratatsuan,
bertako seme-alaben murmurio gero eta ozenagoetan.

Bere hegalean emango dizu gerizpe,
Haren lumapean izango duzu babesleku,
senideen berotasuna eginda zure berotasun.

Ez diozu beldurrik izango gauaren izuari,
ez gau itxiari.

Ez espantuak, ez izurriteak, ez geziak
ez zaituzte inoiz gaindituko,
Jauna hartu baituzu babesleku, Goi-
Goikoa bizileku.

Etorriko dira gaixotasuna eta zorigaitza,
iluntasunean eta gerra-hotsean,
etorriko dira, oinazez jantzita, etsaiak, bekozko,
baina ez zaituzte gaindituko.

Jainkoak ez ditu laburrago egingo egun tristeak,
ez dizkizu bidetik kenduko oztoparriak;
baina eskutik hartuko zaitu
zure oinak behaztopa ez dezan harrian, gizon-
emakume izatearen bide malkarrak
Haren besoetatik inoiz ere urrundu ez zaitzan.

(...)

*“Niri atxikia dagoenez gero, onik aterako dut,
toki seguruan jarriko, aitortzen nauelako;
dei egitean, erantzun egingo diot.
Bizitzako larrialdiak pairatuko ditu,
baina hurbilean izango du nire eskua.
Defendatu egingo dut, goratu...
Eta ibilbidearen neke gorrian
neure salbamena gozaraziko diot.”*

Florentino Ulibarri

GOIZEKO OTOITZA

Munduaren goiz-alba.
Izan zen arratsa, izan zen goiza.
Zu zara hasiera guztien sortzailea.
Zu zara goiztirien Jauna.
Zu zara munduko lau goizen Jaungoikoa.

Zeruari eta lurrari hasiera eman zenienean,
zure aurrean lurraren seme eta alabak
zutik eraiki zenituenean.
Hura izan zen lehen goiza.
Giza bizitza bizitzeko
Jainko-mugak gainditu zenituenean,
Haur-Jainkoarekin
mundu berria hasi zenean.
Hura izan zen bigarren goiza.

Eta Pazkoko goiz-alba jaiki zen.
Orduan guk bizi dugun berpizte bizitza
gertatu zen Jesus.
Goiz-alba berri baten zain oraingoan ere.
Hura izan zen hirugarren goiza.

Marana tha!
Zatoz, Jesus Jauna, Alpha eta Omega,
Lehena eta Azkena,
Hasiera eta Amaiera.
Zatoz! Zu izanen zara munduaren azkena
Eta gu jaio garen
Munduarentzat hasiera.
Hura izanen da laugarren eta azken goiza.

Betikotasun osoan ordea, Jauna,
Zu zara goiz guztien Jaungoikoa.

André Sève

GORDEKETAN

Jolas egin ote dezaket zurekin, Jainko?
Xake, mus, pilota, saski baloi, futbol?
Gordeketan!

Bertan ditudan zuhaitzak, asfaltorik gabeko herria,
mendian gorako basoa, zeru urdin astuna,
eta zeru urdinaren garbitasun distira.

Gizakia, basoa, mendia, zerua...

Maitagarri!

Zurekin gordeketan jolas egin dezaket, Jauna?

Artearen basoan, artea:

airera ateratako erroan giza burua zizelatu balu bezala,
adar ihartu hautsian txakurraren burezurra...

Zibilizazio zahar baten harresiak.

Urik gabeko erreka zuloak...

Mila mamu, mila irudi, mila presentzia...

Jolas dezagun bai, gordeketan, adiskide Jainko.

Iokin Otaegi

GORPUTZAREN BAITAN

Nire gorputzaren baitan ilargia dizdiz ari,
nire begi itsuek ezin ikusi ordea.
Nire baitan dago ilargia,
eguzkia ere bai.

Inork jotzen ez duen Betiraundeko atabala
nire baitan ari da.
Baina nire belarri gorrek ezin dute entzun.

Gizakiak Nia eta Nirea baino irrikatuko ez duen bitartean,
bere egiteak hutsalak izanen dira.
Nia eta nire aldeko maitasun oro amaituko denean,
orduan egingen da Jaunaren nahia.
Egiteak Ezaguera lortzea beste helbururik ez baitu.
Ezaguera azaltzen denean, akabo egiteak.

Fruiturako loratzen da lorea.
Fruitua datorrenean, lorea zimeldu egiten da.

Oreinean dago musketa,
baina oreina ez da bere baitan horren bila ibiltzen.
Belar artean dabil bila harat-honat.

Kabir

GURE AITA ZAITUGU

Zeure seme guztiei berdin begiratzten diezun Aita,
gure Aita zaitugu, guztiona,
lurbira betetzen dugun sei mila milioi pertsonena,
dena delarik ere gure adina, kolorea edota jaioterria.

Bedeinkatua izan bedi zure izena
guztien bihotz baketsuetan,
gizon eta emakume, haur eta agure,
hemengo zein hangoetan.

Etor bedi zure erreinua.
Bake eta maitasun erreinua,
zuzentasun, egia eta askatasun erreinua.

Egin bedi zure nahia,
beti eta nazio eta herrialde guztietan.
Ez bitez deseginak izan zure bakebideak
tirano eta bortizkeriaren eraginez.

Emaguzu egunean eguneko ogia,
bakez, justizia eta maitasunez oretua.
Urrundu gugandik bekaizkeria eta zatiketa
elikatzen duten irakia eta gorrotoogia.

Barkatu guri
ez guk barkatu ohi dugun bezala,
baizik eta Zeuk ohi duzunez,
erresuminik gabe, isilpeko gorrotorik gabe.

Ez utzi gu tentaldian erortzen,
aurrez aurre dugunari errezeloak begiratzeko tentaldian,
geure anaia behartsuez ahazteko tentaldian,
besteek behar dutena geuretzat pilatzeko
edota besteen bizkar geure ongizatea bilatzeko tentaldian.

Gorde gaitzazu mehatxatzen gaituen gaitzetik,
boteretsuen berekoikeriatik,
goseak, gerrak eta armek dakarten heriotzatik.
Zeren, asko baikara, Aita,
bakean bizi, eta guztientzat bakea eraiki nahi dugunak.

GURE AITA, ERBESTEAN ZARENA

Gure aita, zeruetan eta erbestean zarena,
zer esanen diegu buruan tirokatuei,
zer esanen diegu labeetan erretakoei,
zer esanen diegu ziegetan lurperatuei,
zer esanen diegu torturatuei, ezabatuei,
zer esanen diegu haien ondorengoei,
zer esanen diegu historiaren hondakinei,
zu izanik den ororen lehena eta zentzua
zure baitan balego giza-destinoaren giltza
esaiguzu, zer esan behar diegu haiei
iraindutakoei, odoldutakoei, apurtutakoei,
emaizkiguzu kaddish baten hitzak
requiem batenak hala behar ezkerro
esaiguzu non leudekeen errukia, salbabidea
otoitzak, arrenak, doluaren sendagarriak,
adi gauzkazu, adi beti ahuspezkatuak
zure gurutze salbagarriaren aterbe aurrean
gure aita, sufrimenduaren egoitzetan zarena.

Xabier Lete

GURE AITA, NIRE IKASGELAN ZARENA

Gure Aita, nire ikasgelan zarena
heziera iharduera emankor eginez,
santu izan bedi zure izena,
zu bakarrik baitzara Nor
beti goretsia izateko.
Etor bedi zure erreinua,
bake eta maitasun erreinua. Izan
bedi nire erreinua, Jauna,
pertsonekin eta
bihotz gozokoekin egotea.
Ebanjeliza nazatela, Jauna,
nire ikasleek.

Egin bedi zure nahia gure bizitzetan.
Zure aita eskuetan hartzen
dugu atsedena lasai.

Emaiguzu gaur egun honetako ogia,
ez dezagula haren falta nabari
ez guk, ez gure ikasleek ere.
Baina batez ere zure ogia.
Zeu zara egiazko Ogia
gure elikadurarako zerutik jaitsia.

Barkatu gure eguneroko zorrak,
axolagabekeriak eta akatsak.
Urrundu ezazu gure ikasleak
zugandik aparta ditzakeen oro.

Ez gu tentaldira eramanez:
ohikeriara, zabarkeriara,
erosokeriara eta menderatu nahira.
Emaiguzu dena ulertu eta
barkatzen duen zure maitasuna.
Amen.

GURE BENETAKO ABERRIA

Gaur, Jauna, egun berri bat eskaintzen zaigu,
bizitzaz, itxaropenez, aukeraz betea.
Zure atzetik zu zauden tokira joan nahi dugu,
eta zure presentziaz gozatu,
argiz beteta, edo ilun;
gizon-emakumeen bake-ametsetan jarraitu nahi dizut
zure egarriz dauden bihotzetan,
bizitza maite dutenen ezkutuko bizilekuetan,
zure bideak xuxurlatzen dizkigutenen ahots barnekoian,
lan gogorrean eta atsedenen lasaitasunean,
egunaren argitan eta bideko itzaletan,
harkaitz sendoenetan eta iturburuetan,
baso eta estepan, ibar eta mendietan,
kreazioaren tapizaren hedaduran,
lagunekiko topaketan,
alaitasun eta protesta kantuetan,
maitasunaren eskakizunetan,
neurri gabe ematen direnen aurpegietan,
bidea egiten dutenen oin nekatuetan.

Jauna, lur hau zure etxea da, zure egoitza,
Birsor ezazu gure bihotza, sutsuago maita zaitzan,
garbitu gure aurpegia, zure egiak dir-dir egin dezan,
gida itzazu gure oinak,
zure bideari ekin diezaioten beldurrik gabe,
eta ireki gure zentzumenek
zu, mugarik gabeko erromes, gure aberria,
gure helmuga eta atsedeen zarela senti dezaten.

Florentino Ulibarri

GURE ELKARTEA IZAN BEDI BERRI ON

Jauna, gure elkarte izan bedi berri on!

Gure elkarte irekia,
sinesbera, anaikorra, izan bedi, Jauna,
zure Espirituaren pozetan murgildua.

Izan bedi elkarte sutsua,
ogiari eta ardoari abesten dakien elkarte,
misterioa onartu eta Erreinua aldarrikatzeko misioa
alaitasunez bereganatzen duena.
Laguniezaguzu aurpegian irria islatzen,
erraietan bizipoza eramaten,
bihotza jai-giroan jartzen,
eta zoriona ager dadila
gure larruazalaren poro guztietan gainezka eginez.

Gure arteko arazoek
| tentsio, ezberdintasun eta gatazkak | ez
gaitzatela kokildu.
Egizu gure pobrezian eta ahulezian
gure bihotza irekitzeko gauza izan gaitzezela,
| partekatuz, emanez |
bere burua aberasten duenaren ilusioz,
pozik sentitzen denaren asetasunez.

Zure elkarte honi emaiuzu umore onaren betea,
bakearen aldeko kantuan jardun dezan
indarkeria eta ankerkeria sasoi honetan.
Egizu egoera zail, anbiguo eta ekibokoak
desdramatizatzen ikas dezagula,
kontsolapena eta itxaropena erein ditzagun
sufritzen dutenen malkoen alorrean.

Egin gaitzazu aditu
korapiloak askatu eta kateak hausten;
egin gaitzazu aditu
zauriak sendatu eta samurtasuna ematen,
ildoak ireki eta hazia ereiten,
egia erakutsi eta justizia defendatzen,
itxaropenaren argia piztuta gordetzen.

Egizu, ikusten eta sentitzen gaituztenentzat
zure berri onaren lekuko izan gaitezela,
bizipoza, festa eta barrea dohainik eta ugari izan ditzaten.

Florentino Ulibarri

GURI ERE DEITZEN DIGUZU

Jauna, Abrahami deitu zenion bezala
deitzen diguzu guri ere,
gure asmoetatik kanpo gelditzen den lurralde batera
abiatzeko.

Abrahami bezala, guri ere, arrastiriko isiltasunean
gure izenez deitzen diguzu,
eta gure baitaren sakonenean
zure ahotsa eta presentzia ozenagoak, hurbilagoak
egiten zaizkigu.
Abraham bezala, gu ere “bai” esateko beldur gara,
baina badakigu bidea egiteko indarra
Zugandik etorriko zaigula.

Abrahamek bezala, guk ere oihartzun gisa
entzuten ditugu zure hitzak:
“Tira, ez izan beldur,
zurekin izango bainauzu gidari
bide berriak irekitzeko.
Atzera egiten baduzu ere
nik ez baitzaitut inoiz eskutik utziko”.

GURTU ETA IZAN USTE ON

Bizitzaren zailtasunak direla eta, ez kezkatu.
Bizitzaren gorabeherengatik, dezepzioengatik,
etorkizun ilunagatik, ez kezkatu.
Jainkoak nahi duena, zuk ere nahi.

Kezka eta arazo artean,
emaiozu oparitzat zure arima xumea
bere probidentziaren asmoak onartuz.

Ez du axola handirik
zeure burua porrot egina ikusteak,
baldin eta Jainkoak guztiz osotua,
bere atseginekoa ikusten bazaitu.

Gal zaitez, uste onez eta itsu-itsu,
beretzat nahi zaituen Jainko horrengan.
Zuregana iritsiko da, nahiz Hura zuk inoiz ez ikusi.

Zenbat eta ahulago eta tristeago aurkitu zeure burua,
Haren eskuetan zaudela pentsa ezazu
orduan eta indar handiagoz eutsia.

Bizi zoriontsu, arren! Bizi bakean!
Ez zaitzala ezerk eralda.
Ez neke psikikoak, ezta erru moralak
ez dezala zuri bakea kentzeko ahalmenik izan.

Sor dadila irribarre gozoa zure baitan
eta iraun dezala beti aurpegian
Jaunak etengabe egiten dizun irribarrearen isla.

Eta beste ezer baino lehen,
jar ezazu zure arimaren hondoan
Jainkoaren bakeaz beteko zaituen oro, Energia
iturburua eta egia irizpidetzat hartuta.

Bizitzaren legeen
eta Jainkoaren agintzarien izenean
larritzen eta kezkatzen zaituen oro
faltsua dela ziurtatzen dizut.

Horregatik, goibel eta triste sentitzen zarenean,
gurtu eta izan uste on!

Teilhard de Chardin

GUZTIOK HEZITZAILE

Haur batek begiak zerura jaso eta, izar baten dirdiran,
fede eta itxaropenaren hazia sentitzen badu...
hezitzaile batek norberekeria zapuzten lagundu
eta samurtasuna irakatsi ziolako da,
zaude seguru.

Begien beroa ematen badigu
eta lagunak bere eskua luzatuz baten batek
jendearen irribarrea gure bihotzean pizten badu...
hezitzaile batek maitasuna
irrika baino handiagoa dela irakatsi ziolako da,
zaude seguru.

Noizbait haur baten laztana jaso
eta, barrutik, hobera egiteko
gogo bizia sentitzen badugu...
hezitzaile batek samurtasun, ontasun
eta eramanpen historia irakatsi zigulako da,
zaude seguru.

Zientziak, urratsez-urrats, munduaren misterioak aurkitu
eta teknikaren aurrerapenik sofistikatuenekin batera
sendakuntzak mina arindu eta bizitza luzatzen badigu ...
hezitzaile batek zientzilari, teknikari eta sendagileei
jakituriaren eta zientziaren
erro eta fruituak irakatsi zizkielako da,
zaude seguru.

Bi arima, bekoz beko, eta eskutik hartuta
musu batez zigilaturiko "bai" arduratsuan lotzen direnean...
hezitzaile batek beren burua ukatu
eta besteei emanak bizitzen irakatsi zielako da,
zaude seguru.

Marco S. López

HARANTZ

Zure ihesaldian ezin harrapaturik
eternitateko pertsekuzioak emanen dit betea.

Asma dezaket, planifika, zain egon,
lan dezaket etortzekoa dena.

Etorriko zaidan hura
ez da ordea behin ere
osa nazakeen oso hura.

Nire barrena hala da haziko
ezen irabaziko baitut.

Eta nire lotura alienatzaileetatik askatuko naiz.
Nire izaerak lotzen nauen kateetatik askatuko.

Historia, lotuta daraman kateetatik askatuko da.
Idea, gertakizun kateetatik askatuko den bezala.

Askatuko.
Nire gun e eta ardatza ez baita
nire gurpiletara mugatzen.
Ihesi doa nire gurdibidetik harantz.

Iokin Otaegi

HARRESI ZULATUEN KONPONTZAILE (Is 58,12)

Etxea erortzen ari zaigu,
leihotik begira une oro,
gure mugak ongi ezarri nahian
harresiak bakarrik eraiki ditugu.

Etxea erortzen ari zaigu
gaixotasun latz batek
gure horma ederrak jan ditu.
Norbaitek ohartarazi zigun,
baina badakigu gehiegizko burokraziak
gestioak zaildu egiten dituela.
Ikuskariak iritsi zirenerako, horma bat erorita zegoen,
zaurituak izan ziren eta orain
inork ez du nahi etxe honetara berriz itzuli.

Baina etxea erori zenean, batzuk harrituta gelditu ginen
ikusi genuen paisaiarekin.
Mugarik ez zegoenez,
batzuek jende berria ezagutzera irten ziren.
Batzuek ez ziren gehiago itzuli,
beste batzuek beraien etxeak dekoratu zituzten
kanpoan aurkitu zutenaren arabera.
Beste batzuek ate guztiak itxi zituzten.

Etxea erortzen ari zaigu.
Hots txiki bat entzuten denean, bizilagun batzuk
negarrez hasten dira, etxearen beste pusketa
eroriko delakoan.

Beste batzuk kexati bizi dira:
“Esaten nuen nik...”
“Banekien hau gertatuko zela...”
“Horren hutsegiteagatik erori da...”

Etxea erortzen ari zaigu,
baina bizilagun batzuk etxearen oinarrira
jeistea erabaki dugu.
Ondoren, solairuz solairu igoko gara,
ikusten dugun guztia apuntatuko dugu.
Bizilagunen batek lagunduko digu
gaizki egindakoak konpontzen.

Etxea erortzen ari zaigu eta aukera ona dugu
etxea guztiz berritzeko.
Hauts eta zarata ugari jasan beharko dugu,
“Harresi zulatuen konpontzaile” eta
“Etxe hondatuen berritzaile” deituko digute
erabaki dugulako gure etxea zutik mantentzea.

Elena Andrés

HARTU, JAUNA, ETA BIHURTU

Hartu, Jauna, gure beldurrak
eta konfiantza bihurtu.
Hartu, Jauna, gure oinazea
eta hazteko bide bihurtu.
Hartu, Jauna, gure isiltasuna
eta adorazio bihurtu.
Hartu, Jauna, gure krisiak
eta heldutasun bihurtu.
Hartu, Jauna, gure negar malkoak
eta erregu bihurtu.
Hartu, Jauna, gure haserrea
eta barruko indar bihurtu.
Hartu, Jauna, gure etsipena
eta fede gartsu bihurtu.
Hartu, Jauna, gure garraztasunak
eta bihotz baketua bihurtu.
Hartu, Jauna, gure bakardadea
eta eskaintza-otoitz bihurtu.
Hartu, Jauna, gure itxarotea
eta itxaropen bihurtu.
Hartu, Jauna, gure heriotza
eta pizkunde bihurtu.

HASI BEHIN ETA BERRIRO

Moteltzen bazara, gelditu egingo dira,
makaltzen bazara, kikildu egingo dira,
esertzen bazara, etzan egingo dira,
zalantzak hartzen bazaitu, etsiak hartuko ditu,
aurretik ez bazoaz, ez dira etorriko,
haiengan federik ez baduzu, ez dira zutik jarriko.

Lehen urratsa egiten baduzu,
zure aurretik joango dira;
otoitzari emana bazara,
Jainkoaren seme-alaba egingo dira.
Ni batekin hasi naiz, birekin, hirurekin...
hasi ere, sarritan hasia naiz!
Eta egunero ekiten diot bideari!
Behin eta berriro hasten jakin behar baita,
hasi behin eta berriro!

Joseph Cardjin

HELDU DA EGUNA

Gure izate orok bedeinkatzen du Jainkoa
eta ez ditugu ahanzten haren opariak.
Beti barkatu gaitu,
eta bekatutik ateratzen laguntzen digu.

Bizia eman digu
eta lehiarako grina.
Adorea ematen dio sufritzen duenari,
ura egarri denari.

Jauna ez da mendekularia,
ez da Jainko beldurgarria,
eta bihotz-berritzeko prest dagoenari
barkatu egiten dizkio hutsak, handiak izan arren.
Errukia bihotz handiko pertsonen
ezaugarria da.
Jaunak aita baten gisa zaintzen gaitu,
eta zain daukagu, galtzen garenean.

*Gorrotoa eta armak,
mendekua eta bekaizkeria,
tortura eta bidegabekeria
uxatzeko ordua da.*

José Serna

HEZTEA

Hezte txalupa bati
motorra jartzea bezala da...
neurtu, pisatu, orekatu egin behar da...
eta dena martxan jarri behar da.

Baina, horretarako,
norberaren ariman beharrezkoak dira
marinela...
pirata...
poeta...
eta kilo eta erdi
pazientzia.

Baina lanean ari garenean
txalupa hori, haur hori
uretan barna oso urrutira joango dela
amets egitea atsegina da.
Txalupa horrek gure hitzen zama
urrutiko ateetara, urrutiko uharteetara
eramango duela amets egitea.

Egunen batean gure txalupa
lokartzen denean,
txalupa berriek gure bandera
eramango dutela amets egitea.

Anai Fermin Gainza

HITZ HARAGITUA

Presentzia neurtezinak
gainezka egiten du
bizitzaren egunerokotasunean.
Atzematen nau baina atzemangaitza da.
Zer egin, Jauna, isildu besterik?
Zer egin, kontenplatu besterik?
Zure hitzaren betetasunak
itzaltzen du nire hitzen pobretasuna,
eta isiltasuna ari da bidea irekitzen nire ariman.
Nire hitzak isildu egiten dira
eta isiltasunean bakarrik
agertzen da zure presentzia presentea.
Eta isiltasun horretatik bakarrik
aldarrika zaitzaket,
esanezinezko hitzen bitartez:
irribarre
laztan
esku luzatu
harrera keinu
dei
begirada
presentzia hurbil
giza berotasun
agur
oroitzapen
isiltasunaren bitartez...
hitz haragituak den-denak,
konpromisozkoak,
sentituak,
biziak,
arimatik jaiotako hitzak,
hitz bene-benetan gizakorrak.

José Real Navarro

HONDAR ALEA

*Guri dagokigu hondar alea jartzea,
Jainkoak harribitxizko hiri hilezkorra eraiki dezan.*

Betebeharreko misio bat daukagu,
ezer gutxi iruditzen bazaigu ere,
hondar alearen antzera.
Ezin zimentarri izan
ez badugu gure burua jotzen hondar aletzat.
Ezin itsasoaren handitasuna kontenplatu
hondar ale ez bagara hondartzan.

Noizbehinka balentria handiak dira gure patua,
baina eguneroko hondar alea da harrigarria,
ez dezagun ahantz!
Noizbehinka leher eginda gaude
eta hondar alea jartzeko beste indarrik
ez zaigu gelditzen ariman.
Hondar ale anonimoa,
sufrienduaren zama daramaten pertsonen anonimatuan.
Hondar ale arbuiatua,
altxor ederra, halere, Jainkoarentzat.

Hondar ale arrunta,
maitasunak ezohiko egiten duena.
Inoiz ez dute santu aitortuko,
horra hor hondar alearen apaltasuna!
Inoiz ez dute hartaz idatziko,
horra hor hondar alearen ezereza!
Zeruko Aitak, ordea, maite du
hondar alearen bihotz xaloa.

Hondar alea, Mariaren “bai” xumea,
eta Nazareten aldatu zuen munduaren patua.
Hondar alea, hondar alea baino are txikiagoa zirudien
Belengo haurrak, Golgotako gurutziltzatuak.
Eta Espirituaren indarra zer da, munduaren begietara,
haizeak daraman hondar ale hauts hutsa ez bada?

HORREGATIK GARA ESKERRONEKO

Ama Lurrarenganako Biziaren Indarrei
zuzentzen diegu gure gogoa:
gure egarria ase, eta landareen bizitzaren indarra
eta ongizatea ziurtatzen duen urari;
edertasuna, estalkia, jantzia
eta janaria eskura ematen diguten abereei;
mota askotako fruitua eta aterpea damaiguten
itxura eta neurri guztietako zuhaitzei;
oinaze eta gaitzak gozatzeko
Egilearen aginduak betetzen dituzten sendabelarrei.
Biziaren Indar guzti hauei eskerrak ematen dizkiegu
Egilearen aginduak betetzen baitituzte.

Horregatik gara eskerroneko eta milesker diogu.

Lau Haizeengana doa gure gogoa.
Entzuten ditugu eta ikasten haien hotsak
eta oles dagiegu eta eskerrak ematen,
Egilearen hitza betetzen baitute beti hots hauek,
bai euria dakartenean,
bai Ama Lurreko urak berritzean,
bai lurreko haziak
udaberriko uraldi berrirako barreiatzen dituztenean.

Anaia zaharraren Lanarengana doa gure gogoa,
Eguneko Eguzkiarengana beraz.
Badakigu goizetik arratsera
Lurreko Zeruan ikuskizun den Eguneko Eguzki honek,
Lurreko sorkuntza guztiei bizitzako
iturria, indarra, argia, beroa ematean,
Egilearen hitza betetzen duela.

Ilargi Amandrearengana doa gure gogoa.
Gure munduan, gure Ilargi Amandreak
gaueko zerua argitzen du
eta bizidun guztien aroak antolatzen ditu,
Lur honetan biziak aurrera jarrai dezan
Egilearen hitza betetzen duelako.

Gaueko Zerura doa orain gure gogoan,
Eguneko Eguzkiari eta gure Ilargi Amandreari
Egilearen hitza egiten laguntzeko,
izarrez eta argizagiz betea baitago.
Eskerroneko gaituzue, bai auzoko baserrietara
edo eta urrutiko lekuetara goazela ere,
Zeruko argizagiek Lurreko gure bidea aurkitu dezagun
erakusten duten ganoragatik.
Eskerroneko gatzazkie zeren
beraiek kreazioko atalik zaharrenetakoak izaki,
oraindik ere Egilearen aginduak jarraitzen dituztelako.

Zomorrorik txikienetik bizidunik haundienera,
hegazti guztiei eta abere bizidun mota guztiei
aitortzen diegu gure eskerrona.
Sorkuntza barruan,
biziaren era guztiek badutela helburu bat
sinesten dugu, eta eskerroneko agertzen gara
Egilearen esanak jarraitzen baitituzte guztiek.

Eta orain, Egilearengana doa gure gogoan,
eta hitzik ederrenak aukeratzen ditugu
Egileari diosala egiteko,
eta eskerroneko erakutsiak eskaintzeko.
Eskerronez gaude,
Egileak Ama Lurrean eta Mundu Osoaren barnean,
gauza guztiek asmo bat
eta bere esanahia dezaten prestatu dituelako.
Eskerronez gaude, gizaki garenez,
Sorkuntza honetako atal garelako.
Eskerronez gaude, Sorkuntzako osagai orok
Egilearen esanak betetzen dituztelako
betiraundean eta sorkuntza osoan.

Kahniakehaka herria

HURBILTZEN BANAIZ...

Hurbiltzen banaiz...
ez dagoela hesiak jartzeko, mugak ixteko arrazoirik
konturatuko naiz;
bereizkuntzak ez duela zentzurik.
Ez dagoela fanatismorako, elkarrizketa eteteko arrazoirik;
madarikatzeak, epaitzeak eta gaitzesteak,
hiltzeak eta arrazakeriak ez dutela zentzurik.

Hurbiltzen banaiz...
badagoela zubiak egiteko, bakea emateko arrazoirik
konturatuko naiz, badagoela bakearen alde lan egin
eta kreaioa maitatu eta defendatzeko zergatirik.
Senide eta lagun izateak,
irribarreak, agurrak eta esku emateak,
etengabeko hobekuntzan jarduteak... baduela zentzurik.

Hurbiltzen banaiz...
badagoela bizirik jarraitzeko, elkartean bizitzeko,
besteek diotenari adi egoteko arrazoirik konturatuko naiz.
Zerbitzatzeak, maitatzeak, sufritzeak,
eta beste gauza askok... badutela zentzurik.

IKASI ERAMANPENEKO IZATEN

*Ikasi eramanpeneko izaten,
ikasi desertua.*

Ibili zeru-lurak kiskaltzen dituen
eguzkipean.
Ibili, eta segi ibiltzen,
gurutzatu dunak, txalupak uhinak
zeharkatzen dituen bezala.
Iritsi erreka baten ubide lehorrera
eta eskuez zulatu, ur bila, harea.
Edan, eta segi,
desertuko egarri itogarriaren oroimena bihotzean,
eta uraren freskotasun aurkitu berria.

Ordua jakin gabe
egunak eman,
eman denbora,
ezagutu gosea
eta ogiaren zapore zoragarria.

Eta itxaron,
beti gaudela norbaiten, zerbaiten zain
jakinaren gainean.
Itxaron ilunabarra,
itxaron gaua.
Itxaron izarren hoztasunaren ondorengo
egunsentia.

IRAKASLEEN ZORIONTASUNAK

Zorionekoak irakastera deituak,
Maisuaren oinatzen gainean ibiltzen baitira.

Zorionekoak bilera gelan
bakea eta harmonia ereiten dutenak,
haiena izango baita Jaunaren poza.

Zorionekoak gazteen bihotzetan
itxaropen haziak ereiten dituztenak,
egunsentia jasoko baitute.

Zorionekoak gaurko gazteen oihuak entzuten dituztenak,
Erreinuaren etorreraren zain baitaude.

Zorionekoak ikasle zailen ondorioz sufritzen ari direnak,
egunen batean beren arreta eskertuko baitiete.
Zorionekoak errukiaren eta enpatiaren ondorioz
beren eraginkortasuna murriztuta ikusten dutenak,
haiena baita ezkutuko heziketarik sakonena.

Zorionekoak ikasleen bidez
Jesusekin bat egin nahi dutenak,
bat egitea lortuko baitute eta poztu egingo baitira.
Zorionekoak gazteak bake
eta justiziazko bideetatik gidatzen dituztenak,
izarren moduan betiko argituko baitute.

Zorionekoak eskola elkartean
harremanak sustatzen dituztenak
eta kristau esperientzia bultzatzen dutenak,
beren proiektuek Erreinuko balioei erantzungo baitiete.

IRAKATS IEZADAZU

Zu hemen zaude,
nire barruan,
eta hortik bizi nauzu,
hortik ezagutzen nauzu,
hortik zure barrenera zeureganatzen nauzu.

Isil itzazu nigan
zure ahotsa ezkutatzen didaten ahotsak.
Aska nazazu nire lakioetatik,
nire amets eta irrits
neurekoietatik.
Senda nazazu barren-barrenetik.
Lagun egidazu Zu ez den guztia erauzten,
egiazko topaketa bizi dezagun.

Irakats iezadazu zure proposamenei esaneko izaten,
nitaz hustutzen,
nire "nia", bere tirania eta maltzurkeriarekin hausten,
zure presentziaz betetzen.
Irakats iezadazu mundu honetako jakituria arbuiatzen:
ez nazatela harrapa bere segurtasunek,
ez nadila abia zorion hutsalen atzetik,
ez nazatela liluratu bere egia iragankorrek.

Irakats iezadazu zure maitasunari
harrapa nazan uzten,
ezgauza eta miserablea naizen arren.

Irakats iezadazu, Jauna,
zure jarraitzaile leial izaten.
Emadazu zure Izpiritu santua,
zure amodiozko lanaren
jarraitzaile zintzo izan nadin.

José Real Navarro

IRAKATSI GURI, JAUNA

Jauna,
irakats iezaguzu,
geure buruak bakarrik ez maitatzen,
geuretarrak bakarrik ez maitatzen,
maite ditugunak bakarrik ez maitatzen.
Irakats iezaguzu besteak gogoratzen,
inork maite ez dituenak maitatuz lehendabizi.

Egiguzu, Jauna,
inoren oinazea geure oinaze egiten.
Ulertaraz iezaguzu zeure graziaz uneoro,
guk, zure babespean,
bizitza zoriontsuegia daramagun une berean, milioika
gizon–emakume daudela,
orobat zure seme–alaba eta gure senide direnak,
goseak hiltzen, horrela gosez hiltzea merezi gabe,
hotzak hiltzen, horrela hotzez hiltzea merezi gabe.
Erruki zakizkie, Jauna,
munduko behartsu guztiei.
Eta barka iezaguzu guri,
beldur burugabeagatik haiek bertan behera laga izana,
eta ez iezaguzu utz, Jauna,
zoriontsu izaten aurrerantzean gu geu bakarrik.
Sentiaraz iezaguzu mundu osoko miseriaren larria,
eta gu geugandik aska gaitzazu.
Hala bedi.

Raoul Follereau

IRATZAR GAITZAZU, JAUNA

Iratzar itzazu, Jauna, gure bihotzak,
askotan banalkerietan murgildurik baitauzkagu,
eta irrikaz maitatzeko indarrik gabe.

Iratzar ezazu, Jauna, gure ilusioa,
askotan alferrikako gauzetan ibili baita,
itxaroteko arrazoirik gabe.

Iratzar ezazu gugan, Jauna, zuganako egarria,
askotan gure antsiak asetzen ez dituen
ur mikatza edaten baitugu.

Iratzar ezazu gugan, Jauna, zuganako gosea,
askotan gose uzten gaituzten ahogozagarriak jan arren
ez baitigute aurrera egiteko indarrik ematen.

Iratzar itzazu, Jauna, gure zorion antsiak,
askotan dibertimendu hutsaletan galtzen baikara
zure promesen ezkutuko sekretuak ireki ordez.

Iratzar ezazu, Jauna, gure isiltasun antzua,
bizitzaren hitzak behar baititugu bizitzeko,
eta ez modaren eta kontsumismoaren lilura.

Iratzar ezazu gugan, Jauna, zu ikusteko grina,
asko baitira nekarazten gaituzten kezkek,
eta nahiago baitugu atsedena, erne egon ordez.
Iratzar ezazu, Jauna, gure fede lotia,
amesgaiztoak alboratu eta egunero
jai-giroan bizi gaitezen.

Iratzar ezazu, Jauna, zure hitz berria,
hainbat eta hainbat iragarki eta promesetatik askatuta,
zure Ebanjelioaren argia ekar diezagun.

Iratzar ezazu, Jauna, gure espiritua,
zenbait bide ezin baitira egin,
ez bada zure ezagutzaren begiez.

Iratzar ezazu, Jauna, zure su bizia.
araztu gaitzazu barrutik eta kanpotik,
eta irakatsiezaguzu iratzarri bizitzen.

Florentino Ulibarri

IREKI, JAUNA, NIRE EZPAINOK

Ireki, Jauna, ene ezpainok,
Zure aintza kanta dezadan.

Zaude adi, Jauna, nire murmurioari, nire hitzei.
Zure onginahiaren ugaritasunean,
ezaba itzazu, Jauna, nire hutsak.

Biziaren eta maitasunaren oparia egin didazu.
Horregatik noa Zugandik Zugana,
Zugandik ihesi, Zuregana.
Zure maitasunean babesten naiz Zure justiziatik.
Zure onberatasunak ateratzen nau onik
Zure zorrotasunetik.
Gogora zaitez, Jauna, Zure bihozberatasunaz.
Eta Zure ederraz, betikoak baitira.

Eta apaltasun bidea gogokoago bazaizu, Jauna,
hara, nire bihotza ez da puzten,
nire begiak ez dira handitzen,
ni ez nabil handikerien atzetik.
Ez eta niretzat gehiegikeria litzatekeenaren atzetik ere.

Itxaron ez baldin badut eta isilik geratu ez banaiz,
nire arima haurra amaren bularrean bezala dago nigan.

Isilik egotea goratzarre da Zuretzat.
Zugan daukat itxaropena, Jauna,
Zuk entzun egingo didazu.
Ez da hitzen ugaria Zuk gogoko duzuna.
Zu ez zara hitzen zirimolan ematen zarena.
Lur jota dagoenaren espirituan,
gogo-barrenaren ezkutuan,
bihotzaren samurrean baizik.

Nire indarrak ahituko direnean, ez nazazu utz.
Itzul iezadazu Zure salbamenaren poza.
Gogo suharrak eutsi nazala.

Bahâ'i fedea

IRTEN ZEN ABRAHAM

Irten zen Abraham basamortuan barrena
eta ezin zuen ikusi harea besterik;
egun asko, gau asko eman zituen bidean
eta urrutira, oso urrutira begiratzen
ikasi zuen.

Haren begiak

Agindutako Lurra bezain sakonak ziren,
azken hondar-muinoaren atzean zegoen
Itxaropen Berria bezalakoak.

Horizontea bezain luzea
egin zitzaion begirada,
begiak infinituan jarrita
lurra zapaltzen ikas zezan.

Gauero, orainaren hondar iheskorrean
jartzen zuen etorkizunaren
kanpadenda.

Eta goizero egiten zuen oihu: Lurra! Lurra!
itsasoan galduta dabilen marinela
bezala.

Eta bizitza egunetik egunera estreinatu behar zela
aldarrikatzen zuen,
gauza zaharkituek ez zeukatela tokirik etorkizunean.
Abrahamek ez zekien zehatz-mehatz nora zihoan,
eta horrela egin zuen heriotzara, Agindutako Lurraren bila,
jakin gabe Promesa bizkar gainean zeramala.

ISILDU, JAUNA, NIRE OTOITZA

Har nazazu, Jauna, zure isiltasunaren aberastasunean,
nire ariman guztia betetzeko gai den betetasunean.

Isildu nigan zurea ez den oro,
zure presentzia guztiz garbia, guztiz bakezkoa,
guztiz bakarra ez den oro.

Isildu, Jauna, nire irrikak, kapritxo eta gutziak,
ihes egin nahian ditudan ametsak,
pasioen eutsi ezinezko biolentzia.

Estali, Jauna, zure isiltasunaz
nire eskakizun zoro eta neurri gabekoen zalaparta,
nire kexaka ibili beharra.

Busti eta nahastu zure isiltasunaz
errazegi hitz egiteko dudan izaera urduria,
axaleko zaratari gehiegi emana.

Nire otoitzari ere bai,
esaiozu isiltzeko,
zuganako joera huts eta garbia baino ez dadin.

Jaits bedi zure isiltasuna
nire izatearen hondoraino,
eta igo bedi isiltasun berbera
zuregana, maitasun omenaldi.

ISILTASUNAREN EGOITZA

Hara nola jardun behar duen
Isiltasunaren Egoitza ezagutu ondoren,
salbazioaren atzetik dabilenak:
zaitez kementsu, goitik beherako, tinko,
baina onbera, adeitsu, harrotasunik gabeko.

Zaitez neurritsu eta apal,
ez trebe, bai burutsu,
joerak menderatuko dituen,
eta gutxirekin atsegin hartuko.

Izaki guztiei zorte on eta bake,
bitez denak zorioneko!

Direnak direla ere izaki bizidunak:
alderrai dabiltzala edo egoneko direla;
direla txiki, erdiko edo garai;
ahulak, sendoak edo indarreko;
agiriko edo ezkutuko;
hemen bertan kokatuak edo urruneko;
jaioak edo oraindik eratu gabeko,
bitez izaki guztiak zorioneko!
Ez du inoiz ere hurkorik iraindu behar,
nonahi dagoela ere, ez inor gutxietsi.
Ez du, aurrerakoan inoiz ere, haserreak eramanda
edo etsaigoagatik, kalterik eragin behar.

Amak seme bakarra bere biziarekin
babestu ohi duen bezala,
hala adoretu behar du bere gogoa
izaki ororen adimena hesi guztietatik askatzeko.

Onberatasuna barreiatu behar du
unibertso osoaren alde,
gorantz, beherantz eta zabaleran.
Gorrotoak eta etsaigoak mugarik ipini gabe,
garbi baizik.

Dagoela zutik, edo ibiltzen,
edo eserita, edo etzanda,
gogoaren egoera hau lortzen saiatu behar du.
Inoiz ere lasaikeriari biderik eman gabe.
Munduan egoteko Jainkozko era
deitzen zaio horrelakoari.

Metta Sutta

ISILTZEAREKIN BAKARRIK...

Isiltzearekin bakarrik aurkitzen zaitut,
isiltzearekin bakarrik aurkitzen nauzu.
Hain da gauza erraza eta xaloa!
Isiltzearekin bakarrik.

Hala bada, zergatik egiten zaigu isiltzea hain zaila?
Nire barrua beti dago kezkatu-rik.
Zarata arrotz eta urrutiek
hausten dute nire isiltasuna.
Iraganeko eta etorkizuneko hotsak eta ahotsak
herpeak sartzen dituzte...
eta zain dauzkat.
Isiltzearekin bakarrik aurkitzen zaitudanez,
irakatsiezadazu isilik egoten!
Zu hemen zaude,
nire barrenean.
Eta hortik bizi nauzu,
hortik xuxurlatzen dizkidazu zure Hitzak.

Itzal itzazu, Jauna, nigan,
zure hitza itotzen duten ahots arrotzak.
Aska nazazu ni neugandik,
nire irrits eta amets berekoietatik,
nire beldur eta antsi antzuetatik.

Senda nazazu barren-barrenetik.
Lagun egidazu nigandik
Zu ez den guztia kentzen.

Zure hitzaren betetasunak
itzal dezala nire hitzen pobrezia,
ito ditzala hots eta ahots arrotzak.
Eta isiltasun horren erraieran
bizi dekadala beti zure topaketa.

José Real Navarro

ITXAROPEN ZANTZUAK

*Itxaropen zantzuak, zure Erreinuaren seinale,
buztina gure eskuetan, maitasuna, ametsak.
Itxaropen zantzuak, bularra izenez eta aurpegiz
josita; zure herria, ene Jauna!*

Jauna, zuk deitzen gaituzu, gizon eta emakume,
zure bideetara, oinutsik, binaka,
Erreinoa ametsetan, Zuk nahi duzun mundua,
besoak beti zabalik, maitasunaren oparoan.

Buztinezko ontzietan daramagu altxorra,
agerian gera dadin zure indarra, Jauna;
pentsatzeak bakarrik dardarrean jartzen digu
bihotza, hain da sagaratua daramaguna!
Jauna, ezkututzen bazara, loak hartzen bazaitu txalupan,
barkatu gure oihua, ez da federik ez dugulako;
gauak, noizbehinka, zure urratsak ezabatzen dizkigu
eta zer egin ez dakigula hartzen gaitu beldurrak.

Itzuliko zinela esan zenuen, zain gauzkazu;
gure begiak urrutira begira daude, ikusiko zaitugulakoan;
luze daramagu itxaroten, argizaria itzaltzen ari da,
itzali aurretik, baina, seinale bat ematen diguzu.

Jauna, hemen gauzkazu, leial jokatu nahi dugu,
badakizu maite zaitugula, norengana joango gara?
zure mahastiko langileak gara goiz, arratsalde eta ilunabar,
zurekin afaltzeko gero: zer gehiago eska dezakegu?

Zure herriak ezkutuan zaudela erakusten digu,
gorderik pobreziaren sakramentuan;
zure herriak babes ematen digu, etxe eta aterpe,
etsi ez dezagun, ibilbide luzea gelditzen baitzaigu.

Germán Pravia

IZAN ZAITEZ, JAUNA

Jesus Jauna,
izan zaitetz nire gorputz higatuaren sustatzaile.
Izan zaitetz gau hurbilaren argi.
Izan zaitetz nire sufrimenduen kontsolatzaile,
Izan zaitetz nire iraganeko hutsen barkatzaile.
Izan zaitetz nire bakardadeko laguntzaile.
Izan zaitetz nire barne oldarren itxaropen.
Izan zaitetz nire fedearen iturri.
Izan zaitetz nire loezinen Presentzia.
Izan zaitetz nire irriaren samurtasun.
Izan zaitetz nire topaketen Hitza.
Izan zaitetz nire otoitzen Maite Kuttuna.

Jauna, Bizia zarela sinesten dut,
eta gainditu duzula heriotza.
Zatoz, dei egizu nire atera.
Eguna amaitzera doa, berandutzen ari da..
Gera zaitetz nire ondoan!

Michel Hubaut

JAINKO INDARGABEA SINESTEN DUT

Jainko indargabea sinesten dut,
Jainko ahuldua.
Ezinean dabilen, garaile ezin atera daitekeen
Jainko bentzutua sinesten dut.

Gizakoia bihurtzeraino
auzalagun bihurtu den Jainkoa sinesten dut,
eta eman diogun heriotzari esker
dago bizirik gure artean.

Boteretik gabeko Jainkoa sinesten dut,
gizon egina, torturatua,
arantzaz koroatua,
iraina beste erantzunik hartu ez duena.
Jainko indargabea sinesten dut,
besoak loturik dauzkan Jainkoa,
gizon ahaltzu eta subiranoekin
zer-ikusirik ez duen Jainkoa...
Esan duena ukatzen ez dakien
Jainkoa sinesten dut;
Jainko indargabea,
maiteminduen ezinarekin indargabetua.

Jainko berria sinesten dut,
berritasuna eskuan duena,
une oro maitasunaren esanetara
bizi dena.
Jainko eskuzabala sinesten dut,
maitasun gurutziltzatuaren Jainkoa,
pobreak beti ondoan dituen
Jainko pobrea sinesten dut.

Ezinean dabilen Jainkoa sinesten dut,
maitasunak lotua!
Boteretik gabeko Jainkoa sinesten dut,
Jainko pobre eta piztua!

E. De la Serna

JAINKOA GURE LURREAN BIZI DA

Jauna, zure ontasuna gogoratu nahi dut,
zure alde dihardutenen itxaropenari
inoiz huts egin ez diona.
Arnasa itzultzen diozu eroriari,
eta alaitasunez janzten duzu
zure maitasunaren erraietan murgiltzen den behartsua.

Gorespenerako arrazoi egiten dituzu gure miseriak,
zure solidaritate leialaren presentzia
jartzen baituzu gure minaren bihotzean.
Itzul itzazu begiak mundu honetako pobreengana!
Ez ote zara, bada,
bizitza hautsiak sendatzen dituen Jainkoa?
Ez ote zara kartzela, burdinsare
eta loturei gorroto dien Jainkoa?
Ez ote zara zuhaitz eroria zutiarazi
eta historiaren ibaia
zorion partekatuaren itsasora daraman Jainkoa?

Pozez gainezka daude nire belarriak:
Jainkoak lur honetako txikienei esaten die bere hitza.
Uxatu egiten ditu giza miseriaren hodeitzarrak,
eta salbamen horizonte hurbilak erakusten dizkigu.

Jainkoa, indartsuenen zapalkuntzara,
iruzurrera eta maltzurkeriara
lerratzen ez direnen ondoan dago.
Jainkoak adiskidetze
eta bake kantuak jartzen ditu gure ezpainetan,
gure ama lurraren errai minduetan ezkutaturiko
udaberri baten ernamuin.

Guztia da askapenerako bide, guztia!
Jainkoak berak laztandu baitu gure haragi ustelkorra,
eternitaterako hazien eroale egiteko.
Eta gizakia ez da gizakiaren etsai izango;
lurrak ez ditu bidean doazen oinak minberatuko,
Jainkoaren doaneko presentziak
bete eta ase baititu gizakia eta lurra.

Antonio López Baeza

JAINKOAREN BILA

Behar zaitut, Jauna!

Zu gabe nire bihotza lehortu egiten baita.
Otoitzean aurkitu nahi zaitut,
hain ezaguna zaidan zure presentzian,
isiltasunak zure aurrera eramaten nauen
une berezi horietan.

Zure bila jardun nahi dut, Jauna!

Zuk zeuk sortu duzun naturari
bizia ematen aurkitu nahi zaitut;
urrutiko horizonte baten
gardentasunean
–muino batetik begira–
edo bertako guztien taupadak
bere hostoez babesten dituen
basoko sakontasunean.

Inguruan sentitu behar zaitut, Jauna!

Zure sakramentuetan aurkitu nahi zaitut,
Zure barkamenarekin eginiko topaketan,
Zure hitza entzuterakoan,
egunero Zure erabateko ematearen misterioa
hausnartzen dudanean.

Barruan sentitu behar zaitut, Jauna!

Gizon-emakumeen aurpegietan aurkitu nahi zaitut;
nire senideekiko bizikizunean;
behartsuen premian,
lagunen maitasunean,
haur baten irribarrean,
jendetzaren zaratan.

Ikusi nahi zaitut, Jauna!

Nire izaeraren pobrezian aurkitu nahi zaitut,
eman dizkidazun gaitasunetan,
nigan bizi diren irrika eta sentimenduetan,
nire lanean, nire atsedenean,
eta egun batez, nire bizitzaren ahuldadean
zurekin aurrez aurre egotera
hurbilduko naizenean.

Teilhard de Chardin

JAINKOAREN ZAURI GUZTIAK

Jainkoaren zauri guztiak lotzea dagokigu guri orain.

Jesus, Kristo, gurutzetik askatzean, berpizt zaitez gudan,
historia guztia berpizt dadin
eta Gizaki guztia, eta Unibertso osoa.

Jaunaren berpiztea
Jainkoaren betiko nahiari bai esatea baita.
Baietzik ikusgarriena, sakonena, bikainena,
zirrara sortzen duena.

Hori baita Jainkoak nahi duena:
Kristorekin batera geu ere berpiztea.
Gudan guztia bizia dadin,
bizia, askatasuna, prestutasuna, heldutasuna eta poza.

Berpizte misterioaren bihotzean leher egiten duena
maitasunak heriotzak baino indar handiagoa duela da.

Bakardaderik bakarrenean, etsipenik sakonenean
zulotik askatu nauzu,
ez nadin neu ere bakar bakarrik hil.
Eskutik hartzen bainauzu pasabide horretan.

Zure lagun minei egindako bihozkada izan zen berpiztea.
Ez zen lau haizetara aldarrikatutako berria izan.
Ez zinen etsaiak itsutzera atera.

Bakoitzari egokitu zenion mezua.
Gizakiak unibertsoagandik independentzia lor dezan.
Hori baita kreazioaren egoera normala.

Horrela berrantolatu zenuen
Jainkoaren pentsamenduan betieran dagoen oreka.
Argi ikusten dut, zure berpizteaz, Jainkoak ez duela
unibertsoaren jaun izango den
gizakiaren askatasuna baino nahi izan.
Ez mendean hartzeko,
aldatzeko baizik izan gaitzen gai.
Maitasun eskaintzan itxuraldatzeko.

Maurice Zundel

JARRAI NIRI

Gizonek galdetu zidaten: “Zalantzarik izan al duzu?”
Nola izan zalantzarik, sentitu egin zintudan eta!
Nire oinaze larri gertatu baitzinen,
zuretzat burdina goriz zigilatua!
Gau eta egun lehiatu nintzen zurekin,
eta saiatu nintzen zure maitasuna ahanzten,
baina ezin.

Krisialdi bakoitzaren ondoren berriro agertzen zinen
etengabe “jarrai niri” esanez.

Zuk beste inork ez du jakingo
zenbat sufritu dudan, Jauna!
Eta ez ezazu inoiz ahantz
zein izan den nire bizitzaren drama:
“zure Maitasunaren eta nirearen arteko borroka”.

Cristina de Arteaga

JASO NAZAZU, MAITE, AZKEN EGUNEAN

Jaso nazazu, maite, azken egunean
har nazazu zure besoetan
muga izugarriaren ataria gurutzatzen dudanean,
bil ditzadala zuregandik ferekak eta irriak,

belaze goitarreko argitasunean
berreskura dezagula maitasun lehena
brisarak gure bekokiak zimurrez garbitzean,

nik dakit itxaroten didazula
ez dakit nola ez dakit non
baina helorduko berraurkitze hori
jainko baten mentura harrigarriak ez dezala saihestu,

zure hitzean bermatzen naiz
joan zineneko serenitate hartan,

jaso nazazu, maite, kitapen handiaren egunean,
ez dut itxaroten tronpeten doinurik
ez nagokie aingeruen abestaldeei,
zor hura barkatua izan al baledi
eta kulpa hura xukatua...
orduan nintzateke ni betirako zure
betirako on, orbanik gabea, duin,
orduan ginateke betirako elkarren,

jaso nazazu, maitea, azken egunean,
zatoz nire bidera eta adeitsu, irriz
dei nazazu nire izenez

ni zure erruki handian salbatua izan nadin,
salbatuak elkarrekin
eta maitasunean glorifikatuak betirako.

Xabier Lete

JAUNA DUGU LAGUN

*Jaunak bihotz zintzoa dutenekin egiten du bidea,
eta bazter uzten ditu dogmatikoak, menperatzaileak,
indarkeria zaleak.*

Jauna da argiaren eta biziaren bidea,
pizten gaituen txirrista xarmangarria,
marinela ekaitzean bideratzen duen itsasargia,
festaren bihotzeko oihu zaharra.

Gurekin dago goiz-goizetik,
bera dugu adore,
eta norbaitek gosearen aurpegia ezkutatu
eta bidegabekeriaren propaganda egin nahi badu...

Gastu militarrek planetaz jabetzen badira
eta egoismoa esertzen bada gure etxeko atean...
Jauna datorkigu etsimendua goxatzera
lasaitasun ukendua balitz bezala isiltasunaren zaurian.

Aitak bidaltzen du Jesus argia ekartzera,
ez erakundeek, Aitak bidaltzen du
gezurra dinamitatzera, ahulak indartzera
eta guztiak estu-estu besarkatzera.

Unibertsitateak behartsuenen zerbitzura dauden
teknikari eta intelektualak emango ditu,
komunikabideak ez dira izango
boterearen zerbitzu hutsera jarritako propaganda.

Jaunak jende artean entzunarazten du bere ahotsa.
Min egiten dutenek bakarrik diote beldur.
Jaunak ateratzen gaitu gure arima
zama gisa atxilotzen duen dudatik,
Berak pizten du,
buru-belarri jardun dezagun, gure barruko sua.

Maitasun legea da ebanjelioaren estiloa
eta bihotz garbitasuna,
edozein egoeratan gaudela ere.
Kontzientzia zuzenak mendiak mugitzen ditu
eta lan zailei aurre egiteko indarra ematen digu.

Jauna bidea da, arriskuan behar dugun indarra,
aztertze ordurako gidaria,
konpromisoaren ordurako sua.
Jauna xehetasunerako sentiberatasuna da,
kristau elkarte libre eta adoretzu baten euskarria.

Jesusen bidean atzera egiten ez duenak
alaitasunez jarduten du bizitzan,
gogo bizian ere atsedean aurkitzen du
eta galderetan irtenbidea.

Ebanjelioa komenientzien arabera egokitzen duenak,
maitasuna baztertu eta zerbitzu orori
preziosa jartzen dionak
ezin du aurkitu Jainkoaren aurpegia,
ezin du hauteman bizitzaren zentzua.

*Jaunak bihotz zintzoa dutenekin egiten du bidea,
eta bazter uzten ditu dogmatikoak, menperatzaileak,
indarkeria zaleak.
Hori ulertzeko gauza izango bagina!*

José Serna

JAUNA DUT ARTZAIN

*Jauna dut artzain, ez zait ezer falta.
Larre guritan etzanarazten nau,
ur baretara eramaten
eta indarrak berritzen.*

Nire asmo eta ilusio guztiak ezagutzen ditu,
justiziaren bideetatik narama,
bizitzaren altxorrak erakusten dizkit
eta alaitasun kantak txistukatzen ditu
bere izenaren maitasunagatik.

Ibar beltz-ilunetan banabil ere,
ez dut inolako gaitzen beldurrik,
bera nirekin baitago, berak bainau
lakio eta etsaietatik babesten.

Nire lanak gogorak eta premiazkoak izan arren,
ez naiz aztoratzen, ez dut bakerik galtzen,
haren laguntasunak
baretasuna ematen baitio nire lanari,
ase egiten baititu nire antsiak eta nire bizitza,
eta aktibismo eroa alferrikako egiten.

Egunero, estreinatu berriko graziaz
esaten du samurtasunez nire izena,
eta Haren ondora deitzen dit.
Goizero ukenduz gantzutzen nau,
eta ilunabarrero, bakez gainezka dagoen kopa
hartu eta topa egiten du nirekin.

Jauna dut artzain.
Galduta dabiltzanen bila ateratzen da,
sendatu egiten ditu gaixoak,
bidean jartzen ditu alderrai dabiltzanak,
zaindu egiten ditu zaurituak,
bizkarrean hartzen nekatuak,
jaten ematen die gose direnei,
mimatu egiten ditu umedunak,
guztiei die bizia ematen.

Jauna da estutzen ez duen lider bakarra!
Ohore egiten dio bere izenari
gure bizitzari duintasuna eta maila emanez.
Ez naiz hondamenaren profeten beldur,
boteretsuen tiraniak ez nau dardarka jartzen
eta kaskarren murmurioak ez nau izutzen,
Zu nirekin baitzaude!

Senitarteko maitasunezko otordua atondu duzu
munduan egiten dudan ibilbidea ospatzeko.
Ibilbide horretan erakusten didazu
nor diren zure kuttunak,
eta etorkizunean
nire bidexkak nolakoak behar duten izan.

Eskerrak zuri, Jauna,
sortu, gorde eta gidatu egiten nauzulako
biziaz gainezka dagoen zure presentziaz.

Florentino Ulibarri

JESUKRISTOREN ENBAXADORE

Gure Aita,
ebanjelioa hezkuntzaren mundura,
batik bat behartsuen mundura, eramateko
Jesukristoren enbaxadore eta ministrari egin gaituzu

Zure eraginez, Anaidia
Eliza ebanjelizatzailearen presentzia bizia da,
eta | elkarrekin eta talde izanez|
zure egintza salbatzailean jarduten dugunean,
behartsuak ebanjelizatuak direnean,
gazteak gizatasunean eta zure semetzan hazten direnean,
zure erreinua hedatuz doa.

Emaiguzu zure Espiritua, lurreko errealitate guztiak
ebanjelioaren argitan epaitzen ikas dezagun.
Erakutsiezaguzu gure lan, kezka eta pozaldietan
Zu aurkitzen.
Lagunduiezaguzu gertaera eta pertsona oroengan,
bereziki behartsuengan,
zure ezaugarria eta deia somatzen.

Bedeinkatzen zaitugu, Jauna,
zure Espirituaren bitartez
karisma bat eman diozulako Elizari,
gaur egun ere gu Anaiok eta hezitzaile
ugari gogoberotzen gaituen karisma, hain
zuzen.
Bedeinkatzen eta goratzen zaitugu, Aita,
gure biziera osoa
deitzen, sagaratzen, bidaltzen
eta salbatzen gaituen presentziaz
antzaldatzen duzulako.

*Bizi bedi Jesus, zure Semea, gure bihotzetan
Espiritu Santuaren egitez. Amen.*

JESUSENGAN SINETSI

Nazareteko Jesusengan dugu sinesten.
Legeetan eta sisteman ez ordea,
Jainkoaren erregetza hots egin zuen Harengan baizik.

Jesusengan dugu sinesten.
Haren argia eta indarra ditugulako
posible dugu bizi, lan egin, sufritu,
gizon eta emakume bezala hil;
gizakiaren aldeko borroka azkeneraino eraman
Jainkoa dugulako euskarri.

Jesusengan dugu sinesten.
Hark hots egin zuen erreinua espero dugu.
Erreinu horren atzetik goaz atsedetik hartu gabe.

Hans Küng

KALITATEAZ BLAI

*Nire laguna, nire ikaslea,
berriro hezteko aukerarik izango banu...*

Bere autoestimua eraikiko nuke lehenik,
eta beste guztia, ondoren.
Hatza erabiliko nuke pintatzeko,
eta ez ohartarazteko.
Zuzenketa gutxiago egingo nuke,
eta lokarri gehiago asmatu.
Begirada ordularitik urrundu
eta ikaslearengana nuke zuzenduko.

*Nire laguna, nire ikaslea,
berriro hezteko aukerarik izango banu...*
Besteengan interesatzen ikasiko nuke
eta ez nuke nire interesa batik bat ikasten jarriko.
Txango gehiago egingo nuke,
eta zerura kometa gehiago aireratuko.
Ez nuke hain aurpegi serioa jarriko,
eta jolasari emango nintzaioke serioago.
Lursail gehiago zeharkatuko nituzke
eta izar gehiago miretsi.

*Nire laguna, nire ikaslea,
berriro hezteko aukerarik izango banu...*
Besarkada gehiago emango nuke
eta ez belarrietatik tiraka jardun.
Hain gogorra izan ordez,
sendoagoa nintzateke izango.
Boterearekiko maitasuna irakatsi ordez,
maitasunaren indarra nuke irakatsiko.
Horrela fruitua zuhaitzean
sarriago nuke ikusiko.

Dianne Loomans

KONFIANTZA

Zure egintzak zuzenak direnean
zoriontasunen baitan bizi zara,
baita sugearen mihiaz
zure jarduera kritikatzeko badute ere.
Jauna, zu zara gure erabakiak
zuzentzen dituen argia,
gure egarria asetzen duen ura
itxaropenik gabeko garaian.

Zure bila gabiltza gure baitan,
eta zure iradokizunen zain gauzkazu.
Lasai egiten dugu lo, itxaropentsu,
gure adimena zure nahian jarrita.

Presio taldeak egitura maltzurren
egile dira, baina ez iezaiezu beldur izan!
Hipokresiak mindu egiten du Jainkoa,
mindu egiten ditu senideak!
Jauna, ager zaitez,
indar ezazu gure adorea.
Jesus, salbatzaile,
bedeinka ezazu zure herria.

José Serna

KRISTO BEHARTSUA

Jauna, ez daukazu eskurik,
gure eskuak besterik ez daukazu
bakearen eta justiziaren loreak sortuko dituen
mundu berri bat eraikitzeko.

Jauna, ez daukazu oinik,
gure oinak besterik ez daukazu,
zapalduak askatasunaren bidean jartzeko.

Jauna, ez daukazu ezpainik,
gure ezpainak besterik ez daukazu,
pobreei solidaritatearen berri ona hots egiteko.
Jauna, ez daukazu aurpegirik,
gure aurpegia besterik ez daukazu,
tristeak alaitu, eta frakasatu eta galduak lasaitzeko.

Jauna, ez daukazu bitartekorik,
gure inizatiba eta ekimena besterik ez daukazu,
pertsonek guztiak senide bezala bizi daitezela lortzeko.

(...)

Jauna, gu gara zure Ebanjelioa,
gure senideek irakur dezaketenean Ebanjelio bakarra,
gure bizitzak hitz eta egite solidarioak baldin badauzka
beharrean eta ahaztuta daudenei laguntzeko.

Hemen dituzu nire eskuak, oinak, ezpainak,
nire lana, denbora, ilusioa, bizitza,
naizen eta daukadan guztia.
Hemen naukazu, Jauna. Konta ezazu nirekin.

Florentino Ulibarri

KRISTO, GURE BIZIAREN OINARRI

Bizi dadila Kristo zuen bihotzetan
sinesmenaren bidez,
eta izan dadila maitasuna
zuen bizitzaren erro eta oinarri. (Ef 3, 17)

Argi dago inork ez dezakeela
ezarria dagoen oinarria besterik ezar;
eta oinarri hori Jesu Kristo da. (1 Ko 3, 11)

Deusek ere ez du ezer balio
Kristo Jesus ene Jauna
ezagutzearen dohain paregabearen aldean.
Kristorengatik dena galdu dut eta dena
zaborraren pareko jotzen dut,
hura irabaztearren. (Flp 3,8)

Niri dagokidanez,
Jainkoak libra nazala harrotzetik,
Jesu Kristo gure Jaunaren gurutzeaz izan ezik;
Kristo gurutzean hil zenez gero,
mundua hilik dago niretzat
eta ni munduarentzat. (Ga 6, 14)

Ez naiz ni bizi, Kristo bizi da niregan.
Eta oraingo neure giza bizitza,
maite izan ninduen
eta bere bizia nire alde eskaini zuen
Jainkoaren Semearenganako sinesmenean
oinarriturik bizi dut. (Ga 2, 20)

Guretako bat ere ez da beretzat bizi,
ez eta hiltzen ere beretzat.
Bizi bagara, Jaunarentzat gara bizi;
eta hiltzen bagara,
Jaunarentzat gara hiltzen. (Erm 14, 7-8)

Kristo Jesus onartu duzueenez gero,
jarraitu berari dagokionez bizitzen.
Harengan errotuak eta oinarrituak,
iraun sendo sinesmenean,
eta eman eskerrak etengabe. (Kol 2, 6-7)

LAGA GAUZEN IRUDIAK

Laga bitza nornahik gauzen irudiak zeharo,
eta huts beza tenplua eta gorde hutsik.

Zeren eta, tenplua hustua balego
eta hartua duten ameskeriak, kanpoan,
orduan bai,
posible litzateke zu Jainkoaren etxe bihurtzea.

Eta egiten duzula zernahi ere,
orduantxe, ez lehenago,
zure bihotza bakean legoke eta poza zenuke.

Eta orain etenik gabe min ematen dizun ezerk
ez zintuzke gogaituko.
Orduan...

Tauler

LAGUNDU IEZADAZU EGIA ESATEN

Jauna, lagundu iezadazu indartsuen aurrean
egia esaten
eta ahulen txaloak jasotzeko
gezurrik ez esaten.

Ondasunak ematen badizkidazu,
ez iezadazu ken arrazoia.
Arrakasta ematen badidazu,
ez iezadazu ken apaltasuna.
Apaltasuna ematen badidazu,
ez iezadazu ken duintasuna.

Lagundu iezadazu beti
txanponaren beste aurpegia ikusten.
Ez iezadazu utz,
nik bezala pentsatzen ez dutelako,
besteei traizioaren errua egozten.

Erakuts iezadazu
besteak ni neu bezala maitatzen;
neure burua
besteak epaitzen ditudan bezala epaitzen.

Arren, arrakastatsua banaiz,
ez iezadazu utz harrotzen;
edo porrot egiten badut,
ez iezadazu utz etsitzen.

Gogora iezadazu porrota
garaipenaren aurreko esperientzia dela.
Erakuts iezadazu barkatzea
handitasun seinale dela indartsuengan;
eta mendekua, doilorkeria seinale ahulengan.

Arrakasta kentzen badidazu,
emadazu porrotetik
arrakastara bitarteko bidaia egiteko indarra.
Norbaiti huts egiten badiot,
emadazu barkamena eskatzeko adorea,
eta norbaitek huts egiten badit,
emadazu hari barkatzeko adorea.

Jauna, zutaz ahanzten banaiz, arren,
ez zaitez nitaz ahantz!

Mahatma Gandhi

LAGUNDUKO DIZUT

Benetan dira beldurgarriak
bizi ditugun garaiak, ene Jainko.

Bizitza osoan lehen aldiz, bart,
gau beltzean, esna geratu naiz,
begiak sukarretan, loari ezin loturik,
giza sufrimenaren irudiak
etenik gabe saldoka nire aurrean.

Gauza bat egiten dizut promes, ene Jainko.
Hara zertan lagunduko dizudan:
ez zaitut lagako nigan itzaltzen, ene Jainko.
Baina ezin dizut ezer ziurtatu aldezturirik.

Hala ere, gauza bat ageri zait gero eta argiago:
ez zara Zu lagundu ahal gaituzuna,
baizik eta gu gara Zu lagundu ahal zaituguna.

(...)

Etxearen atzealdean,
azken egun hauetako euriak eta erauntsiak
jasmina hondatu dute.
Bere lore zuriak garajeko terraza gaineko
putzu beltz zikinetan barreiatuak dautza.
Baina non edo non nire baitan jasmin horrek
loreak ematen jarraitzen du,
iragan aldietan bezain oparo, beti bezain samur.
Eta Zure etxe inguruan bere usain gozoa
zabaltzen du, ene Jainko.

Ikusten al duzu, ene Jainko,
zenbateko ardura hartzen dudan Zutaz?

Etty Hillesum

MAISUAK HORRELA ASMATU ZINTUEN

Ametsak esnarazten badituzu
eta haurrengan ohikeriaren,
gizatasunik ezaren eta dezepzioaren
kontrako amorrua ereiten...

Lilura ederra dela xuxurlatzen badiezu
eta traszendentzia ez dela urrutiko ortzi bat;
errealismo anker eta gezurtiak bihotza jaten duela
sinesteko prest bazaude...

Bidean beti ere zertxobait aurrerago egin dezakegula
erakusten baduzu,
eta beso-eskuak etengabe luzatu behar ditugula
pilota ezin harrapatu arren...

Gauzak oraindik erabat ulertu gabe,
argitasun bidean jarri eta zuzirik txikienari ere
erretxina apurtxo bat gehiago ematen saiatzen bazara...

Arraseko berdintzailearekin,
kaskarkeriaren demokrazia faltsuarekin
eskolan begietako dirdira eta zorionaren irritsa
akabatzen direla sinesten baduzu
eta horren arabera jokatzeko...

Mikaztasunak baztertu,
eta irakasle bentzutuaren malenkonia
esperantzaren kontrako krimenik larriena dela
onartzen baduzu
eta berriro zutik jartzeko adorea aurkitzen...

*Zorionak, lagun, zorionak, bidaide.
Maisuak horrela asmatu zintuen.*

Patxi Ezkiaga

MAISUAREN ALTXORRA (Mt 13, 52)

Zaharrak eta berriak ateratzen ditu maisuak bere altxorretik.

Zeuzara, Jesus,
nire maisu eta eroapen handiko irakasle.
Eta bihotzeko andereño.
Hezi nauzu. Hezten nauzu.
Apurka-apurka. Pausoz pauso. Pausoka.

Zuk jartzen dizkidazu kolorezko harriak bidean,
nondik nora jo behar dudan jakin dezadan.
Kolorezko harriak bidean: pertsonak, bidaiak,
lekuak, liburuak, poemak, adiskideak;
zer naizen, nor naizen, zer balio dudan
erakutsi didatenak.

Pertsona zintzoak, egiazkoak, maitekorrak,
eragin handikoak, etorkizuna luze ikusten dutenak,
nire borondate onean sinetsi dutenak,
ondo hartu nautenak, ondo hartzen nautenak.

Erakutsiko ote didazu min eman didatenei barkatzen.
Gaizki esanak ahazten. Eta haiek maitatzen?
Haien portaerari aitzakiak ateratzen?
Maisu zaharrak, eta gazteak,
barneko altxorretik zahar eta berri ateratzen ditu.
Zeuk bezala, Jesus, pedagogia xalo eta umoretsuan.

Zure espiritua dabil alde guztietan maisu,
askatasun gozoan aukerak egin ditzadan.

Bizitza zailegia duten haiengan pentsatzen dut orain.
Maite ditut. Irribarre maitekorra dut haienganako:
haurrak, etorkinak, eskola-lagunak, jonkiak...

Loreak dira nire bidean, zuhaixkak,
argi izpiak, errainuak, distirak, bihotz taupadak,
kantu eder xuxurlariak.

Bete nire desio zaharra, Jesus, hori nahi dut:
ona izan, hobeia izan, xaloa eta maitekorra,
ez erresumina, ez ozpindua, ez bihozmindua;
Argia, kolorea, hosto berde berria,
mundu honetako zirrikitueta jaiotako lore bitxia bezala.

Iokin Otaegi

MAITASUN KANTUA

Maitasun kantua josi nahi nizuke, Jesus.

Gizon zara,
eta egiten duzun guztian,
esaten duzun guztian,
sufritzen duzun guztian,
aditzera ematen diguzu
Beste Horren erakusleiho zaitugula.

Aitari diozun betiereko bai maitekorra darizu gurutzean.
Zu zaitut Aita
Jainkoak gizonari dion liluraren sakramentu perfektua.
Baina bazara baita ere gizon-emakumeon ordezeko.
Salba dezagun Jainkoa gure hatzapar basatietatik:
musika hiriko dezibelioetatik salbatu behar den bezala,
egia gure itsukerietatik salbatu behar den bezala,
maitasuna gure egoismotik salbatu behar den bezala.

Gurutzea baita Historian zehar Jainkoak
sufritu izan behar dituen zauri guztien sendabidea.
Izan ere, Unibertsoak, Bizitzak, Gizakiak
sufritu dituen hondamendi guztiak
Aita Jainkoaren bihotzari egindako zauriak baitira.

Azken batez, ene Jesus,
zure gurutzeak erakusten diguna
gizakiaren handitasun lauso-gabea da.
Gizakiaren pentsamendu bat bakararra
mundu osoa baino handiagoa da.
Jainkoak ez beste inork ezin baitu
pentsamendu hori esanahiz bete.

Gurutzeari iraupena ematea ez dut nahi, ene Jesus.
Gurutzetik eraitsi nahi dut Jainkoa gure bizitzetan.

Moises, Sinai menditik jaitsi zenean,
Legea ekarri zigun, testu bat.
Frantzisko, Averna menditik jaitsi zenean,
bizidun gizakia jaitsi zitzaigun.

Maurice Zundel

MAITASUN KONTUAK

Aita, zuk esan diguzu maitasunak egiten gaituela zure elkartekide.

Maitasunak ekimenera garamatza eta gure senideekiko konpromiso solidariora, pobre eta behartsuenen aldeko konpromisora batik bat.

Asko maitatzen duena asko saiatzen da, gutxi saiatzen denaren maitasuna epela da.

Maitatzen ez duena bere interesen morroi bihurtzen da.

Jauna, egizu maitasuna izan dadila gure elkarreak egin nahi duen lehen urratsa.

Maitasunik gabeko konpromisoak zama eta itomena sortzen ditu; aldiz, maitasunak eragiten digunean nekezia gainditu eta alaitasuna emateko gauza gara. Gure indar guztiaz lehiatzeko gogo bizia izango dugu gure maitasuna Jesusena bezalakoa bada. Hori da gutako askoren esperientzia. Areagotu ezazu maitasun-esperientzia hori gure elkartean.

Zuk esanda eta esperientziaz dakigu maitasuna min eta poztasun iturri ere badela; besteen min eta pozak geure min eta poz egitea dela egiazko maitasunaren seinalea: pobre eta behartsuenenak batik bat, samariar on eta errukitsuak erakutsi zigun bezala.

Jauna, maitasun anonimoak piztuta ikusi nahi ditugu minak eta bidegabekeriak markatutako gure senideen aurpegiak; horregatik jardun nahi dugu justiziaren aldeko lehian, horregatik aldatu nahi ditugu mundu zital honen egiturak, hobe izan dadin, askatasuna izan dezan sozio-politikaren arloan.

Horrela izango ditugu Jesusen sentimendu berak,
horrela izango da gure elkarte berri on,
zure Erreinuaren ikur,
zuk hain samurkiro maite dituzun gizon-
emakumeentzat hemen, lurrean.

Florentino Ulibarri

MARTA, MARTA (Lk 10, 41)

Dударик ez, Martak eta zuk, Jesus,
adiskidetasun gozo eta elkarrentzat
onuragarria zenutela.

Agian bero sapa egiten zuen egun hartan,
eta hara, zu, Marta, edari freskagarria eskuetan,
Maisuarengana. Azpiltxoa, zapitxoa,
atariko arbolaren abarora etorri zinen.
Dena txukun... eta kuttun.

Entzun, galdetu, eta tarteka, hitza luzatu,
emaztekiari dagokion xalotasun lasaigarrian.
Milioika emakumek munduan egiten duten bezala.
Zergatik ikasi ote dugu beti
Marta eta Maria kontrajartzen?

Errespetua, ohorea, adeitasuna,
adiskidetasuna, xalotasuna,
fedea, otoitza, eskaintza eta zerbitzua...
Rolak aldatu nahi ote ditut XXI. gizaldi hasieran?
Naturaren joerak irabaziko du beti ere.

Eta ni, zer?
Marta naizela iruditzen zait batzuetan,
eta Jesus, besteetan.
Aldian-aldian, bisitaria, eta bisitatu.
Bai batean, bai bestean,
ez nuke nire jarrera zurrundu nahi.
Ez eta goizeko edo arratseko
adiskidezko otoitzaldi hau
hustu eta birrindu nahi ere.
Adiskidetasuna eta zerbitzua, hara.

Kontenplazioa ala zerbitzua,
bego eztabaida beste une baterako.
Begiratu eta zerbitzatu.
Gozatzeko ordua da.
Hartu, Jesus.
Ez ahaztu bideko hautsaz ahoa lehor daukazula.
Gozatu ahoa, samurtu hitza,
luzatu zangoak, lasaitu aurpegia.

Ahogoatu,
nik otamen xume bat prestatzen dudan bitartean.
Badator baratzetik usain aringarria,
mimosa eta aligustre, ekaitz eta erromero.
Karnabaren kanta.
Etxeko katuaren zango arteko fereka nagia.

Hesi barruko ikuskari aseroa.

Marta, Marta, goza dezagun emana zaigun une honetaz.

Iokin Otaegi

MIKEASEN KANTIKA

Nire atabala desertuko harriz egina da,
Galileako itsasoko uhinez nire maskorra.
Horrek egiten nau kantore,
eta noizbait bertatik sortuko den esperantzak.

Ireki bihotzak, lagunok,
eta zatozte, bete diezazuedan
doinuz, lorez eta aspaldidanik
egin nahian nabilen galderaz:
"Egia ote noizbait biziko garela
heriotzarik gabeko lur batean?"

Orduan pozik fundituko nituzke
etortzekoa den Mesiasen arragoan
harria, uhina eta lorea,
nire bihotza erabat biluzik gelditu arte,
behartsu eta eskale.
Sinetsi nahi nuke ez dela ahalegin banala,
eta noizbait iritsiko dela kantu ederrak
kantatuko dituen oparotasun-udaberria.

Patxi Ezkiaga

MINTZA ZAKIZKIT JAINKOAZ

Esan nion almendrondoari: Mintza zakizkit Jainkoaz...
eta loratu egin zen.
Eskaleari... eta bere soingainekoa eman zidan.
Ametsari... eta errealitate bihurtu zen.
Ateari... eta ireki egin zen.

Esan nion haur bati: Mintza zakizkit Jainkoaz...
eta hori bera eskatu zidan haurrak.
Laborariari... eta lurra jorratzen irakatsi zidan.
Naturari... eta edertasunez bete zen.
Lagunari... eta maitatzen irakatsi zidan.

Esan nion urretxindorrari: Mintza zakizkit Jainkoaz...
eta kantari hasi zen.
Txiki bati... eta irribarre egin zuen.
Gerlariari... eta armak utzi zituen.
Minari... eta esker oneko egin zen.

Esan nion iturburuari: Mintza zakizkit Jainkoaz...
eta ura irten zen.
Amari... eta muin egin zidan kopetan.
Eskuari... eta zerbitzu egin zen.
Etsaiari... eta eskua luzatu zidan.

Esan nion behartsu bati: Mintza zakizkit Jainkoaz...
eta onartu egin ninduen.
Bibliari... eta hitzetan ito zen.
Ahotsari... eta ez zuen hitzik aurkitu.
Jesusi... eta Gure Aita errezatu zuen.

Esan nion beldurrez ilunabarrari: Mintza zakizkit Jainkoaz...
eta eguzkia ezkutatu egin zen, ezer esan gabe.
Hurrengo goizean, ordea, leihoa ireki nuenean
irribarrez hartu ninduen eguzkiak.

MIRARI BAKOITZEKO

Mirari bakoitzeko
esker oneko kantu bat edukitzea
gustatuko litzaiguke,
izarrak
gure bizitzako gau bakoitzeko.

Lore guztien
perfumea eta kolorea dastatzea
gustatuko litzaiguke,
barkamen hitz bat entzutea
itxaropenaren kontrako
bekatu bakoitzeko.

Desertuak ez baitu oraindik
itsasoaren nostalgia
galdu.

Patxi Ezkiaga

MISIO EGITASMOAREKIN KONPROMETITUAK

*Jauna, presta itzazu gure eskuak
ukitu ezberdin baterako:*

samurtasuna, estimua,
kontsolamendua eta adiskidetasuna pizteko.
Izan bitez laztantzeko, topa egiteko, eusteko,
eraiki eta orientatzeko gai.

*Jauna, presta itzazu gure besoak
topaketa ezberdin baterako:*

batasuna, hurbiltasuna, errukia eta
gorputz bakar batean biltzen gaituen
beroa sentitzeko.
Izan bitez besarkatzeko, indartzeko, babesteko,
urruti dagoenarengana iristeko gai.

*Jauna, presta itzazu gure bizkarrak
zama ezberdin baterako:*

besteen malkoen astuna, geure gurutzearena
eta beste askorena eramateko.
Izan bitez Jainkoaren Erreinura
sartzen diren hurren
zaldiko-maldiko.

*Jauna, presta ezazu gure bihotza
taupada ezberdin baterako:*

ahitzen ari den bizitza ponpatzeko,
lurraren bular handi horren barruan sentitzeko.
Izan bedi alaitzeko, festa egiteko,
maitasunik ezatik eta harrokeriaren leizetik
askatua izateko gai.

*Jauna, presta ezazu gure adimena
egia ezberdin baterako:*

beste modu batera
-justizian, jakindurian,
zintzotasunean eta konfiantzan-
nola bizi pentsatzeko.
Jaio bitez gure ideiak egunero eta,
Zure abaroan, izan bitez eguzkiaren antzeko:
inor baztertu, gaitzetsi, zanpatu eta galdu gabe,
guztien argi bero.

*Jauna, presta itzazu gure oinak
bide ezberdin baterako:*
pozoia, traizioa eta beldurra zapaldu eta,
nekerik, aitzakiarik gabe,
egun argitan bezala ibiltzeko.
Izan bitez berri onaren,
umore onaren, begitarte alaiaren, uste onaren,
eta Zure Hitzak piztu dituen
gure gorputz apalen postari.

Amós López

MUNDU OSOA

Mundu osoa ibilia dut
Jainkoaren bila,
eta ez dut inon aurkitu.

Etxera itzuli naizenean,
nire bihotzaren ate aurrean zegoela ikusi dut,
Esan dit:
“Hemen nauzu zure zain betiera guztian”.
Orduan, Berarekin sartu naiz etxean.

Rumi

MUNDUARI BIHOTZA IREKI

Munduari bihotza ireki nahi diot,
munduaren santutasuna sortu nahi dut,
santutasunaren iturri izan.
Ez dut argiaren isla izan nahi,
argia baizik.

Paradisua sagarrondo berriz, gereziondoz,
almendrondoz, intxaurrondo,
pago, ezki, gorosti, goroldio eta iratzez
landatu nahi dut,
eta liturgia kosmiko berri baten
musika izan.
Bekatua suntsitu eta ogi, ur, jantzi, bake,
hitz, besarkada eta laztan izan nahi dut
eta, Jainkoa Jainko izan dadin,
bide.

Gizon-emakumeekin, txoriekin, sugeekin,
piztitzar, demonio eta sorkari guztiekin
Jainkoaren antzera eginiko
bihotz errukitsuen bakean
bizi nahi dut,
kontraesanak onartu
eta argitasunaren eta ostatuaren arteko
zubi izan,
formarik gabeko Jainkoaren aurpegiari
malko txukatuen edertasuna
eman.

Patxi Ezkiaga

NAHI NUKE NAHI, JAUNA

*Jauna, nahi nuke nahi
besteei bizitzen lagundu.*

Beste guztiei, neure senideei,
atsekabe eta oinazetan dabilzanei,
zergatik jakin gabe,
heriotzak noiz askatuko zain.
Jan ahal izateko lana egitea,
lanean jarraitu ahal izateko jatea,
eta azkenean, zahartzaroa eta heriotza.
Ez! Ez da hori Zuk agindutako Bakea!

*Jauna, nahi nuke nahi
besteei lagundu.*

Beste guztiei, neure senideei,
alferrik ahalegintzen direnei;
ondasunen bila elkar zapaltzen dutenei,
diru txar pixka bat pilatu ahal izateko,
hainbesteren bizi helburua hondatzen duen dirua; edota
Paradisuan inolako izaterik ez duen denboraren
minuturen bat "irabazi" nahian.
Ez! Ez da hori Zuk agindutako Bakea!

*Jauna, nahi nuke nahi
besteei bizitzen lagundu.*

Beste guztiei, neure senideei,
beren bakardadean utzita daudenei.
Pobreak hiltzetik ateratzea ongi dago.
Baina bizitza osoan gosez hiltzen uzteko baldin bada,
haien bizitza etengabeko heriotza izango bada,
ni ere erantzule naiz hilketa horretan,
zeren gorde egiten baitut soberan dudana
eta haiei bizitzeko balioko liekena.

Egizu, Jauna,
eman dezadala nik neure bizitza horiek askatzen;
euren larritasunetatik ateratzen,
Zugana irits daitezten;
euren zaratetatik kanporatzen,
Zuri entzun diezazuten;
euren aberastasunetatik libratzen,
Zu uler zaitzaten;
euren harrokeria hutsalaren lotura hausten,
Zuk agindutako Bakea ezagut dezaten.
Egizu, Jauna, hori baldin bada zure nahia. *Raoul Follereau*

NAZIOARTEKO ARGITZAT EZARRIKO ZAITUT

*Nazioarteko argitzat ezarriko zaitut,
nire salbamena lurraren bazterrera
eraman dezazun. (Is 49, 6)*

Zure Haizearekin bat eginik,
ase sentitu nahi dut nire arnasa,
trinko eta libre.
Munduaren hondartzara luzatu nahi ditut
nire besoak.
Enbatari bekoz beko begiratzen dion
albatrosa nahi dut izan,
nire hegoek, nire begiek zure bidaiaren lorratza
seinala dezaten
zeru ilunean.
Eta, helmugaren ardo berria ezpainetan,
sortu nahi dugun munduaren birjintasuna
laztandu nahi dut,
zure edertasunari itsatsita nire hatzak,
nire lepo hauskorren inguruan
zure besoaren indarra,
babes dakidan.

Jauna, ez dut plastikoetan blindatuta bizi nahi,
ez diot bizitzari ihes egin nahi.
Bidea igarotzea da, badakit,
eta loturak ez dira ongi konpontzen patuarekin.

Baina -zer nahi duzu? -
maite ditudan tokietara itzuli nahi nuke,
neurtu nire iragankortasuna
ibarraren itxurazko hilezkortasunarekin
harik eta, ni joana naizenean, beste batek
-Belagua maitagarrian-
zerrote baten soinua entzun dezan arte
ilunabarraren bihotza zerratzen... eta denbora.

Patxi Ezkiaga

NEU NAIZ JAUNA

*Neu naiz Jauna.
Huts eragiten diet aztien zantzuei,
zentsugabe bihurtzen igarleak;
jakintsuak hankaz gora botatzen,
eta haien zientzia zorakeria bilakatzen. (Is 44, 25)*

Jauna, "Neu naiz..." hasiko banintz, zelan jarraitu?
Antzinako gerrako irudietan aztien kamara azkarrak
heriotzaren errealitatea lapurtzen die
lubakietatik laster batean ateratzen diren soldaduei.

"Neu naiz..."
Nola ziurtatu gurean igarleak erabilitako abiadura
egokia izango dela, ez dela ezer bitxirik gertatuko
kolorearekin, usainarekin...?

Jauna, guk badakigu dramak, benazkoa izatera,
geldirik egon behar duela, isilean antzeztu behar dela.

Nazka diogu erlatibotasunari
eta, antzinean,
nazka hori elezharretan itotzen genuen bezala
bihurtu nahi ditugu aztiak, jakintsuak eta igarleak absolutu.

Azkenean, ordea,
igarleen eta jakintsuen besarkadak higatzen direnean,
zugana itzultzea besterik ez zait gelditzen,
hitzen zurrunbiloa eta desertuaren xarma
musu hotz bilakatzen zaizkidanean,
eta mutu, lur ezezagun guztien murmurioak.

Patxi Ezkiaga

NI EZ NAUZU ZINTZOENTZAT ETORRIA

Hemen nauzu zure aurrean, Jauna, anai-
arreba, ahizpa eta neba zaizkidan
nire antzeko gizon eta emakumeekin batera,
jaiki eta bidean
jarri nahiko luketen gizagaixoekin batera.

Baina jaiki, nola jaikiko,
jaikitzen ez diren horiekin batera,
drogapeko eta bidegalduekin batera,
emagalduekin batera,
galbideari ezin aurre eginik bizi direnekin batera?
Hemen nauzu,
sinesmena, itxaropena eta maitasuna galdua dutenekin.
Eta horregatik suminduta bizi diren horiekin.

Hala ere, Jauna,
zu ikustearren zuhaitzera igo zen Zakeori,
emakume ezkontza-nahasleari, samariarrari,
Magdalako Mariari,
zure alboan zintzilikatu zuten gaizkileari
zuzendu zenien maite-begiradaz begiratzen gaituzu.

Zure eskuetan jartzen ditut horiek guztiak, Jauna,
horiekin batera ni barne,
seguru bainago
onik aterako gaituzula, osatuko gaituzula.

Argi eta garbi esan zenuen, Jauna,
ez zarela zintzoentzat etorri,
beharrean daudenentzat baizik:
gaixo daudenentzat, gaizkileentzat.
Guretzat, alegia.

Soeur Emmanuelle

NI ZUREKIN NAGO

*Eta isiltasunaren sakonenetik
Jainkoaren ahotsa entzun zen:*

“Ez izan beldur.
Ni zurekin nago.
Aski duzu nire graziarekin.
Denek ahanzten bazaituzte ere,
nik ez zaitut inoiz ere ahantziko.
Inoiz ere ez.

Beti zaude presente
nire bihotzaren ezkutuean.
Senti zaitez indartsu zure ahuldadean
etsaiak eraso egiten dizunean.

Nik nahiago baitut munduarentzat
ergela eta ahula dena.
Zure ahuldadean datza zure indarra,
ni zurekin bainago.

Maitasunik ezaren zama sentitzen duzunean,
faltsukeriaren eztenak hozka egiten dizunean,
denak bakarraren aurka altxatzen direla
sentitzen duzunean,
bakarrik eta babesik gabe sentitzen zarenean,
oroit zaitez ni beti zurekin nagoela.

Ez zaitez gera zukan,
argi bila zure iluntasunean.
Galdurik sentitzen zaren bakoitzean
zatoz nigana, behin eta berriro,
ni gabe ezin baituzu ezertxo ere egin.

Bizitza beren iluntasunaren argitan egiten dutenek
ez zaitzatela engaina.
Ni naiz argia,
ikustarazten dizun argia,
izanarazten dizun egia,
biziarazten dizun bidea.

Ez izan beldur.
Zurekin dago nire bakea.
Ez da munduaren bakea,
nirea baizik.
Neuk zaramatzat nire bidetik. “

José Real Navarro

NIGANDIK GERTU ZAUDE

Begira, Jauna.
Badakizu zein den nire izena.
Badakit inork baino hobeto
ezagutzen nauzula.

Nik zuri begira egon nahi dut
baina askotan kostatu egiten zait zu aurkitzea
eta ahul sentitzen naiz,
beste bati lagundu
eta ni bakarrik utziko baninduzu bezala.

Badakit nigandik gertu zaudela,
pobreengan,
etsita daudenengan,
zailtasunak nola gainditu ez dakitenengan,
iseka egiten diotenarengan,
bakarrik dagoenarengan,
langabearengan,
drogazalearengan...
Baina kostatu egiten zait haiengan zu ikustea.

Jauna,
zuzendu nire begiak pobreengana,
edonora joan nadin
eta zu goraiपा zaitzadan,
norbaitek zera esan dezan:
“Egia da! Jainkoak gizaki guztiengan
Bera ikus dezagun laguntzen digu”.

Juanjo Elezkano

NIRE AURKIKUNTZA

Jainkoa izadian aurkitu zuela esan zidan batek.
Eta nik itsaso aldera jo nuen,
zelaiak eta bidezidorrak zeharkatu nituen,
loreak eta galburuak arakatu nituen.
Jainkoaz hitz egiten zuten guztiek,
Haren aginteaz, Haren ardura eta arretaz.
Baina ez nuen Jainkoa ikusi, ez zegoen han.
Hari buruzko albisteak zeuden,
zurrumurruak, oroitzapenak. Hori soilik.

“Galde iezaiezu jakintsuei” esan zidaten.

Mistikoen, teologoien eta lamaren bila saiatu nintzen.
Tenplu eta monasterioetara joan nintzen.
Ideia santuak entzun nituen, otoitzak, sentimenduak.
Jainkoarekin bizi ziren,
baina nik neuk... ezin izan nuen ikusi!

*“Jainkoa aspaldian jaitsi zen; bila ezazu auzoan,
gizakiaren aldeko lehian” iradoki zidaten.*
“Bila ezazu oihanean, presondegian, txaboletan...”

Haren oroimenak soilik topatu nituen.
Hark esandakoaren oroimenak eta interpretazioak,
Haren ametsetako asmoak...
Baina Jainkoa ez zegoen han. Aspalditxo joana zen.
Orduan, etsita, ez zegoela inon pentsatu nuen,
edo urrutiegi zegoela.
Eta nire bihotzean beste zerbaiten bila hasi nintzen.
Jainkoak jarrai zezala bere zeruan!

Eta bila nenbilela,
bidegabekeria eta beldur,
zalantza, ezinikusi eta itxaropen,
sentimendu on eta txarren artean,
han zeunden Zu nire bihotzean,
eserita nire zain, ene Jainko.
Ez zegoen ez lurrean ez zeruan!

Eta honen aurkikuntza berri ematera
joan nintzaion jendeari:
Jainkoa mendietan zegoela,
loreetan, monasterioetan,
auzoetan, presondegian, elizan,
Biblian, zinetokian eta ipuinetan.
Nire baitan aurkitu nuenetik
leku guztietan baitago Jainkoa!

Selah

NIRE BEGIAK EGON BITEZ ZABALIK

Nire begiak egon bitez zabalik
zure presentziaren misteriora,
Zu baitzara barren-barrenetik pizten gaituen argia.

Nire bihotzak har beza atsedean,
bota bitza sustraiak zauriturik naukan zure maitasunean.

Nire bizitza osoa izan bedi zure errukiaren gorespena,
nire eskuek jo bezate otoitzean zugana,
zure oparotasunari begira.

Hemen gaude, Jesus Jauna, elkarrekin zure bila.
Hemen gaude bihotzari askatasunaren
hegoak eman nahian;
hemen gaude, Jauna, lagun-en elkartasunean,
bidaztekin batera egiten duzula bidea sinetsita.

Jauna, zeinen ederra den
esku emanen abenturan sartzea;
zeinen ederra den inor bidean galduta ez gelditzea,
ilusioak eta esperantzak partekatzea,
zure Espirituaren gidaritzapean ibiltzea.

Irrikaz bete gaituzu.
Hegoak eman dizkiozu gure bihotzari,
hegan egin dezan txori-saldo baten modura.
Irrikaz bete gaituzu,
zure bila jardun eta zugana jotzearen irrikaz,
loreak eguzkiari begiratzen dion bezala,
eta urak itsasoari.

Hemen gaude, elkaturik, eta, Abrahamek bezala,
lokarriak askatu nahi ditugu, barneko askatasunaren bila,
egoerak, ideiek, sentimenduek eraman ez gaitzaten
gure kanpadenda desertuko harearen gainean jartzera.

Zugana goaz eta nekez igotzen dugu zure mendia.
Badakigu igoera gogorra dela, baina ez goazela bakarrik.
Badakigu Zu gailurrean zaudela
eta merezi duela igo eta, goian, Zu aurkitzea.

Jauna, gure ibaiaren iturburuaren bila gabiltza.
Gure bizitzari adore emango dion biziaren bila gabiltza,
gure existentziaren arrazoia bila,
maitatzeko indarra emango digun maitasunaren bila.

NIRE BIHOTZA EZ DADILA OHITU

Aita, nire bihotza ez dadila ohitu
egoera bidegabea
jasaten ari diren pertsonak ikustera.
Ez dezala normaltzat jo
milioika emakumeren diskriminazioa,
bakardadea, maitasunik eza.
Batzuek denetatik daukagun,
beste batzuek ezer ez daukaten mundu hau
ez dezala nire bihotzak onar.

Aita, nire bihotza ez dadila ohitu
begirada triste eta galdura,
derrigorrez onartutako oinazera,
keinu erori eta adorerik gabera,
segurtasunik eta bizitzeko gogorik ezara,
anaiaren gainbeherara,
bizitzako bide bazterretik botatzen didan oihura.

Aita, nire bihotza ez dadila ohitu
gizon eta emakumeekiko trataera ezberdinerara,
hizkera diskriminatzaile, gaizki banatutako lanera.

Aita, nire bihotza ez dadila ohitu
lanaren edo langabeziaren zamagatik
nire senideak triste,
adorerik gabe eta nekatuta ikustera,
premiazkoenaren beharrean daudelako,
maitasunik ezak, desilusioak,
etsipenak jota bizi direlako.

Aita, nire bihotza ez dadila ohitu
kaleko emakumea, drogadiktoa, alkoholikoa,
ludopata eta gizon-emakume bakartia ikustera.
Izan nadila haien mina, bakardadea
eta nazka asmatzeko gauza;
eta nire begirada izan dadila
haien historiaren laztangarri, ez epaile;
haien mina duindu
eta haien bizitza leuntzeko gai izan nadila.

Aita, nire bihotza ez dadila ohitu
kanpotarrak arrotz gisa ikustera,
ez dadila ohitu haiekiko topaketari muzin egitera,
haiei gure artean txokotxo bat ez egitera,
ez dadila ohitu
haien bizimodua are latzagoa bihurtzera.

Aita, nire bihotza ez dadila ohitu
gauzak dauden bezala onartzera.
Eraiki nahi dudan Eliza
daukana emateko izan dadila,
prest dauden gizon-emakumeez
osaturiko familia bizia,
mailarik, erretserbarik, pribilegiorik gabea.

Aita, nire bihotza ez dadila ohitu
bide bazterrean botata dagoen
senidearen atsekabera.
Izan nadila haren historia
samurtasunez laztantzeko gauza,
biok bat eginik, aurrera egin dezagun bidean,
elkarri duintasuna, bizipoza eta atsedena eman ez.

Jauna,
nire begiradan jar ezazu samurtasuna,
agurtzeko orduan, jar ezazu fereka nire eskuan,
nire buru epaitu-zalean, jar ezazu errukia,
nire hizkuntzan jar ezazu jakinduria,
nire belarrietan, jar ezazu entzuteko gaitasuna.

Blaitu ezazu errukiz nire bihotza!

Mari Patxi Ayerra

NIRE BURUA BILUZ

Nire mozorroak badoaz bata bestearen atzetik.

Kanporantz jantzi dudan mozorroak
nire barrua agirian jarri du. Inauteri.

Garbi eta inausi.
Erabaki beharra dut.
Begira dezadan barrurantz.
Nire burua biluz.
Lehena eta oraina.
Bat-bateko ikuspegi zorrotz,
mozorroaren begi zorrotzak epaitzen nau.

Mozorroaren begi zorrotzari
etsiko dion itsasperik ez da.
Okerraren eta zuzenaren neurri zorrotzak dakizki.

Eguzki Lorearen su,
nire izatearen sustrai eta erro,
Kosmos osoko Aho Urre.

Iokin Otaegi

NOIZBAIT

Noizbait
bizitzatik haratagokoak
heriotzatik haratagokoarekin bat egingo duela
sinetsi nahi dut;
biak ur beraren
su beraren
desertu beraren
haurrak direla,
eta maitasunean heriotza dagoen bezalaxe
dagoela maitasuna
bizitzaren sorreran,
bizitzaren amaieran.

Patxi Ezkiaga

NORBAIT DATORKE ARRATSEAN

Ez hadi mugi. Entzun! Agian
norbait datorke arratsean. Agian...
Badabiltza gortinak kulunkan. Marrubi ta lirio zero bete.

Entzun haize kirriaren hitzak.
Entzun egunsentiaren murmurio luzeak.
Entzun kaleko isila.

Ez hadi mugi. Begira! Norbait datorke arratsean.
Agian... Ate hotsa! Ate hots leuna belarrietara.

Begira kaleen ilaran semaforoan lepokoa.
Badoaz auto guztiak tertziopelo beltzezko etxeetara.

Hara! Iluneko atek irekitzear...

Pierre Gamarra

OI, ARGI IKUSTEZIN

Oi, Argi ikustezin, gorespena Zuri!

Dirdaitsuegia, giza begientzat.
Oi Argi Goren, argi txikiagoengatik goosten zaitugu:
egunsentian gure eliz-dorreak ukitzen dituen
ekialdeko argiagatik,
arrastirian gure mendebaleko ateen zirrikituetatik
sartzen den argiagatik,
putzu geldien gaineko ilunabarreko argiagatik,
saguzaharren orduan,
ilargiaren eta izarren,
hontzaren eta tximeleten argiagatik,
belar izpiaren gaineko ipurtargiaren argi umilagatik.

Oi, Argi ikustezin, gure gurtza Zuri!

Eskerrak damaizkizugu guk piztu ditugun argiengatik,
aldareko eta santutegiko argiagatik;
gauerdian meditazioan dihardutenen argi txikiengatik,
beirate koloretsuetan zehar sartzen den argiagatik,
harri higatuak islatzen duen argiagatik,
egur landu doratuagatik, kolorezko freskoengatik.
Gure begirada itsaspekoa da,
gure begiek gora begiratu
eta ur asaldatuetan hautsi den argia ikusten dute.
Argia dakusagu; ez, ordea, nondik datorren.

Oi, Argi Ikustezin, aintza Zuri!

T. S. Elliot

OI, ENE BIHOTZ

Oi ene bihotz! Zein urbazterrera hoa?
Ez zagok hire aurrean beste ibiltaririk;
biderik ere ez.

Urbazter hartan,
non zagok mugimendua, non atsedena?

Han ez zagok urik, ez batelik, ez lemazainik.
Ezta soka bat ere bateletik tiratzeko.
Ez gizakirik ere hartatik tira egiteko.

Ez zagok lurrik, ez zerurik, ez denborarik.
Ez zagok ezer.
Han ez zagok erriberarik, ez pasabiderik.
Han ez zagok ez gorputzik ez adimenik.
Eta, non ote duk
gogoaren egarria ase dezakeen leku hori?
Huts horretan ez duk aurkituko.

Uxa higandik irudipen guztiak
eta hadi sendo haizen horretan.
Azkartu hadi eta heure gorputzean sar.
Hor, hire oinkada sendoa izanen baita.

Oi ene bihotz nirea,
hartzak hori aintzat eta ez joan beste inora!

Kabir

OI, GURE JAINKO

Oi gure Jainko,
aurrez aurre begiratzen dizugu aska gaitzazun,
bekatuaren egiturek beren atzamarretan
harrapa ez gaitzaten.

Zerbait egin gabe utzi badugu, Jauna,
gure eskuak bidegabekeriaz gainezka badaude,
maltzur jokatu badugu zintzoarekin
eta zapaltzaileari lagundu badiogu...

Une horretatik aurrera
etsipenak ez gaitzala lot
eta ez dezala ito gure itxaropena
gauaren betiereko bakardadean.

Jesus, aurkitu zaitzagula, hurbil,
Ebanjelioaren beroan.
Aska gaitzazu
agindu zapaltzaile guztietatik.

Kristau elkarteek
gorets zaitzatela
eta ireki ditzatela bake eta justiziazko ildoak,
oi Jaun, epaile erostezina!

Zure bizitza galdera ikur izan dakigula.
Bidegabekeriaren hats negatiboa
lurrindu dadila zure presentzian,
zuk antzaldatzen baituzu mundua.

Salbatzailea zara,
justiziaren bihotza,
inoiz huts egiten ez duen
gure uste onaren jomuga.

Ahulari segurtasuna ematen diozu,
ardura zure jarraitzaileari,
egitura zapaltzaileen mozorroak kentzen dituzu,
barkamenerako gonbita zara.

Metodo berri errefinatu
eta gordeagoak asmatzen badituzte,
beren prentsa adierazpenek gaitzetsi egingo dituzte
eta haien izenak zikinduko du historia.

Jaunak pertsona guztiak onartzen ditu,
salbuespenik gabe.
Eman diezazkiogun eskerrak Jaunari
eta aldarrika dezagun bere presentzia.

José Serna

OMENALDI

Zorionekoa gezurrean bizi dena
hatzez seinalatzen duen pertsona.
Bizitza osoan jarriko du
bizia jokoan.
Zorionekoa bidegabeekin
elkartzen ez dena,
eta gau eta egun jende arduratsua
adoretzen duena.

Ibai ertzetan landatutako
zuhaitzaren antzekoa da,
sasoian fruitua eman
eta beti bizi-bizirik dagoena.

Bizitza suntsitzen dutenak
haizeak eramandako lasto izpia dira,
eta dardarak hartzen ditu
pertsona zintzoaren aurrean.

Ebanjelioaren bidea
ez da eroso;
bidegabekeriaren bide zidorrak, ordea,
ez du irtenbiderik.

José Serna

ORAINDIK ZURE BIDEAN DIHARDUGU

Aldaketa sasoi honetan,
itxuraz biderik ez dagoenean,
gauak irabazle atera dela uste duenean,
etorri da erabakia: "Ni zurekin nago".

Eta hor jarraitzen dugu,
zelatari izan nahian,
zintzotasunean huts egin gabe,
iratzarri egunsentian.

Ez zaizkigu eskaintzak falta,
zeru berrien mila promesa,
baina badira baztertzen ez diren kredoak,
mortuetan sortuak baitira.
Eta zure atzetik goaz, Jesus anaia,
eskaintza bat bezain biluztua,
gizon-emakume egiteko bidean
lur honetako pobreekin batera.

Hainbeste nahasmendu eta
askatasun unformatu garai honetan,
alertarako ahotsa nahi dugu izan:
bizitza ez da betea, emana izan ezean.

Eta oraindik bizitza sarraskitua
den mugetan jarraitzen dugu,
sistemaren gurutzean behin eta berriro
hiltzen dituztenekin bat eginda.

Ebanjelioa dugu bizi-egitasmo
oraindik garai hauetan,
antzinean amets honengatik
bizia eman zuten maisuekin batera.
Komunioan, anai-arrebok,
izango gara zeinu sinesgarri:
posible dela beste mundu bat
eta ahots hori mututu ezinezkoa dela.

Jubileua da, horregatik egiten dugu festa,
makina bat urtez egin dugu bidea,
hain pobreak eta ahulak garen arren
beti gurekin izan baitzara.

Eta lehen amodioa galdu gabe
lotzen ditugu mistika eta profezia,
gure herriaren eskutik
bere alaitasun eta martiritzan.

*Eta oraindik zure bidean dihardugu,
Jainko gizon egina, maisu, gidari.
Eta guztiz sinetsita bizi gara
Erreinua dela gure utopia.
Eta oraindik zurekin, zure egitasmoarekin
maitemindurik bizi gara,
barrez oraindik eta kantuan,
mundu berri bati guztiz emanak.*

Germán Pravia

OSA ITZAZU PLANOAK

Osa itzazu planoak, Arkitekto Jauna,
denbora didazun bitartean,
garaia bete zait eta.

Hasieran ziren maketa eta proiektu
ez baitira azkenera arte eraikuntza eder azalduko.

Eguzki Lorearen ateetan idatzirik dago:
Ez du gizakiak gizakirik azpiratuko,
ez senarrak emazterik:
hemen ez da minetan erdituko.
Ez da hemen idortarik.
Lehoia eta gizona lagun dira hemen
segatzardun hezurreria erbesteratu genuen aspaldi.

Bizi zuhaitzetik janen dugu denok hemen.
Dena berri baitugu hemen.

Gizonaren akaberan, orduan, izanen da dena berri:
orduantxe sortuko-jaioko.

Iokin Otaegi

OSO-OSORIK EMATEN NATZAIZU

Jesus Jauna:

Nire eskuak damaizkizut, zure lana egiteko.

Nire oinak damaizkizut, zure bidea egiteko.

Nire begiak damaizkizut, zuk ikusten

eta begiratzen duzun bezala ikusi eta begiratzeko.

Nire ezpainak damaizkizut, zure hitzak esateko.

Nire adimena damaizut, nire bitartez pentsa dezazun.

Nire espiritua damaizut, nigan otoitz egin dezazun.

Batik bat, nire bihotza damaizut,

nigan Aita eta senide guztiak maite ahal izan ditzazun.

Naizen guztia damaizut, nigan haz zaitezen

eta izan, Jesus Jauna,

nigan bizi zarena, nigan otoitz eta lan egiten duzuna.

Zure ardurapean jartzen ditut, Jesus, ene Jaun eta Anaia,

nire arima eta gorputza,

nire otoitzak eta itxaropenak,

nire osasuna eta gaixotasunak,

nire eguneroko lan eta nekeak,

nire bizitza eta heriotza,

nire familia eta senide maiteak,

nire lagun eta hurkoak,

nire lurra, gizadi osoa,

gaur eta beti. Amen.

Lancelot Andrews

OSPA EZAZU ZEURE BIZITZA

Bidean geldialdi bat egin
eta, egunsenti, eguerdi nahiz ilunabar izan,
zure aurpegiaren ispiluan begiratzen naizenean
ahots baten oihartzuna entzun dezaket:

Ospa ezazu gaur biziaren alaitasuna!

Konta itzazu urteak...

Ez bizi izan duzun denboragatik,
zure bihotzaren samurtasunagatik baizik.
Ez minaren mingostasunagatik,
lortutako poz eta bakeagatik baizik.

Ez zure arrakasten kopuruagatik,
bilaketaren abenturagatik baizik.
Ez iritsi zaren aldiengatik,
abian jartzeko adorea izan duzulako baizik.

Ez bildutako fruituengatik,
erein duzun haziagatik baizik.
Ez izan dituzun desilusioengatik,
sortu duzun itxaropenagatik baizik.

Ez uko egin behar izan diezun gauzengatik,
aberastu zaituzten topaketengatik baizik.
Ez maite zaituztenen kopuruagatik,
guztiak maitatzeko gai den
zure bihotzaren irekitasunagatik baizik.
Ez betegabe gelditu diren ametsengatik,
oraindik ilusionatzen zaituztenengatik baizik.
Ez dauzkazun edo egiten dituzun urteengatik,
urteekin egiten duzunagatik baizik.

Ospa ezazu gaur biziaren alaitasuna!

Helmuga guztien atzean, abiapuntu bat dago;
lorpen guztien atzean, erronka bat,
porrot bakoitzaren atzean, hazi berri bat.

Enbataren ondoren baretasuna dator;
hodeien ondoren, zeru oskarbia,
neguaren ondoren, udaberria.

Ez zaitetz argazki horailen babesean bizi;
egiten zenuena harrigarri egiten bazaizu, egizu berriro,
baina inoiz ez ezazu suntsi zeure burua.

Ospa ezazu gaur biziaren alaitasuna!

Eta nire erraiak dardaraka jartzen dira,
eta nire izate guztiak behin eta berriz
“eskerrik asko, Jauna, eskerrik asko”
errepikatzen duen kantua abesten du.

Florentino Ulibarri

OTOITZ EGITEA ZER DEN

Otoitz egitea zer den? Nola esango?

Nire otoitza ez da buruz ikasitako formulaz egina.

Ezin harrapaturantz naraman desioaren tentsio itzela da nire otoitza.

Ikusten ez dena margotzeko ahalegina da otoitza.

Eternitateko oihalean margoak ipini nahia da otoitza.

Luzaro zain egotea, isilik irautea, noiz edo behin “bisitatua” izatea.

Hori guztia da nire otoitza.

Arkabas

PAZKOA IRAGARTZEKO OTOITZA

Hau da bizitzaren Jainkoaren sasoia.
Emandako bizitzarena, eta burututakoarena.
Jainkoaren aintzarena, eta gure duintasun galduarena.

Presentzia eta topaketa sasoia da,
bake, otordu eta besarkada garaia;
bihotz sutuen eta jantzi zurien sasoia,
urrutirako bidean jartzeko ordua.

Esperientziaren sasoia da,
Jaunak lurreko bazter eta pertsona guztiak
bisitatzeke ordua.

Lore, amets eta utopien sasoia,
oihu, kantu eta aleluien garaia.
Bainu eta murgilketen sasoia da,
aitorpen zintzoena, eta komunioena,
pertsona berriak izateko.
Jainko sasoia, bidean doan gizakiarentzat.

Udaberri loratuaren sasoia da,
kateak, amuletoak eta beldurrak,
jaun zahar eta berriak baztertu
eta askapen sakon eta behin betikoan
bizitza sentitu eta bizitzeko ordua.

(...)

Oi, Zu, Kristo Berpiztua,
Zure Ebanjelioko hitz goxoa entzuten dugu.
Zuk diozu: "Zergatik kezkatu?
Gauza bakar bat da premiazkoa:
nire Hitzari eta Espiritu Santuari adi dagoen bihotza."

Oi, Jesus, gure alaitasuna!
Zure ondoan barkamena aurkitzen dugu,
iturburuen freskotasuna.
Jainkoaren errealitateen egarriz,
zure presentzia Berpiztua ezagutuko dugu.
Eta, almendrondoa
udaberriko argiarekin loratzen den bezala,
loretan jartzen dituzu arimaren desertuak.

Florentino Ulibarri □ Taizé

PRESENTZIA BIZIA

Artegatasunak behin eta berriro
betiko lanera bultzatzen gaituenean,
ausentzian imajinatzen bazaitugu ere...
*Zu hor zaude, itxaropen berriz jantzita,
egoera zailenetan ere indarrez txerta gaitezen.*

Gauaren erdian, ilunpetan,
arraunean ari garenean ere,
gure sareak hutsik ikusten ditugulako
bakarrik eta nekatuta sentitzen garenean...
*Zu hor zaude,
gure begirada lausotuaren atzean.*
Goiz-aLban,
argia iluntasunari nagusitzen zaionean,
gau luzea lanean jardun ondoren,
kaira jotzen dugunean...
*Zu han zaude, gure itzalak argitzeko,
proposamen berriak egiten.*

(...)

Jauna, eskerrik asko zure piztuerak
egunsenti berri bat ekarri digulako bizitzan,
leialtasunera deitzen digun egunsentia.

Jauna, haurren konfiantzarekin
egin behar dugu Zuregana,
Zeure eskuetan jarririk gure bizitza.
Zure sareetan harrapatuta
ikusi nahi dugu gure bihotza,
bizitza norabidea aldatu
eta begirada ezberdin batez ikus dezagun.

Sareak betetzen zaizkigunean,
bizitzak bere oparotasunetik ematen digunean,
gure horizonteak zabaltzen dituzu,
zure presentzia nabaritzen dugu
biluzik uretara jauzi egiteko esaten digun deian.

Bazkaltzeko orduan,
mahaia bedeinkatzen duzunean,
gure betiko laguna zarela sentitzen dugu,
eta zugandik ikasi behar dugula
zer den partekatzea.

Eta Pedrori bezala “Maite al nauzu?”
galdetzen diguzunean,
Zuk badakizu maite zaitugula,
eta nahi ez dugun tokiren batera
eramaten bagaituzu ere
jakin badakigu
zure eskuak ez digula huts egingo.

PREST DAGOEN ANAIDIA

Jauna, emaguzu aldi berrietarako prest
dagoen Anaidia,
bere identitatearen kontzientzia duena,
emandako hitzari irmo eutsiko diona,
aurkitu dezagun zure aurpegiaren ederra,
zure sakontasuna.

Bataioko bokazioa Elizaren baitan
biziko duten gazteak nahi ditugu,
gazte salletarrak,
Jainkoaren dei larri eta gozoari adi,
pobreen zerbitzari izateko.

Gazteei ireki nahi dizkiegu gure elkarteak,
sakondu dezaten esperientzia espirituala,
egin dezaten bokazioaren diszernimendua,
gure misioa hobeto ulertu ahal izateko.

Gune egoki bat eskaini nahi diegu,
bideratu ditzaten kezkak,
ezagut gaitzaten barrutik.
Gauaren isiltasunean,
gazteei Jainkoaren naretasuna eta bakea
sentitzeko aukera eman nahi diegu,
ikus dezatela gizakiaren eta Elizaren zerbitzari garela
gure hezkuntza eta pastoraltza jarduerak bitarteko.

PROFETEN ALDEKO OTOITZA

Emaguzu profeten espiritua,
basamortuan hausnarketa egiteko gogo,
mundua bere oinarrietatik aldatu behar dela
argi ikus dezagun.

Zuk baitituzu, Jauna, profetak sortzen.
Sor itzazu gure artean ere:
moldeak apurtuko dituzten gizon-emakumeak;
bideak irekiko dituzten gazteak;
behartsuentzat Berri Onak asmatuko dituztenak.

Elkarturik bizitzeko egin gaituzun Jauna,
emaguzu bihotz errukiorra eta eraginkorra,
egunero pobreekin bat egin dezagun.

Ituna egin duzu behartsuekin, morroiekin,
langileekin, mundu honetako zaborreriarekin,
jatekorik ez dutenekin.
Zure antzera itun bat
sinatzen dute profetek zapalduekin
haien negarrak eta deiadarrak entzuteko.

Odol aztarrenak dituzte profeten bideko harriek:
torturatuak eta heriotzara eramana izan ohi dira.
Haien odoletik bizi gara gu hain ongi.
Jesusek bezala, guk bizia dezagun,
galdu dute haiek bizia.

SEGIMENDUAREN SALMOA

Jauna, Zu nigana etortzen bazara
zure atzetik abiatuko naiz
hegaldirako horizonte zabalagoak erakutsiz.

Zu zarela askatasuna erakutsiko diet guztiei.
Zugan bakarrik zoriona, egiazko bakea,
Zugan bakarrik iturburua.

Zure izenean joango naiz beti zure bila,
biluzik eta gauez,
zure amodioaren egarriz.

Zu zarela alaitasuna erakutsiko diet guztiei,
Zu zarela maitasun zoragarri baten
eskaintza betierekoa.

Lehia bakoitzaren ondoren,
gizakien min
eta bakardadearen bidera aterako naiz.

Deitzen badidazu,
zalantzarik gabe joango naiz zure atzetik,
Zu baitzara nire bidea.
Eta Zure egia, zure amodioa, zure askatasuna
izango dira nire hitza.

SENIDE IZATEA

Jauna,
azken ehun urteotan,
ia ehun gerra egin dituzte
gizon-emakumeek: irakats zeure
seme-alabei elkar maitatzen.

Jauna,
zure maitasunik gabe ez dago maitasunik.
Egizu, izan gaitzela elkarren senide,
mugarik gabe senide,
egunero eta bizitza osoan senide,
alaitasunean eta saminean senide.

Orduan
gure ospitaleak zure katedralak izango dira,
eta gure laborategiak zure handitasunaren lekuko.
Eta garai bateko ahaztuen bihotzetan
distira egingo du zure santutegiak.

Orduan,
zure onginahiarena beste nagusitasunik onartu gabe,
gorrotoak, indarkeriak eta diruak
birrindua duen gure zibilizazioak
bake eta justiziazko loreak emango ditu.

Egunabarra egunbete bihurtzen den bezala,
nahi beza zure maitasunak
2000.eko seme-alabak
itxaropenean jaiotzea, bakean haztea,
eta azkenean argitara iristea, Jauna,
Zu zarela Bizia aurkituz.

Raoul Follereau

SENITARTEKO MAITASUNEAN

Jesusen aita, gure Aita,
aintza zuri,
maitasun zaren Horri,
maitasun horrekin
gure bizitza ere ihintzatua baituzu,
eta gure bihotzak samurtuak.

Onespen zuri, bai,
Semearengan azaldu diguzun maitasunagatik;
bihotz zabal, baita
eta laguntzaile zure maitasuna;
ez baita berekoi, ez harro;
ez baita haserretzen, ez erretzen;
ez baititu egin zizkion
txarkeriak buruan gordetzen;
zuzenbidetik sortuak diren
bake eta egian baitu atsegin;
beti usteon, beti itxaropen, beti egonarri,
txarkeriaren zuribide baita beti.

Senitarteko maitasunean bizi garenean,
jaioak izan garen mundu txiki hura,
geure "ni" horren neurri motz eta estuak apurtzeko
eragin ezin eutsia etorri ohi zaigu,
eta Anaiarekin topo egitera irteteko
gogoia jaiotzen da ustekabeen gure bizitzan,
joritasun osorako agintzaria bailitzan.

Agintzarien lur baita beti Anaia, misteriotsua,
ugalkortasunez eta aberastasunez betea.
Baina baita itxitura itsu ere,
erresistentzia eta izutzen gaituen iluntasun.

*Onespen zuri,
Elkartera bildu gaituzulako.*

SINESTEN DUT EMAKUMEAREN BERRIONA

Sinesten dut Jainkoa,
emakumea eta gizona bere irudira sortu zituena,
mundua egin zuena
eta bi sexuei lurraren ardura eman ziena.

Sinesten dut Jesus,
Andre Mariagandik jaio zena,
emakumeak aintzat hartu eta entzuten zituena,
haien etxeetan ere sartzen zena,
Erreinuari buruz haiekin mintzatzen zena,
bere ondasunekin
babesten zuten emakume ikasleak ere bazituena.

Sinesten dut Jesus,
emazteki batekin iturri baten ondoan
teologiaz mintzatu zena,
lehen aldiz bera zela Mesias aitortu ziona,
herrira joan
eta berri harrigarriak kontatzera bultzatu zuena.

Sinesten dut Jesus,
Simonen etxean
lurrin gozoz igurtzi zuen emaztekoa maiseatu zuten gizonei
gogor demanda egin ziena.

Sinesten dut Jesus,
andere hori, egin zuenagatik,
hau da, Jesusen zerbitzuan jarri,
izango zela goratua esan zuena.

Sinesten dut Jesus,
andrazko bat, giza izakia zelako,
larunbatez sendatu zuena.

Sinesten dut Jesus,
Jainkoa, galdutako txanponaren bila
etxea erratzez garbitzen ari zen emakumearekin
konparatu zuena.

Sinesten dut Jesus,
haurdunaldia eta jaiotza,
ez zigor bezala, miresmenez baizik,
estualditik atseginera jaiotzea bezala begiratzen zituena.

Sinesten dut Jesus,
aurrena Magdalako Mariari agertu zitzaiona:
“zoaz eta esan” berri harrigarria
zabaltzera bidali zuena.

Sinesten dut Jesus,
beretzat ez baita ez judu ez greko,
ez esklabo ez libre, ez gizon ez emazteki;
bat baikara guztiok salbamenean.

Sinesten dut Espiritu Santua,
sorkuntzako uraren eta lurraren gainean dabilena.

Sinesten dut Espiritu Santua,
Jaungoikoaren arnas emea, sortu eta jaio gintuena,
oiloaren antzera bere hegalean babesten gaituena.

SINESTEN DUT JAINKOA

Sinesten dut Jainkoa
eta sinesten dut gizona
Jainkoaren irudi.

Sinesten dut gizonengan,
haien gogoetan,
haien lan eskergan,
direnak izatera eraman baititu.
Sinesten dut bizitza,
eguneroko zorion eta iraupen:
ez heriotzaren menpeko mailegu iheskor,
betirako opari baizik.

Sinesten dut bizitza,
bikaintzeko eta ederragotzeko
mugarik gabeko gaitasuna dugulako.

Sinesten dut poza;
geldiune bakoitzeko,
sasoi bakoitzeko,
argi-urratze bakoitzeko,
ilunabar bakoitzeko,
begitarte bakoitzeko aintza;
burumuinari,
zentzumenei,
bihotzari
darien argi izpia.

Sinesten dut giza-familia handi bakarra,
bakean, espirituaren eta eskuen
ondasun guztien trukaketa,
Kristok nahi duen bezala.

Sinesten dut neugan,
pozik handiena gozatzeko
Jainkoak eman didan gaitasunean;
hori baita ematea, eta zeure burua ematea.

C. Bevilacqua

TENTSIOAN

Lurretik naiz eta lurrera noa itzuleran.
Nire eternitatearen irrika hain da haragi eta mami
ezen nire maitasun grinak, nire bizitzak,
betiko iraungo duen.
Barrurantz zurrunbiloka hautsiko baitut
uztaiaren burdin gogorra.
Eta eternitatera salto egingen dut.

Lasterketa bukatu
eta festari emanen diot hasiera.
Ni ez nauzu denboraren hesietara mugatua,
ez baita maitasuna mugetan bukatzen.

Heriotza jasaten du amak
haurra mundura dakarrenean.
Bere bizia eternitatean sartzen du ordea
bizia sortuz.

Bi arku ditut tentsu tentsioan jarrita,
gezia noiz irtengo zain.
Barrurantz daroa gezia,
bihotzerantz, muinaren muinerantz,
harrapatu ezinean.

Eta nire barruko gunearen muinean
ukituko nauenean
sortuko naiz-jaioko Zuretzat, maitea,
hilko.

Kanporantz doa gezia itsu eta bizi,
betiko biziaren bila.
Heriotzatik ihesi.

Heriotzan harrapatuko ordea
eternitatearen eta mugatuaren puntu geometrikoa.

Beti irteteko grinatan dago gezia.
Irtten da helmuga xederantz abiada itsuan,
norabide justuan.
Inoiz ere ez heltzen ordea ez bada heriotzan.

Oi nire gogo guztien bat-bateko orgasmoa.
Festa horren atzetik noa ikaraz eta gozo,
aztarna mingarri eta lausotuen bihozkadetan.

Barruranzko gezian noa ni osoa,
osabetetzeko gogo minez.
Urrutiranzko gezian noa ni neu
osabetetzeko grina infinituaz.

Kanporantz beti barruko ustel heriotzatik ihesi.

Iokin Otaegi

TXANGORIK LUZEENA

Bizirik zaude zu, Jainko.
Nigan zaude.
Hemen.
Orain bertan.
Zu bazara.

Nire Izatearen funtsa zara.
Nigandik askatzen naiz.
Banoa hondorantz, Zugan murgil.
Zuk betetzen duzu nire Izatea.
Nitaz jabegoa Zuk duzu.

Nire arnasa Zuganako otzantasun otoitz
bihur dadin lagatzen dut.
Nire arnasa: arnasa hartu, arnasa bota,
nire Izate osoaren erakusgarri da.

Zugatik dagit,
Zurekin.
Zugan.
Biok bat egiten dugu arnas.
Barneranzko bidaiari ematen diot hasiera.
Nire barnerantz noa,
nire Izatearen gunearen muinera,
hor baitzaude Zu.
Nire Izatearen gune sakonenean,
Zeu zaude beti ni ailegatu baino lehen,
arian, bizi arazten,
nire pertsona osoa pizten.

Dag Hammarskjöld

UDABERRIA GALILEAN

Bazihoan Jesus Galileako
bide zazarretatik.
Hautsa zegoen edonon.
Jesusek, ordea, ireki zituen iturburuak
eta Jainkoaren Espirituaz jantzi ziren
hauts eta harri,
udaberriaren aitzindari.

“Sinetsi Berri Ona, bihotz-berri zaitezte!”
Horixe zen Jaunaren mezua,
hurbilago izan genezan salbamena.
Salbamena iristeko gure eskuen beharrean zaudela
erakutsi zenigun,
eskatzen diguzun borondate ona
askatasun arduratsua baino ez dela erakutsiz.

Eta eskolara bultzatu gintuzunean ere,
askatasunaren eta arduraren eremu
egin behar genuela esan zenigun,
hori dela Zure bidea inoiz Berri Onaren zabaltzaile
izango bagara,
beldurrik gabe, ezertara behartu gabe,
zure modura.
Jauna, hau da gaurko gure oihua:
gizon-emakume eta herri baztertuek
jakin dezatela Zu hurbil zaudela,
oraindik ere herriz herri zabilzala gaixoak sendatuz
eta pobrenei Berri Ona zabaltzen.
Sarritan Zure presentzia sentitzen ez badugu ere,
Jainko hurbila zarela,
eta gure beharrean zaudela
inoiz Udaberria itzuliko bada.

URTEA BUKATZEKO OTOITZA

*Jainko Jauna,
denboraren eta eternitatearen jabe zaren Hori:
zureak dituzu oraina, iragana eta geroa.*

Urte honen amaieran zugandik jaso dugun guztiagatik eskerrak eman nahi dizkizugu.

Eskerrak biziagatik, maitasunagatik,
itsasoagatik, landa aire eta eguzkiagatik,
alaitasun eta oinazeagatik,
posible izan diren gauzengatik
eta posible izan ez direnengatik

Urte honetan egindako guztia eskaintzen dizugu,
egin ahal izan dugun lana
eta gure eskuetako gauzei esker
egin ahal izan dugunagatik.

Hilabete hauetan maitatu ditugun pertsonak
aurkeztu nahi dizkizugu,
adiskide eta amodio zaharrak,
gugandik hurbilago eta urrutiago daudenak,
eskua luzatu zigutenak,
gure laguntza hartu ahal izan dutenak,
gurekin bizitza, lana, oinazea
eta alaitasuna partekatu dituztenak.
Baina, Jauna, barkamena ere eskatu nahi dizugu:
galdu dugun denboragatik,
xahutu dugun diruagatik,
alferrikako hitzengatik,
lardaskatu dugun maitasunagatik.

Barkatu gure lan hutsalak, gaizki eginak,
barkatu berotasun eta garrik gabe bizi izanagatik.
barkatu poliki-poliki otoitza baztertzen joan garelako,
barkatu gure ahanzturak, arretarik ezak eta isiltasunak.
Datozen egunetan urte berri bat hasiko dugu.
geldiune bat egiten dugu gure bizitzan
egutegi estreinatu gabearen aurrean
eta zuri aurkezten dizkizugu egun horiek,
bizi ere biziko ote ditugun ez dakigun arren.

Gaur bakea eta alaitasuna eskatzen dizkizugu
guretzat eta gure ingurukoentzat,
indarra, zuhurtzia, argitasuna eta jakinduria.

Egizu egunak berotasun eta ontasunez bizi ditzagula,
edonora bihotz ulerkor eta baketsua eramanez.

Ez bedi gezurrik iritsi gure belarrietara,
ez bedi gezurrezko hitzik,
hitz egoista, zaugarri edo mingarririk
gure ezpainetatik atera.

Aldiz, ireki ezazu gure izakia on den guztira.
Bedeinkapenak gainezka egin dezatela gure izpirituan
eta bete ditzatela gure urratsak.
Amen.

ZALANTZAREN ITSASOAN

Zalantzaren itsasoan,
uraren euskarri malguan,
dudaren gorabeheretan,
nor ez da Pedro bezala
larritzen eta labaintzen,
nor ez da uretan sartzen
fedearen argia
zerbait belzten zaionean?

Itsasora deitu gaitu
Jesusek, uren gainera,
berarengan fidatzera,
beste euskarririk ez dugu;
baina zutik irauteko
euskarri trinko ta ziurra
Jesus bera da.

Pedrorentzat bezala
Jesusen hitza da gure
euskarri salbatzailea.

Bitoriano Gandiaga

ZATOK GURE ONDOTIK

Jauna,
jende xumea soilik ohartzen da
zure handitasunaz.
Jende xumea soilik da bihotz-
bihotzez
"eskerrik asko" esateko gai.

Jauna, zuk badakizu
zerbait berriaren bila,
iristeko dagoenaren zain
aurrera begira daudela gure begiak.
Jauna, goazen tokira goazela ere,
ez dezagula traba izan
zure presentzia.
Edozein tokitan
zure lekukotasuna emateko,
gure fediaz lotsarik ez izateko
eta beti Zutaz oroitzeke
zaitez guretzat
behar dugun laguntza.

Naturan eta lagun artean,
aisialdian eta isilaldian,
zatoz gurekin egunero, Jauna.

Juanjo Elezkano

ZATOK GUREKIN, BIDAIDE

Zatok gurekin, Bidaide!

Sar zaitez gure ibilbidean
eta egizu gurekin bidearen zati bat.
Zure begietako argiak piztuko ditu gure urratsak;
isilean esaten diguzun hitzak
piztuko du gure bilbearen azken bazterra.

Zatok gurekin, Bidaide!

Zure adiskidetasunezko presentzia zintzoak
bultzatuko ditu une oro gure oinak,
uxatuko ditu, iluntzean, gure zalantzak
eta aurrera botako ditu gure beldurrak.

Zatok gurekin, Bidaide!

Norabidetu ezazu gure erromes biziera
gure topaketaren iparrera,
eta laguna lagunari mintzatzen zaion bezala
mintzatuko gara
gure historia eta gure egunak betetzen dituzten
misterioez,
sekretuez,
irritsez. Asko baitira.

Zatok gurekin, Bidaide!

Bete-bete izan baitzinen
emakume samariarraren bidaia-lagun
putzuaren karelean;
Nikodemorena gauaren isilean,
Emauskoena bidean,
eta milaka mundu, milaka egia
amesten dituzten erromesena,
betieran.

Zatok gurekin, Bidaide,

*eta piztu ezazu elkarrizketaren su bizia
gure baitako supazterrean!*

Ángel Esteban

ZATOZ, JESUS JAUNA

Zatiturik dagoen mundu honetara...
Zatoz, Jesus Jauna.

Bakarrik sentitzen den jendearengana...
Zaurituta dauden pertsonengana...
Itxaropenik gabe bizi direnengana...
Bilatu bai baina aurkitzen ez duenarengana...
Ixiltasunean sufritzen ari denarengana...
Zure zain dagoenarengana...
Eta zure zain ez dagoenarengana...
Bakea amesten duenarengana...
Kausa on baten alde lan egiten ari denarengana...
Asmatu ez duenarengana...
Gure munduko hainbat sorlekuetara...
Gure familietara...
Gure herrira...
Beldurra duenarengana...
Zalantzan murgildurik dagoenarengana...
Gure lantokietara...
Gure ikastetxeetara...
Gure eguneroko bizitzara...
Gure etxera, gure elkartera...
Zatoz, Jauna.
Zain gauzkazu eta.

ZEINEN EDERRA DEN

*Zeinen ederra den bizirik egon
eta bizitzaren erraietatik
biziki bizitzea egunak!*

Labetik ateratako ogi berriaren
perfumea usaindu
eta orantza oneko gari soroez ereinda
gaudela sentitzea,
eta gozotasun-ukitu zerutierra eman dioten eskuak
maitakorrak direla, laztanaren laztanez.

Lagunaren agurrarekin gozatzea,
triziklo zaharrean dabilen haurraren barrearekin,
txorien hegaldi harmoniatsuarekin,
kilkirraren kantu berdearekin
edo euri otzanarekin,
izotz-oreztaz margotzen dituenean kristalak.

Herio gehiegi dago gure alboan
eta, gaindituko badugu, bizi egin behar da,
eguzkiaren zaplada gozatu goizero,
bere senidetasunezko besarkada laguna.

Bizitza gozaten segitu behar dugu,
denboraren zizelak zimurrak
landu badizkigu ere aurpegian
edo zertxobait makurrarazi badigu ere gorputza.

Egunsentiko uztarako ordua da,
isiltasunak gozatzekoa,
munduarekin berriro txundituta
gure barrura begiratu
eta alaitasunaren haurra daramagula barruan jakitekoa,
bakardadeen, oroitzapenen beldurrik gabe.

Unez une bizi behar da bizona,
amaigabeko poztasunez, esker onez,
eta zero urdinaren amodioz maitemindutako kometa
balitz bezala,
soka askatu, hegan egin dezan,
haizearekin desposatuta,
Jainkoarekin topo egiten duen arte,
kriskitin hitzez esateko
merezi izan duela bizi izatea
zintzotasunez, pasioz, sentimenduz.

Beatriz Rivera

ZEINEN GOZAGARRIA (83. salmoa)

Zeinen gozagarria den zure adiskidetasuna,
Jaun harrigarria!
Nire bihotza dardarka jartzen da
zure aurrean nagoenean,
zu baitzara kontsolamenduaren
eta samurtasunaren sustraia.

Zorionekoak zure aurrean
bizitza ederragotzen jarduten dutenak.
Bai zorionekoak bizitza osoa
zuk sortutakoa zaintzen ematen dutenak:
ez dute arimaren lehorterik jasango,
eta haien ahaleginak sormen berri baten
graziaz jantziko dira.

Harrigarrien Jainko,
bizitzaren alde lehiatzen direnen Jauna:
entzun nire deiadarra!
Eguzkipean bizi den guztiaren edertasuna
izan bedi nire kantu!

Atseginago dut egunsentiaren zentinelaz izatea
segurtasunen biltzaile izatea baino,
nahiago dut zuri irekita bizitzea
neure grinetan atxilotuta egotea baino,
zuk bakarrik pizten baitituzu gure bihotzak
bizitzaren aldeko pasioz.

ZER NAHI DUZU NIK EGITEA?

Oraintxe, sentitzen zaitudanean,
nire baitan bizi naiz,
oraintxe, inguratzen nauen guztian
zure taupada sentitzen dudanean,
oraintxe, nire isiltasunean agertzen zarenean
Jauna, zer nahi duzu nik egitea?

Hemen nauzu, zure nahia egiteko prest.
Zarataren eta presaren artean
lagundu nazazu une, egoera
eta istant orotan aurkitu zaitzadan.

Jauna, ikus dezadala zer egitea dagokidan,
zein toki hartu behar dudan senideen zerbitzuan.
Zure Espirituak, eta ez nire egoismo ezkutuk,
gida ditzala nire urratsak.

Ireki itzazu bideak,
marka itzazu zure Ebanjelioaren lekuko izatea
ahaleginduko didaten bidezidorrak,
ni neu naizen horretatik
zure maitasunezko lankide izan nadin.

Badakit nirekin kontaktzen duzula betidanik,
erreinua eraikitzen zurekin jardun dezadan.

Zure aurrean, Jauna,
naizen bezala, nire ezerezean...
zer nahi duzu nik egitea?

José Real Navarro

ZERBITZU ATSEGINA

Probidentzia osoa zerbitzu egiteko gogo da.
Lainoak, haizeak, eta ildoak zerbitzu egiten dute.

Landatzeko zuhaitz bat dagoen tokian,
landa ezazu.
Konpondu beharreko akatsa dagoen tokian,
konpon ezazu.
Guztiek saihesten duten ahalegina dagoen tokian,
onar ezazu.
Izan zaitez bidetik harria baztertu duena,
gorrotoa bihotzetik urrundu duena
eta zailtasuna, arazoetatik.

Osasuntsu egoteak eta bidezkoa izateak
poztu egiten gaitu,
baina pozik handiena eta ederrena
zerbitzu egiteak ematen du.

Bai tristea mundua dena egina egongo balitz,
landatu beharreko arrosondorik ez balitz,
sortu beharreko enpresarik ez balego.

Ez pentsatu gero lan handiak soilik egin daitezkeela.
Badira zerbitzu txikiak ere: mahaia konpondu,
liburuak txukundu, haur bat orraztu.

Hark kritikatu egiten du, honek suntsitu.
Izan zaitez zu zerbitzari.
Zerbitzu egitea ez da behe mailakoen zeregina.
Fruitua eta argia den Jaunak, zerbitzu egiten du.
Honela dei diezaiokegu: Zerbitzen duena.

Bere begiak gure eskuetan daude,
eta honela galdetzen digu egunero:
Zerbitzurik eman al duzu gaur?
Nori?
Zuhaitzari?
Zure anaiari?
Zure amari?...

Gabriela Mistral

ZINTZOTASUNA

Jainkoaz fidatzen bagara
ezin dugu arazoetatik ihes egin.
Zinez Jainkoagan sinesten badugu
inoren sufrimendua ez zaigu arrotza egingo.
Eroskeriaren bitartez nagusitzen direnak
indartsu egiten dira,
erabaki-guneen jabe egiten dira
eta balore gizakoienak ahanzten dituzte.

Iruzurra, engainua,
gerra, indarkeria,
ondasunen banaketa bidegabea
aiumaka ari dira.

Pertsona zuzenak,
eroskerian erortzen ez denak
su eta gar egiten du
oihu horrekin bat.
Guztia ikusten duen Jaunak
adoretu egiten du bere lanetan
pertsona zuzena.

José Serna

ZOKO ILUNEAN PILATURIKO ALTXORRAK

*Zoko ilunean pilaturiko altxorrak,
ongi gorderiko ondasunak emango dizkizut...
neu bainaiz argiaren egilea
eta ilunbearen sortzailea... (Is 45, 3.7)*

Zerua gurutzatzen duten txorien itxaropena,
lurraren usain sakon eta mikatsa,
itsasoa zeharkatzen duten zaldien kresala...
altxor, ondasun.

Zuhaitzen haragi gogor eta sendoa,
pinu moztuaren odol lekedatsua,
eguzkiz horditzen diren hostoen berdetasuna...
altxor, ondasun.

Gurekin bidaian doazen bideen eramanpena,
haizearen esku zartatuen askatasuna,
hegoen dei isilaren lilura... altxor, ondasun.

Gauza guztien, eta gure, kolore eta zama,
bizirik gauzkan zure Hatsaren bultzada,
zurea, zurea bakarrik den Egiaren indarra...
altxor, ondasun.

Halere, gizon-emakumeok askotan sentitzen dugu
posible dela ametsik ederrena ere
bere buruarekin kontraesanean jartzea,
ustez betiko den orekari zuzenketa bat egitea,
arriskuan jarri eta perfektua zirudiena
susmagarri bihurtzea.
Unibertso guztia erori egiten zaigu
eta, bitxia badirudi ere,
unetxo batez lasaitze inpresioa hartzen dugu
hainbeste altxor eta ondasunek,
gehiegizko jainkotasunak, beldurtuko bagintu bezala...

Patxi Ezkiaga

ZORIONEKO ZU, IRAKASLE

Zorioneko zu, irakasle,
ikasleak zure altxorra direlako
eta, haien artean biziz,
bizitza heldutasunera eramaten duzulako.

Zorioneko zu, irakasle,
zure bizitza gorde ordez,
isiltasunean eta eramanpenean,
itxaropenean eta zalantzan,
ilusioan eta kezkan,
oso-osorik eman egiten duzulako.

Zorioneko zu, irakasle,
ezkutuan dagoen bizia ernaraziz
zure betetasunera iristen zarelako;
bizitzara deitzen zaituen Maisuaren hitzaren
zain egoten dakizulako.

Zorioneko zu, irakasle,
guztiok profesional esaten dizuten arren,
egunero zure ikasleen aurrean zaudenean
haiengandik ikasten duzula ondotxo dakizulako,
maisua rentzat maisu baitira,
ezberdin, berezi, paregabe.

Zorioneko zu, irakasle,
guztiok barruan daramagun berritasuna
lore eta fruitu bihurtzera
deitua zarelako.

Zorioneko zu, irakasle,
besteen zorionak zorioneko egingo baizaitu.

ZORIONEKOA BEHARTSUA ZAINTZEN DUENA

*Zorionekoa behartsua eta ahula zaintzen dituena!
Zorionekoa beharrean dagoenari eskua luzatzen diona!
Zorionekoa laguntzeko beti prest dagoena!*

Jainkoak beti gogoan izango du
eta Jainkoaren oroimenean grabatuta geldituko dira
haren egite on guztiak.
Jaunak harengan jarriko ditu begiak
eta inoiz ez du bakarrik utziko,
Haren hitza entzuten jakin baitzuen,
maitasunerako deiari “bai” esan baitzion.

*Zorionekoak, bai,
bizitza bete-betean ematen dutenak!
Zorionekoak Erreinuaren izenean
den-dena arriskuan jartzeko prest daudenak!
Zorionekoak Jainkoa eta senidea
etengabe bihotzean dauzkatenak,
senidea baita Jainkoarenganako bidea!*

(...)

Jauna, jakin badakit nire bizitzak
besteei emana behar duela izan.
Sarritan entzun dut pobreak eta behartsuak
gogoan izan behar ditudala.

Eta jakin badakit pobreak ez direla bakar-bakarrik diru,
erosotasun eta janari faltan daudenak.
Badirela beste pobre mota batzuk ere,
nigandik oso hurbil daudenak:
maitasun bila dabilzan bidaideak,
adore hitz baten zain dauden lagunak.
Bai, Jauna, jakin badakit, baina hori ez da aski:
horregatik egiaztatu nahi ditut asmo on horiek
eguneroko bizitzan.

Lagun iezadazu, Jauna,
barrutik jaten nauen egoismo hau
bota nahi baitut nire bihotzetik.
Emadazu zure indarra,
nire ahaleginak hutsean gera ez daitezen.

Ondo dakizu, nire asmo on asko eta asko
hitz hutsaren eremuan bakarrik gelditzen direla.
Badakizu askotan gauzak buruan argi eduki arren,
borondatea falta zaidala
asmo on horiek gauzatzeko eguneroko bizitzan.

Horregatik, emadazu zure indarra
nire asmo onak egia bihur daitezen.

ZORIONTSU IZAN NAHI DUT

Ez dut zure Ebanjelioa nire eskuetan utzi nahi, Jesus Jauna.
Zure mezua nire bizitzarako arau egin nahi dut,
zure Hitzaren pozezko erritmoan sartu
eta zuk nire askatasuna deitzen duzun horretan murgildu.
Hemen naiz, mendiko irakatsiek gaudituta,
zure erronkekin txundituta,
zure eskabideen aurrean harrিতua
eta zure utopiagatik gartsu.

Ausarta zara, arriskatua zure mezuan.
Gizakiaren bihotzarentzat ezinezkoa,
soilik zure Espirituan ahal dena.

(...)

Zoriontsu izan nahi dut eta behartsuen bihotza eduki;
txikienekin, umilenekin, arruntekin izan zoriontsu,
gizakia menperatuko duen botererik gabe.
Nire bizitzan zure Erreinua aurrera eraman nahi dut.

Zoriontsu izan nahi dut eta bihotz otzana eduki;
jasankorra eta gozoa izango den bihotza,
tinkoa eta itxaropentsua,
eta lurra izateko gai izango dena.

Zoriontsu izan nahi dut eta negarrez ari denarekin negar egin;
sufritzen duenarekin eta zapalduarekin negar egin;
oinazea sentitu eta zure kontsolamendua sentitu.

Zoriontsu eta justizia gose eta egarri izan nahi dut;
zure borondatea bilatu eta nire jokabidearen oinarri egin;
eta zure mahaian eserita zure ondasunez ase.

Zoriontsu izan nahi dut eta bihotzez errukior izan;
bihozbera eta bakarrik denari abegi egin;
eta egun batean zure errukia iritsi.
Zoriontsu eta bihotz garbia izan nahi dut;
zintzoa, gardena, benetako pertsona;
eta egun batean zure aurpegi argitsua ikusi, Jauna.

Zoriontsu izan eta bakearen alde lan egin nahi dut;
pertsonek anai arrebak bezala elkarri barka diezaioten lagundu;
eta egun batean Jainkoaren seme edo alaba deitua izan.
Zoriontsu izan nahi dut nahiz justiziagatik jazarria izan;

pertsonari bere eskubideen alde borrokatzen lagundu nahi diot;
eta egunen batean zeruetako Erreinua gozatu.

Zoriontsu izan nahi dut nahiz zureetakoa izateagatik
eta Ebanjelioa bizitzeagatik iraindua,
jazarria eta gezurrekin erasoia izan.

Zurekin poztu eta alaitu nahi dut, Jauna,
sari handia baitut zain zure Erreinuean.

(...)

Jesus Jauna, zoriontasunen eta utopiaren Jauna:
Emadazu zure fedea
inguruan ditudan hesiak hauts ditzadan,
zure bideetako argian sar nadin,
bihotzeko egia maita dezadan,
zure Berriari leial izan nadin.
Zabaldu ezazu nire bihotza ezinezkoari, eskuraezinari,
eta nire ahaleginetan emadazu zure Bizitza Espirituaren hatsa.

ZORITXARREKOA, LURRONTZI HUTSA

*Zoritxarrekoa, lurrontzi hutsa izanik
bere egilearen eztabaidan hasten den gizakia!
Buztinak buztinlariari esango ote:
zertan ari zara? (Is 45, 9)*

Itsaso zabalean, Argia zuk bizi duzun
infinituan jolasean ari da.
Baina, Argia, Egia, Errealitatea, Gezurra, Itxura...
sarritan euren artean
dantzatzen duten argi-txakurrak baino ez dira.

Tango aztoratu batean ateratzen dira
bizitzaren dantza aretora
eta han gelditzen zaizkigu betiko,
alferrik aldentzen saiatzen garen liztor.
Edo antzinean hondoratu ziren galeretako anfora,
itsaso hondoko galtzaileen isiltasun.

Baina behin amesteko grazia egin zenigun,
eta dantza, nabigatzea eskubidetzat hartu dugu,
hain gara harroak.
Itsaso zabalean Argia iluntzen ari da,
eta zeruetako dantza aretoan haizea dabil.
Gerokoa badakizu, Jauna: enbata egunean
bakarrik irekitzen ditugu zukanako besoak.

Patxi Ezkiaga

ZU BAKARRIK

Gure asmoek erori eta porrot egiten baitute,
arrakastak ez baikaitu betetzen guk nahi bezala.
Maitasunik handienak ere
bakardade tarteak uzten baititu,
gure begiradek ez baitituzte hausten hesiak,
maitatu nahian, elkar zauritzen baitugu,
behin eta berriro topo egiten baitugu
gure hauskortasunarekin,
gure utopiak kartoizkoak baitira,
gure ametsak lurrindu egiten baitira goiz alban.
Gure osasunak guztiahaltasunezko gezurrak
aurkitzen baititu,
eta heriotza erantzuten ez dakigun galdera baita.
Mina lagun mingotsa baita
eta tristezia ilunpetako itzala.
Gure egarriak ez baitu iturbururik aurkitzen,
eta gatz zurrutadaz iruzurtzen baitugu gure burua.

Azkenean, erroetan, sakontasunean, ez dago Zu beste inor.
Zure Ametsak bakarrik uzten dit begiak irekitzen,
zure Begiradak bakarrik laztantzen du nire nitasuna,
zure Maitasunak bakarrik lasaitzen nau,
zuan bakarrik aurkitzen du atsedean nire ahuldadeak,
eta zure aurrean bakarrik amore ematen du heriotzak.
Zu bakarrik, nire harkaitz eta nire atsedean!

Javi Montes

ZUEI, ADISKIDE DEITZEN DIZUET

Zuei,
nire proiektuaren partaide
eta eragile zaretenoi;
zuei, nire Hitza jaso
eta indarrean jartzen duzuenoi;
zuei, nire izenean bildu
eta nire presentziaren oroimen zaretenoi...
zuei, adiskide deitzen dizuet.

Zuei,
zuen ahuldadean
indartsu zaretenoi;
zuei, ebanjelioaren aldeko apustuan
tinko irauten duzuenoi;
zuei, fede haragitan
aurrera jarraitzen duzuenoi...
zuei, adiskide deitzen dizuet.

Zuei,
aurpegia eman,
eskua luzatu eta
lanari ekiteko prest zaudetenoi;
zuei, besteen alde jokatzeko
baldintzarik
jartzen ez duzuenoi...
zuei, adiskide deitzen dizuet.

Zuei,
hobetze asmotan
errealitateari aurre egiten diozuenoi;
utopiari uko egin gabe,
helmugarako bidean jarri zaretenoi;
zuei, mundu hobe bati
aukera berriak eman nahi dizkiozuenoi...
zuei, adiskide deitzen dizuet.

Zuei,
sinesmena ospatu
eta daukazuena partekatzen duzuenoi;
zuei, festan eta lehian
elkarrekin diharduzuenoi;
zuei, nire sentimenduak eta nire Espiritua
baitaratu dituzuenoi...
zuei adiskide deitzen dizuet.

Joaquín Suárez Bautista

ZUEN JARDUERAN AHALEGINDU ZAITEZTE

Zuen jardueran ahalegindu zaitezte
batasunean eta inozentzian ibiltzen,
haur mutuaren antzera, burua irauli gabe.
Gero eta gehiago.

Ez pentsa etorkizunean, ez atzera begiratu.
Bai batak bai besteak ondoeza daramate berekin;
eta zuen oraingo egoeraren aurka doaz.

Oraingo une hau dadila zuen bizileku;
hor baino ez dago Jainkoa eta bere nahia.

Tersteegen

ZUGANANTZ

Zoramen zorabio
narama bizitzak;
nire ardatz eta gunea
ezin du jan sitsak.
Ai, ai, ai, ezin du jan sitsak.

Tximeleta horiak
hegada baldarra,
Zure bila noa ni
izaki daldara.
Ai, ai, ai, izaki daldara.

Iman burdin errauts
Zugana biraka,
orbel astuna noa
barrurantz jiraka.
Ai, ai, ai, barrurantz jiraka.

Hemengo nora ezak
Zuganantz du azken;
eta ni gezia nauzu
arkutik irteten.
Ai, ai, ai, arkutik irteten.

Zurrunbilo zoroa
zentzarazten duzu,
nire dantza eroak
Zu zaitu helburu.
Ai, ai, ai, Zu zaitu helburu.

Iokin Otaegi

ZUK AUKERATU NAUZU

“Gau sakoneko bakardadean daudenei
argia eramateko aukeratu nauzu, Jesus.
Hala eta guztiz ere, ondo dakizu,
ez dudala argi ikusten,
erabateko “bai” hori emateko zalantzan nabilela.”

*Hori da egun eder batez Jesusi esatera
ausartu nintzaiona.*

Eta Argia den Hark erantzun zidan:

“Niretzat balio handikoa zarelako
aukeratu zaitut, adiskide;
zurekin naukazu,
ez zara inoiz ere bakarrik geratuko.”

(...)

“Zure Berrionaren onurak aldarrikatzeko,
aukeratu nauzu, Jesus;
zure igarle eta profeta nadin.
Baina ni, hain nago urruti-urruti
zure igarle eta argitzaile izateko...
Nik ez zaitut ongi ezagutzen;
gainera, ni ez nauzu oso fidagarria...”

*Hori da egun eder batez Jesusi esatera
ausartu nintzaiona.*

Eta Jainkoaren Hitza den Hark erantzun zidan:

“Zure bihotzaren beharra dut;
zure ahots eta mintzo eta eskuen beharra;
elkar bat harturik
eginen dugu gizona gizon eta senide.”

(...)

“Gutxietsita daudenak askatzera joan nadin
aukeratu nauzu, Jesus;
arriskuan eta galzorian daudenak, alegia.
Baina ni –zuk oso ondo dakizu–
indar gutxikoa nauzu;
hauskorra da nire fedea,
nola natzaizu ni Zuri lotuko; ez naiz ausartzen.”

*Hori da egun eder batez Jesusi esatera
ausartu nintzaiona.
Eta Jainko-Salbatzaile den Hark erantzun zidan:*

“Niretzat balio handikoa zarelako
aukeratu zaitut, adiskide.
Zure bihotzaren beharra dut;
eta zure ahots eta mintzo eta eskuen beharra..
Ez zara bakarrik geratuko;
Ni zurekin izango nauzu;
elkar bat harturik
eginen dugu gizona gizon eta senide.”

T. Tendu

ZUK BADAKIZU MAITE ZAITUDALA

Jauna, zuk badakizu beti maite izan zaitudala
eta zu maitatzea dela nire nahia;
badakizu maite zaitudala.

Nire harrokeria eta urguiluagatik ere,
nire beldur eta leialtasun faltagatik ere,
badakizu maite zaitudala.

Nire nekea eta utzikeria aspaldikoak badira ere,
nire burua gogorra eta hutsala,
eta nire bihotza harrizkoa bada ere,
badakizu maite zaitudala.

Jende artean zu ikustea kostatzen bazait ere,
zu behartsu-jantzitan ikusteko traketsa banaiz ere,
badakizu maite zaitudala.

Nire fede-zalantza,
nire itxaropen dudatsu
eta nire maitasun posesiboagatik ere,
badakizu maite zaitudala.

Zenbait egunetako harropuzkeriagatik ere,
zenbait egunetako apatia eta adorerik ezagatik ere,
nire oinak nekatuta,
nire eskuak zikinduta
eta nire aurpegia zakartuta badaude ere,
badakizu maite zaitudala.

Maite zaitut, Jauna,
zuk egin zenuelako lehen urratsa
maitasun historia honetan
eta, hain hauskorra eta traketsa izan arren,
ez ninduzulako arbuiatu.

Maite zaitut, Jauna,
beti sinetsi izan duzulako
zure ondoan zerbitzari izateko
neurria eman nezakeela.

Florentino Ulibarri

ZURE AURREAN, JAUNA

Begira, Jauna,
zeinen biluzik nagoen.
Banabil, banabilelako...
Bizi naiz, bizi naizelako...
Baina, egia esateko,
ez dakit zein egitasmori jarraitu
eta zer egin nire bizitzan,
ez dakit zein den nire bidea
eta zein den irtenbidea.
Beste batzuek egiten dutenak erakartzen nau,
baina ezin dut neure kabuz pentsatu,
are gutxiago erabaki.
Horregatik, Jauna, Zure aurrera nator,
aukeraketan asmatzeko argi bila.
Lagundu balantzaren bi aldeetan
Jesusek irakatsitakoa jartzen:
geure burua besteei eskaintzea,
besteak maitatzea;
lortu nahi dudan saria
horrek berak emango baitit.

Atera nazazu diruak jendeari
ezartzen dizkion loturen artetik.
Ez nadila konforme gelditu
ia guztiok bizi garen
kaiola hotz honetan
“preso duin” izatearekin.
Jauna, eman, arren, askatasunaren
eta ilusioaren inguruko beste irizpide batzuk,
horrela benetan komeni zaidana
aukeratzeko gai izan nadin.
Izan bedi zuk nahi duzuna, nire Jainko.

Juanjo Elezkano

ZURE BIDEA HARTZEA

Jauna, gaur zure bidea hartzea
pobreekin bat egitea da,
horien ondoan eskuak zikintzea
eta duintasunaren alde lan egitea.

Zu zerbitzatzea beraietako bat izatea da,
beren eskubideak defendatzea
eta gose diren eta gaixo dauden seme-
alabak zaintzea.

Pobreen zoriaren aurrean
elkartasunez jokatzeko da
gaur egun zure nahia:
"Zer jango dugu bihar?"
"Nork ordainduko du ehorzketa!"

Jauna, zure bidea hartzea,
behartsuen aurpegietan
zu aurkitzea da,
infernua beldur
negar egiten dutenen
aurpegietan.
Barkatu, Jauna,
horiengandik oso urruti nagoelako.

Juanjo Elezkano

ZURE BILA NABIL

Badakit Zu ez zarela
diren gauza guztietatik ezer;
baina den oro Zutaz mintzo zait.

Zure aurpegiaren bila nabil, ene Jainko,
zure irudira eginak dauden aurpegietan,
eta nire barneko sakonik barrenenean
zure antzekoa bainaiz ni.

Zure ahotsaren bila nabil, ene Jainko,
nire barnean hizketan ari zaidanari
entzumena luzatzen diodanean,
eta hark, hitzik gabeko basamortura
joateko agintzen didanean.

Zure ederraren bila nabil, ene Jainko,
baita saihestu gabeko hutsegiteen bitartez ere,
bihotza barkamen keinura zabaltzen denean.

Zure egunaren bila nabil, ene Jainko,
zure gau argi□eramalean barrena nabilenean,
jaiotzera onartzeko heriotza onartzen dudanean.

Zure pozaren bila nabil, ene Jainko,
Zuk damaidazun bizitza onartzera
ausartzen naizenean, zeure seme bezala
maitasunari bidea irekitzen diodanean.

Zure bakearen bila nabil, ene Jainko,
Zeuk bakarrik baituzu ahalmena
bake hori munduan ezartzeko,
Zeu baizabiltza gurekin
gatazkaren gogorrean ere.

Zu Zeure bila nabil, ene Jainko,
maitasunez iraunerazi egiten duzun guztian,
gertatzen den orotan,
horien bidez baizatoz Zu gugana.

Didier Rimaud

ZURE HARRIGARRIAK KONTATZEN DITUGU

Eskerrak damaizkizugu, Jauna, bihotz-bihotzetik.

Alfabetoko letrak motz gelditzen dira
zure harrigarriak adierazteko: hain dira handiak!
Historia historia denetik herriak aurrera doaz.
Justiziak lurreko bazter guztietan ditu lagunak.

Gezurteik, bizitza erdeinatu eta jendearekin maltzur
jokatzen dutenek ez dakite bizipoza zer den.

Zuri begira jartzen direnean
zentzurik gabeko oihu batean galtzen dira:
onartezina zaie inor
zanpatuaren baltsamu izatea.

Inori lapurtu gabe,
maitasuna lege unibertsala egin
eta, inor kaltetu gabe,
justiziaren alde dihardutenek,
askatasun hitzak idazten dituzte horizontean.

Jaunak bezalaxe eta,
Jaunak bezalaxe, begiratzen diote bihotz barruari,
intentzio maltzurren bila.

Jauna, onar itzazu besteengatik izen txarra
pairatu behar dutenak,
onar itzazu ebanjelioaren arabera pentsatzen dutenak,
ebanjelioaren arabera bizi direnak.

Jesusen lekuko izateko
soberan daude gehiegizko hitzak;
hobe da Haren urratsak aurkitu
eta bertatik jarraitzea.

Gurutzea eta ebanjelioa
indarraren estandarte gisa erakusten dituena
gutxien espero duenean eroriko da
berak ezarritako tranpan.

Behartsuekin maltzur eta gaizki
jokatzen duenak ez du ezagutzen
Jaunaren aurpegia, Jauna baita
behartsuen esperantza.

Bide ertzeko harriek ere, Jauna,
haizearekin mintzaten direnean,
jakingo dute ez zarela aterako
boteretsuen alde.

José Serna

ZURE MAHAIKIDEGOA OSPATZEN (Lk 19, 1-10)

*Zorionekoa
Jainkoaren erreinuko otorduan
parte hartuko duena!*

Moraltasunagatik, lanbideagatik, gizarte-mailagatik
eta kulturagatik bekatari jotzen zirenak
onartzen zenituen zure lagunartean.
Beraiekin mahaian lagun izan zinen sarri, Jesus.

Ez zenuen zentsuratzea maite, animatzea baizik.
Ez zinen kritikoa, errukior eta kupibera baizik.
Ez zinen puritanaoa, alaia eta festazalea baizik.

Herriko tiporik okerrenak ere ez zenituen baztertu.
Alderantziz, zuregana bildu zenituen
edo beraiengana joan zinen.
Lebiren etxean egon zinen mahaian, Zakeorenean.
Horrela erakutsi zenuen nolakoa den zure barkamena.

Zergatik biltzen ziren bekatariak zure mahaira?
Barruan zeramaten atsekabea gozatzeko.
Gainean zeramaten zama arindu nahi zutelako.
Jainkoaren gozotasuna eta hurbiltasuna sentitzeko.
Zintzoengandik zetorkien etsaigoa mingarri zitzaielako.

Hori guztia eskaintzen zenien zuk, Jesus,
mahaian hartzen zenituenean:
erru-sentipena eta barruko harra desagertu egiten zen,
Jainkoaren adiskidetasun gozoa dastatu egiten zuten;
Zurekin mahaian guztiz onartuak sentitzen ziren.

Hori baita azken batez barkamena.
Horrelako barkamenak
sendatzen baitu pertsona eta ontzen;
okerrekoa egin ordez, on egin dezan;
bere burua eta besteak gaitzetsi ordez, maita ditzan;
ostu ordez, eman dezan;
itxi ordez, zabaldu dadin.

Mahaikidegoa, barkamena, sendaketa:
hori da esan eta egin zenuena.
Hurbildu, onartu, eskutik heldu,
begi onez begiratu, duintasuna aitortu,
barkatuz sendatu, mahaiko lagun egin.

José Olaizola

ZURE MAITASUNAZ GAINDI

Gaur, Jauna, gure ilusioa eta poza
adierazi nahi dizkizugu,
zure arnasak adoretzen eta gidatzen gaituelako,
zure eskuetan hartu eta gordetzen gaituzulako,
zure altzoan samurtasuna eta atsedena
hartzen ditugulako.

Hainbeste dohain,
hainbeste horizonte ireki hartu izanagatik
bihotza hunkiturik,
borborrean sortzen zaigu gorespina.
Zure maitasunaz gaindi egiten digu bihotzak
eta pozez beteta goresten zaitugu.

Oraina bizi nahi dugu
egindako aukeren, egindako urratsen indarrez;
maitatua sentitzen denaren bakean,
maitatzen duenaren tentsioan eta zelataritzan.

Buka ezazu zuk zeuk hasi duzuna.
Aita, ez ezazu utz gure harrokeriak eta koldarkeriak,
gure inkongruentziak eta utzikeriak
zuk egonarriz eta arretaz
gurekin egunero egiten duzun lana
honda dezaten.

Segi ezazu gure bihotza
gure ingurukoengan
eta oraindik ezezagunak zaizkigunengan
haragi egiten den zure Hitzera irekitzen.
Zure seme-alaben senidetasunean
goretsi nahi zaitugu.

ZURI DAGOKIZU OTOITZALDI HAU

Ederra gertatzen zait, Jauna, otoitz-tarte hau;
hain bainauzu otoitz-tarte honen gose-egarri.

Zer ederragorik oparitu diezazuket
otoitzaldi hau baino?

Hemen nauzu bada zure aurrean;
doazela minutu hauek tantaka-tantaka
eta denbora alferrik galtzea bezala.

Zure aurrean erretzea erabaki dudan minutuak dira.
Bare-bare eta nagi joango dira. Zuretzat.

Zuretzat propio aukeratutako minutuak dira.
Hutsik doaz.
Zugatik eta Zuretzat beste gauza
eta zeregin guztietatik hustuak.

Harri-harri eta lotsak nago,
ez baitakit minutu hauek nola bete.
Hemen nauzu, ahalke eta zorabio;
aspertuta ere bai; apur bat nahastuta.

Nigandik kanpo utzi nahi
izan ditudan gauza horiek beraiek
zirikatzen naute, eta xaxatzen, eta estutzen.
Hemen dabilta, behin eta berriz
nire arimako pareten aurka joka eta joka.
Nik ez dakit zer egin isilarazteko.

Barka, Jauna, gauza gehiegitan
barreiatuta eta zatituta bainago.
Barkatu nire baldarkeria eta nire asperraldia.

Zugan sinesten dut, Jauna.
Zu nigan ari zarela sinesten dut.

Eta otoitzaldiko sinesmen-ekintza honetan
uzten diot denborari doala bere bide labainean.

Zuri eskaintzen dizkizut, Jauna,
parerik gabeko minutu hauek,
ardo gozozko topa egitea eta xurgatzea bezala.

Isurika doan nire bizitzako parerik gabeko ordu hau.

Joana de Arco dominikarra

BIBLIOGRAFIA

Erabilitako liburuak

- BOFF, Leonardo, *Hablemos de otra vida*. Sal Terrae. Santander 1978.
- LETE, Xabier. *Egunsentiaren esku izoztuak*, Pamiela, Iruña, 2008
- PANORAMA, *Mensuel créthien de spiritualité*, Bayard Presse, Lille-Paris
- REAL NAVARRO, José. *Palabras desde el corazón*, CCS, Madrid, 2000
- SERNA ANDRÉS, José, *Salmos del siglo XXI*, DDB, Bilbao 1995
- Taldean, *Justizia eta bakea*. Arantzazu, Oñati, 2003
- Taldean, *Prières glanées*, Éditions Fidélité. Namar-Paris, 2002
- ULIBARRI, Florentino, *Al viento del Espíritu*, Verbo Divino, 2006

Gomendatuko liburuak

- EZKIAGA, Patxi, *Jaunaren supazterrean*, Arantzazu, Oñati, 2003
- LOIDI, Patxi, *Itsasorratzen*, Sal Terrae, Bilbao, 2004
- LOIDI, Patxi, *Izan bihotz!*, Idatz, Donostia 1987
- Taldean, *Jainkoari otoitza*, IDTP – DDB, Bilbao, 2007